

# Labirintoaren Irteera, Hezkuntza-Mosaikoa Lagun

HERRI HEZKUNTZA ETA GARAPENERAKO  
HEZKUNTZAREN NAZIOARTEKO SAREA





# Labirintoaren Irteera. Hezkuntza-Mosaikoa Lagun

HERRI-HEZKUNTZA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN  
NAZIOARTEKO SAREA

VITORIA-GASTEIZ, 2003KO MARTXOAN  
[www.webpolygone.net](http://www.webpolygone.net)





COMISION EUROPEA  
DG Desarrollo

Proiektu hau Europako Erkidegoaren dirulaguntzaz martxan jarri da. Bertan agertzen diren iritziak POLYGONerenak dira, eta ez dira bat etorri behar Europako Erkidegoaren iritzi ofizialarekin.

Dirulaguntzaileak:



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteiz  
Udala



Ministère  
de la Communauté  
française



Comunidad de Madrid



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZIOARTERO LANIKIDETA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



Dokumentu hau gaztelaniaz, portuguesez, frantsesez eta ingelesez eskuragarri dago POLYGONeren weborrian: [www.webpolygone.net](http://www.webpolygone.net)

# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b>	<b>5</b>
<b>1. POLYGONE Sarea</b>	<b>9</b>
1.1. Aurrekariak	11
1.2. POLYGONE Sarearen sorkuntza. 1998	11
1.3. Europako sarearen sendoketa eta nazioarteko sarearen sorkuntza. 1999–2000	12
1.4. Nazioarteko sarearen eraiketa. 2001–2002	13
1.5. Nazioarteko sarearen topaketa. 2002ko azaroa	14
<b>2. Labirintoa. Nazioarteko giroa eta hezkuntza</b>	<b>17</b>
2.1. Garapena eta globalizazioaren arteko tirabirak	19
2.2. Dilema handiak	20
2.3. Erronkak eta itzaropenak	21
<b>3. Mosaikoa. Heziketaren “Ipar-Hego” ikusmoldeak</b>	<b>23</b>
3.1. Mosaikoaren zatiak	25
3.2. Mosaikoaren lehen irudiak. Erkidezko diagnosis	26
3.3. Irudi txikiak eta berreraiki gabeko hutsunea. Kontraesan globalak	27
3.4. Zatiak elkartzen ez direnean. Tokian tokikoa eta globalaren arteko tirabira	29
3.5. Garapenerako hezkuntza eta herri-hezkuntza	31
3.6. Hezkuntzaren lau dimentsioak	33

<b>4. Labirintotik ateratzeko. Ze nolako gizarte-aldaketarako ze nolako hezkuntza?</b>	<b>35</b>
4.1. Ariadnaren matazak. Hezkuntzaren lau dimentsioak	37
4.2. Kulturaren mataza. Dimentsio kulturala	37
4.3. Politikaren mataza. Dimentsio politika	41
4.4. Pedagogiaren mataza. Dimentsio pedagogikoa	43
4.4.1. Hezkuntza eta kalitateari buruzkoa	44
4.4.2. Oinarrizko elementu eta hezibideei buruzkoak	45
4.4.3. Pedagogia mintegian aurkeztutako esperientziak	47
4.5. Matazak askatzeko. Sistematizazioa	49
4.5.1. Zer da benetan sistematizazioa?	49
4.5.2. Sistematizazio-esperientziak	51
4.5.3. Ebaluaketa eta sistematizazioa: berdinak ala antzekoak?	53
4.5.4. Edozein egoeran eta edozein aurrekontuarekin posible al da sistematizatzea?	55
4.5.5. Sistematizazioaren muga batzuk	56
4.5.6. Sistematizatzeke proposamen metologiakoa	56
4.6. Mataza askatzen da. Bide berriak	57
<b>5. POLYGONeren etorkizuna</b>	<b>59</b>
<b>6. Erakunde partehartzaileak</b>	<b>65</b>
<b>Iturriak eta bibliografia</b>	<b>89</b>

## Aurkezpena

“Prozesu bakoitzaren garapena sistematizatzeko eginkizunetan laguntzeko gure oroitzapenetara etengabe itzuli behar izan dugu. Horregatik narrazioa sigi-sagan dabil, gure gogoak jarraitutako bidea lagunduko balu bezala.”

*Isabel Hernández eta Osvaldo Cipolloni. Argentina–Txile. 1985.*





Dokumentu hau hegoaldeko eta iparraldeko erakundeek egindako lana da, eta bertan POLYGONE, Herri-hezkuntza eta Garapenerako Hezkuntzaren Nazioarteko Sarearen historia kontatzen da, modu horretan sarean dauden pertsona eta erakundeen eztabaidak eta ekarpenak berreskuratzeko. Agiri honekin proiektu honen ibilbidea berreraikitzen eta bidean ikasitakoa berreskuratzen saiatzen gara, horrela baliagarria izango da etorkizunerako estrategiak diseinatzeko eta erkidezko esfortzuarekin jarraitzeko.

Dokumentu deskriptiboa eta analitikoa da, sarea martxan hasi zenetik, Murgian (Euskalerra, Espainia) 2002ko azaroan egindako topaketa eta sarearen zehaztapeneraino sareko partaideek konpartitu dituzten informazioak, esperientziak eta hausnarketak biltzen saiatzen da. Helburuak hauexek dira:

1. Erreferentziatzko dokumentu bat sortzea, giza aldaketarako hezkuntzari buruzko eztabaida eta hausnarketa pizteko, eta bertan sareko partaideak elkar ezagutzeko.
2. Hezkuntza alternatiboari buruzko guztion pentsamendua sortzea.
3. Sareko partaideen arteko sendotzea bultzatzea.
4. Tokian tokiko sareen lana suspertzea.
5. Nazioarteko edo tokian tokiko foroetan POLYGONE ezagutarazteko aurkezpen-gutuna izatea.

Material hau mugatuta dago, eta ezin du POLYGONEren sortze prozesuan parte hartu duten pertsona guztien ideiak hitzez hitz jaso, nahiz eta desiragarria izan. Hala ere, ekarpen guztiak batorabiltzen saiatu da, nahiz eta bakarrik batzuk aipatu, adibide giza.

Dokumentuaren egitura honelakoa da:

Aurkezpena egin ondoren, “POLYGONE sarea” izeneko 1. atalean, nazioarteko sarea eraikitzeke jarraitutako ibilbidea aurkezten da. “*Labirintoa. Nazioarteko giroa eta hezkuntza*” deituriko 2. atalean hezkuntzaren betebeharrak oraingo globalizazio neoliberalaren giroan planteatzen da. “*Mosaikoa. Heziketaren “Ipar-Hego” ikusmoldeak*” delako 3. atalean hezkuntza-mosaikoaren eraiketa prozesua birmoldatzen saiatzen da, sareko erakundeek garapenerako hezkuntza eta herri-hezkuntzari buruz haien arloetan egindako proposamenen bitartez. Atal hau talde-analisiaren lau dimentsioak (kultura, politika, pedagogia eta metodologia (sistematizazioa)) aurkezten bukatzen da.

“*Labirintotik ateratzeko*” izeneko 4. atalean erakundeek sarearen topaketetan aipatutako lau dimentsioei buruz egindako eztabaidak eta proposamenak. 5. atalean (“POLYGONEren etorkizuna”) 2003 urterako koordinazio-plana aurkezten da eta urte horretan egingo den sarearen funtzionamendu eta nortasunari buruzko talde-eztabaida zirriborrotzen da. 6. atalean, “*Parte*

*hartu duten erakundeak*” delakoan, POLYGONE sarean dauden pertsonak eta erakundeak ezagutzeko elkargunea izaten ahalegintzen da, bakoitzaren hezkuntza jardueri buruzko informazioa barne. Bukatzeko dokumentu hau egiteko erabilitako iturri eta bibliografiaren zerrenda aurkituko da.

POLYGONEk “Iniciativas de Cooperación y Desarrollo”-ri dokumentu hau egiteko enkargua eman zion. Erakunde honek HEGOArekin —sarearen koordinatzailea— eta talde suspertzailerekin batera egin zuen. Talde suspertzaillean dauden erakundeak hauek dira: BIMAESW (Indonesia), CITI-HABITAT (Cabo Verde), PRODESSA (Guatemala), ETAPAS (Brasil), CIDAC (Portugal), CIP (Espainia), ITECO (Belgika) eta HEGOA (Euskadi, Espainia). Azken finean, talde-lana da, eta ez du autore-lanek duten homogeneotasun berbera.

Dokumentu hau prozesu honetan parte hartu duten gizon eta emakume guztiona da. Erredakzio taldeak atal honetaz eskertze-ko baliatu nahi du: zuen burutazioak, jakinduria eta esperientziak gurekin konpartitzeagatik, dokumentu hau sortzeagatik eta sarea pizteagatik. Espero dugu planteatutako helburuak bete-tzea eta erabiliko duten pertsona eta erakundeentzako ulergarria, arina eta baliagarria izatea.

Fernando Altamira, Esther Canarias, Miguel Argibay, Manuela Mesa, Belén Fernández de Retana eta Álvaro Nebredak dokumentu honen azken bertsioan egindako esfortzua eskertu nahi genuke, baita Mabel González Bustelok jatorrizko testua zuzentzeko ahalegina ere.

Azkenik —eta baita oso garrantzitsua ere—HEGOAk eskerrak eman nahi dizkie 2001eko otsailetik POLYGONE sarea koordinatzeko lanean lagundu dutenei: Carlos Askunze, Gema Celorio, Gladys Giraldo, Ainhoa Garagalza, Ramón Zúñiga, Eduardo Martínez de Guereñu, Juanjo Celorio, Amaia del Río, Irantzu Varela, Pilar Jurado, Patricia Hernández, Borja Doval, Ana Mireya Valverde, Erick Arellana, Pedro Campoy, Pedro Donoso, Rossella Mezzina, Jennifer Margot, Elia Sills, Francisca Dieste Vieira, Juan Manuel Dieste Vieira, Daniela Silva-Henriques Brites, Carlota Barros Alarcao, Mark Davies, Jesse Barker, José Marto, Fernando Sáenz de Ugarte, Fernando Ruiz de Temiño, Zuriñe Fernández de Retana, Kike, Fermín eta Komunika Digital taldea, Ana eta Iñaki de Marra, Viajes Iratxe-ko Meltxor, Sor Asun, Sor Epi eta Purísima Concepción egoitza osoa, Lankopi, Euskadiko Kutxako María Jesús, Uri Ruiz Bikandi, Susana Correal, Uxue Arbe, Nieves, CIP-eko Silvia eta Paulina, eta talde “portugaldarra”: Joana, Celina, Ana Maria da Conceição, Fernanda Ferreira, Ana Isabel eta Ana Filipa. Mila esker, bihotz-bihotzez.

## 1. POLYGONE sarea

“Bestea agurtzea ere, hori ere demokrazian ikastea eta demokrazian bizitzen ikastea da. Horrek informazio-, eztabaida-, adoste-, erabakitze-, ebaluaketa-ekintzetan giza talde baten partaide guztien elkartasuna eta partehartzea dakartza, herritargetik hasi eta munduko elkarteraino.”

*Ricardo Petrella. (2001) La educación víctima de cinco trampas.*



### 1.1. Aurrekariak.

Ekimen honen hasieran ITECO erakunde belgikarra aurkitzen dugu. 30 urte baino gehiagotan prestakuntza-programak diseinatu eta aurrera eramanez. Horrez gero, herri-hezkuntza, hezkuntza iraunkorra eta garapenerako hezkuntza hartu dituzte. Erakunde honek bere lanaren eragina zabaltzea interesgarri ikusi zuen, eta haien kezka konpartitzen zituzten erakundeekin batera “hezitzaileen Europako sarea” sortzeko asmoa hartu zuen.

1996an, ITECOk garapenerako hezitzaileen sare hau sortzeko proposamena lau erakunde europarrei egin zien: Étudiants et Développement (Frantzia), CIDAC (Portugal), CIP (Espainia) eta HEGOA (Euskadi-Espainia). Laurek proposamena onartu zuten eta ITECOk Belgikan profesional gazteentzako eta kooperatzaileentzako antolatutako ikastaroan aktiboki hartu zuten parte. Gero proiektu bat hasi zen: erakunde guztiek antzeko ikastaro bat egiteko konpromisoa hartu zuten, zeinek bere eremu geografikoan.

Ikastaro guztiak 1997an egin ziren. Erakunde bakoitzeko dinamizatzaileek Brusela, Paris, Madril, Lisboa eta Gasteizen egindako ikastaroetan parte hartu zuten. Aldi berean, Lovainako Unibertsitatean aditu-talde bat osatu zen prozesuaren jarraipena

egiteko, sistematizatzeko, ondorioak ateratzeko eta ebaluatzeko. Zeregin hori Lisboan bukatu zen 1998an.

### 1.2. POLYGONE sarearen sorkuntza. 1998

Prestakuntza-prozesu bakoitza bere arduradunek sistematizatu zuten, eta bakoitzetik dokumentu bat atera zen, honelako edukiekin: herri bakoitzaren gazteriaren diagnostika, haien Hegoko herriei buruzko iritzia, nazioarteko bidegabeko egoerari buruzko ezagutzak, eta elkartasunarekiko konpromiso-maila. Herrialde bakoitzeko prestakuntza prozesuko elementu zehatzak jaso ziren: partehartzaileak aukeratzeko irizpideak, proposatutako metodologia, burututako jarduerak eta ebaluaketa.

Sistematizatutako dokumentazioa oinarri hartuta, 1998 eta 1999 bitartean portugesez, frantsesez eta gaztelaniaz egindako dokumentu bat sortu zen, esperientziak biltzen dituen karpeta bat, eta bertan proiektuan parte hartu duten bost erakundeen esparruetan prestaketarako ikastaroa egiteko oinarritzko eskema bat proposatzen da. Lan horrek eskutik etorri zen sarearen sendoketa, eta sareari POLYGONE izena ezarri genion, poligono baten irudiak etengabe zabaltzeko aukera iradokitzen baitu.

### 1.3. Europako sarearen sendoketa eta nazioarteko sarearen sorkuntza. 1999-2000

POLYGONeren lehen helburua “Herri-hezkuntza eta Garapenerako Hezkuntzaren Nazioarteko Sarea” sortuz, esparru europarra gaintzea izan zen, kezak eta lorpenak hegoaldeko erakundeekin batera jartzeko. Kooperazioaren munduan nagusi izan den emaila aktibo eta hartzaile pasiboaren logika apurtu nahi zuen POLYGONEK, eta bere orde berdintasuneko harremana jarri nahi zuen. Azken finean, hegoaldeko eta iparraldeko erakundeen arteko kontaktu, eztabaida eta elkartrukeetan hastea, baina berdintasuneko berbatan, nagusitasunik gabe. Proiektu hau 1999 eta 2000 bitartean egin, eztabaidatu eta adostu zen. Bere helburu nagusiak hauexek ziren:

- Garapenerako hezkuntzak eta herri-hezkuntzak erabiltzen duten berba eta praktikari buruzko hausnarketa eta eztabai-

da egitea, “Hego-lpar” elkartrukea eginez, kontzientziazte-jarduerak eta gaitasunak hobetzeko, eta bakoitzaren komunitatearen garapenerako prozesuetan gizartearen partehartzea indartzea.

- Hegoaldeko eta iparraldeko erakundeen arteko hausnarketarako eta elkartrukeerako sare iraunkor bat sortzea, gizarte-aldaketarako hezkuntzaren teoria eta praktika berritzeko prestakuntza-eredu egokiak bilatu asmoz.
- Gizarte-aldaketarako hezkuntzaren betebeharra, bai iparraldean, baita hegoaldean ere, giza-garapena, elkartasuna eta kulturen arteko kooperazioa bultzatzea dela adostea.

Proiektuak Europar Batasuna eta tokian tokiko erakundeen dirulaguntza jaso zuen, eta 2000ko abenduan onartu zen, 2001eko martxoan ofizialki martxan hasteko. HEGOAK bere gain hartu zuen koordinazio orokorreko lana.

#### Proiektuaren egutegia

2000ko otsaila-iraila	2001eko martxoa-uztaila	2001eko uztaila-azaroa	2002ko urtarrila-uztaila	2002ko uztaila-azaroa	2002ko azaroa-2003ko martxoa
Proiektua egin	Proiektuaren hasiera	Prestakuntza-bilerak	Izen-emateko fitxak jaso	Osoko batzar eta mintegietarako dokumentuak aukeratu	Azken dokumentuaren zirriborroa
Proposamena berrikusi POLYGONeren partaideen artean	Hegoaldeko eta iparraldeko erakundeak identifikatu eta kontaktuak egin	Weborriaren diseinatu eta eraiki	Dokumentu eta esperientziak jaso	Aditu eta dinamizatzaileak aukeratu	Bideoaren zirriborroa Ebaluaketa
Europako Batasunean proiektua aurkeztu	Fitxak diseinatu (izen-ematea, dokumentuak, esperientziak...)	Elkartrukeen hasiera	Kasu-ikerketak bildu	Topaketa prestatu	Azken dokumentua 4 hizkuntzetan
	Weborriaren itxura fisikoa adostu	Tokian tokiko sareak sortzea	Topaketa diseinatzeko zortzi erakundeen bilera (hegoaldeko lau eta iparraldeko lau)	Programa, azpiegitura, logistika, dokumentazioa	Bideoa 4 hizkuntzetan
				Topaketa burutu	Sarearen egitura eta jarraipena

2001eko urtarrila eta ekaina bitartean, POLYGONEren fundatzailea izan zen erakunde batek, Étudiants et Développement-ek, finantza eta antolatze-krisialdi bat izan zuen, eta utzi egin zion proiektuan aktiboki parte hartzeari. 2001eko iraila-urrian, HEGOAK koordinaketa orokorra burutzeaz gain, Étudiants et Développement-ek zituen erantzukizunak hartu zituen.

#### 1.4. Nazioarteko sarearen eraketa 2001-2002

2001eko martxoan hasi zen proiektua, POLYGONEko partaideek lehentasunak eta epeak adostu eta gero. Partehartzeko baldintzak, motibatze erak, eta sarean sartzean hartu beharreko konpromisoak adostu ziren. Elkarrekin elkarreentzako fitxak egin zituzten (izena emateko, esperientziak eta testuinguruak azaltzeko). Antolatzaileok Europako, Afrikako, Asiako, eta Amerikako parte hartzera gonbidatzeko moduko erakundeen zerrendak osatu genituen. Prozesu hau ez zen batere erraza izan, harritu egin gintuen erantzunik eskasena Europako iparraldeko erakundeena izan zela ikusteak.

Elkartrukeak ahalgarriak izateko webgunea sortzea ezinbestekoa ikusi zen. Tresna hori lagungarria izango zen: hegoaldeko eta iparraldeko erakundeak kontaktuan jartzeko, sarean sartzeko gonbidapena eraginkorra egiteko, berari buruzko informazioa eskaintzeko eta sareko erakundeen ekarpen teoriko edo praktikoak zabaltzeko.

Weborriaren eremuak eta itxura definitzea ez zen zeregin erraza izan. 2001eko uztailean, ITECOk, CIDACEk, CIPEk eta HEGOAK behar eta proposamen guztiei erantzuteko weborririk egokiena adostu zuten. POLYGONEren weborria erabiltzeko prest zegoen 2001eko azaroa eta Abendua bitartean (ikus [www.webpolygone.net](http://www.webpolygone.net)).

Posta elektronikoa, telefono, fax eta posta arruntaren bitartez Afrikako, Asiako, Amerikako eta Europako atxikidurak eta kontaktuak egin ziren. Atxikidurarekin batera, bakoitzaren herrian POLYGONE sare lokal bat sortzeko konpromisoa hartzen zuten.

Interneten bakoitzaren testuinguruan egindako lanaz, eta nazioarteko globalizazio neoliberalak zuen eraginari buruzko eztabaida ireki zen. Gune horien zeregina hainbat testuingurutan egindako lanen egoerak, estrategiak eta helburuak ezagutzea zen, munduko kultura, lurralde eta herrietan, heziketa formalean eta ez formalean aritzen diren pertsonen heziketa nola ulertzen duten jakiteko.

2002ko maiatzaz geroztik topaketa prestatzen hasi ginen. Lau fundatzaileek mintegiaren diseinua, edukiak eta burutzapena hegoaldeko erakunde banarekin konpartitu behar zuten. CIDACEk Cabo Verdeko CITI-HABITAT erakundearekin dimentsio pedagogikoa konpartitu zuen; ITECOk Brasilgo ETAPAS erakunde bere sistematizazio-lanean bertakotu zuen; CIPEk Indonesiako BIMAESW erakundearekin batera diseinatu zuen politikari buruzko mintegia, eta HEGOAK kulturari buruzko mintegia Guatemalako PRODESSAekin prestatu zuen. Erakunde hauek erronka onartu, eta programa prestatzeari eta mintegi bakoitzerako adituak eta dinamizatzaileak bilatzeari ekin zioten.

Madriren, 2002ko ekainean, zortzi erakundeek Euskadin azaroan egingo zen topaketaren programa eta edukiak batera diseinatu zituzten. Baliteke lehen aldia ez izatea, baina ez da batere arrunta Iparraldean idatzitako garapenerako hezkuntzako proiektu bat Hegoaldeko lankideekin berraztertzen dela ikustea.

2002ko irailean, 40 erakundeek osatzen zuten sarea, munduko 30 herrietakoak: India, Nepal, Filipinak, Indonesia, Kongo-Burundi, Hegoafrika, Cabo Verde, Senegal, Benin, Angola, Paraguai, Panama, Peru, Bolivia, Brasil, Kolonia, Venezuela, El Salvador, Costa Rica, Guatemala, Portugal, Espainia, Euskadi, Belgika, Frantzia, Italia, Danimarka, Irlanda, Erresuma Batua, Holanda eta Luxemburgo. Etorri ez zirenak gorabehera (bereziki Europako, Amerika anglofonoko, Magrebeko eta, oro har islamiar herrietakoak) hasierako “poligonoa” hamaika bider handiagoa zen.

Iparraldeko herrietako —Europakoak batez ere— POLYGONEko partaideek elkarbizitza, errespetua eta elkartasunerako kultura

sortzeko helburua dute, beti ere nazioarteko kooperazioaren haritik. Horrek ikasleak, irakasleak, unibertsitarioak, kooperatzaileak, eta batzuetan baita lekuan lekuko elkarteetako kazetariak eta langileak prestatzea dakar. Hegoaldeko herrietako partaideen artean —Afrika, Asia eta Latinoamerika — xede-taldeak anitzagoak dira, eta normalean pobrezian edo arrisku-egoeran daude. Adibidez, POLYGOEko partaide batzuk haurren bizi-baldintzak hobetzeko ahaleginetan dihardute lanean. Beste batzuek landa-inguruneko edo hiri-inguruneko emakumeen jabe-kuntzarako lan egiten dute, edo indigena eta nekazariei laguntza ematen, Iparraldeko edo Hegoaldeko hirietako talde baztertuen duintasuna berreskuratzeko asmotan... Erakunde batzuk kasta-sistemetan erlijioagatiko diskriminazioa jasaten duten populazioei laguntzen diete. Beste batzuk gosealdiek edota gatazka armatuek lekuz aldarazitako komunitateei laguntzen eta gatazka-konpontzen espezializatu dira. Gainera, sarritan, kontinente guztietako eskualde eta herrietan, prestakuntza-prozesuak eragiten dituztenak kultura anitzeko gizarteek dituzten beharretara eta erronketara moldatu behar dira. Herri horietako giza taldeek, bertakoek eta bertaratutakoek, talde-nortasun itxuraz adostezinen arteko tirabirek sortutako gatazka-k dituzte.

Proiektuaren oinarri eta konpromisoen arabera, erakunde bakoitzak sare lokal bat izan edo sortu behar du, zeinek bere inguruan, eta bertan bete inguruko hiru erakundeak gutxienek izan behar dira. Horrela lortzen da: sarea hedatzea, elkartruke gehiago ezartzea, ikasteko eta elkarri laguntzeko aukera gehiago sortzea, eta erakunde bakoitzak bere inguruan duen eragina areagotzea. Horren ondorioz, mundu osoan gizarteak aldatu nahian ahaleginetan dabilen ehun erakunde baino gehiagotara zabaldu da sarearen eta topaketaren eragina.

## 1.5. Nazioarteko sarearen topaketa. 2002ko azaroa

Interneten hausnarketa eta informazio ugari mahai gainean jarri ondoren, 2002ko azaroaren 10etik 16a arte Nazioarteko sarearen topaketan burutu zen, “Labirintotik ateratzeko hezkuntza-mosai-

koa” izenpean, Murgian (Euskadi-Espainia). Labirintoa pertsonek eta hezkuntzak jasan behar duten munduko egoera atzerakorra da. Mosaikoa POLYGOEri aniztasuna ematen dioten erakunde guztiek osatzen dute.

Topaketaren egituran jatorrizko banaketa mantendu genuen, eta lau mintegi hauek sortu: kultura, politika, pedagogia eta metodologia. Azken horri izena aldatu genion (eta, nolabait, baita perspektiba ere), eta gogoia berreskuratzeko eta ikasteko metodo batean oinarritu genuen: sistematizazioan. Lan egin zen Lan-hizkuntzak lau izan ziren: gaztelania, frantsesa, portugesa eta ingelesa.

Hiru osoko batzar egin ziren: bata hasieran, beste bat mintegiak komunean jartzeko, eta azkena ondorioak aurkezteko. Mintegiak, aldiz, galdera berberari ekiteko bide desberdin gisa planteatu ziren sartzeko ateak izan ziren, alegia: Zer nolako gizarte-aldaketarako zer nolako hezkuntza?

Galdera horretara hiru egunetako lana eta gero heldu ginen: lana, hausnarketa, eta mintegietan parte hartu zutenek proposaturiko metodologiaren elkartrukea eta praktika. Mintegi bakoitzak berezko programazioa eta oinarrizko dokumentua bana zituen, hala nola eta diseinua eta edukiak osatzeko, taldea dinamizatzeko eta bertan landutakoa laburtzeko arduradunak ba. Baziren baita lau hizkuntzetarako interpretariak eta kontalariak.

### Mintegiak

1. **Kultura.** Aditua: Federico Roncal (Guatemala). Dinamizatzaileak: Guillermo Barrios (PRODESSA) eta Miguel Argibay (HEGOA).
2. **Politika.** Aditua: Alessio Surian (Italia). Dinamizatzaileak: María Mumpuni (BIMAESW) eta Manuela Mesa (CIP).
3. **Pedagogia.** Aditua: Isabel Paes (Portugal). Dinamizatzaileak: Mário Furtado (CIDAC) eta Elísio Rodrigues (CITI-HABITAT).
4. **Sistematizazioa.** Aditua: Oscar Jara (Costa Rica). Dinamizatzaileak: Adelié Miguel y Namur Corral (ITECO) eta Waneska Bonfim (ETAPAS).



## Topaketaren behin-betiko egitura

Ordutegia	1. EGUNA 11, Astelehena	2. EGUNA 12, Asteartea	3. EGUNA 13, Asteazkena	4. EGUNA 14, Osteguna	5. EGUNA 15, Ostirala	6. EGUNA 16, Larunbata
9.00 - 13.00	9.00 – 11.00 1.º OSOKO BATZARRA Ongi etorria: aurkezpena, azalpenak, metodologia, programa eta logistika (12.00 – 14.00) AURKEZPEN OFICIALA (Gasteiz) Sarrerako hitzaldia	4 MINTEGIAK (dimentsioak)	4 MINTEGIAK (dimentsioak)	9.00 – 12.00 2. OSOKO BATZARRA 4 mintegietako ondorioak eta sintesia 12.00 Atsedena edo TXANGOIA	4 SAKONTZE-MINTEGIAK Laburpenak eta dokumentazio-egitea	3. OSOKO BATZARRA Ebaluaketa Elkarrekin lan egiteko gomendioak eta aurreikuspenak
14.00 - 17.00	BAZKARIA ETA ATSEDENA					
17.00 – 20.00	4 MINTEGIAK (dimentsioak)	4 MINTEGIAK (dimentsioak)	4 MINTEGIAK (dimentsioak)	Atsedena edo TXANGOIA	4 SAKONTZE-MINTEGIAK Gomendioak eta elkarlanerako ikusbideak	
20.30 - 21.00	AFARIA					
22.00...	AURKEZPENETARAKO UNE LUDIKOA - MUSIKA	UNE LUDIKOA - MUSIKA	UNE LUDIKOA - MUSIKA	UNE LUDIKOA - MUSIKA	UNE LUDIKOA - MUSIKA	MUSIKA KONTZERTU-JAIA

HEGOAk koordinaketa logistikoa bere gain hartu zuen, Álvaro Nebreda eta Belén Fernández de Retana izan ziren arlo horretako arduradunak. Beraien lanen artean: antolatzaileei konpromisoak eta informazioa emateko epeak gogoraraztea, topaketarako lekurik aproposena bilatzea, eta partehartzea baieztatu zuten pertsonen gonbidapen, bisa eta bidaia-txartelak kudeatzea. Gainera, laguntzaileen taldea koordinatu zuten, dokumentuen itzulpenaz arduratu, eta itzultzaile-taldea osatu ere. HEGOarentzako lan egiten ohi duen “Marra” diseinu grafikoko enpresak diseinatu zituen nortasun-txartelak eta materialen karpeta (erreferentziazko artikulurak orokorrak eta mintegi bakoitzak behar zuen material zehatza sartu ziren bertan). Musikalari eta

artistekin harremanak izan ziren, aisialdirako ibilbideak programatu ziren eta bertako instituzio eta komunikabideekin protokolozko jarduerak eta laguntzak adostu ziren.

Beste enpresa bati, Komunika-ri, eman zitzaion weborria sortzeko eta mantentzeko ardura, eta erakunde bakoitzak ekarritako fitxak eta topaketaren karpeten edukiak erabiliz CD-ROM bat prestatzeko ardura. Álvaro eta Belének “Hego-lpar” topaketa bat oso gutxitan ikusten dela, eta horri buruzko bideoa egin behar zela iritzita, Pedro Campoy eta Erick Arellanarekin harremanetan jarri ziren, eta proposamena oso gogotsu hartu zuten. Esfortzu horri esker, gaur egun ikus-entzunezko erregistro bat badago; dokumentu horri

esker, sarearen partaideen artean eta baita bakoitzaren esparru geografikoan ere zabaldu ahal izango da.

Bien bitartean, beste partehartzaileek ere leher eginda bukatu zuten, zeregin handia zela eta (eguneroko eginbeharrak gain,

edozein lan-bidaiak dakarren kezka eta ardua, topaketaren prestaketa, bisen tramitazioa, maletak, urduritasunak, agurrak, beldurrak, irrikak, itxaropenak...) Eta pixkanaka-pixkanaka, kontinente guztietako delegatuak Euskadira heltzen hasi ziren<sup>1</sup>.

## POLYGONEn historia: Deskribapen alegorikoa

Kolektibo berri bat sortu du Europako hainbat taldek garapenerako hezkuntza landu asmoz. Euren lanak uztartu dituzte, erronbo itxurako kometaren egitura osatuz (aluminiozko kometa alegia, ez baita inolaz ere mendebaldeko teknologia ahaztu behar). Estructura ideiei hezigarriez egindako oihala arin batez estali zuten, Europako haizeetan gora emeki-emeki altxatu eta hegan egiteko moduko ideiak.

Kometak oso dotore egiten zuen hegal, baina ez zuen altxatzerik lortzen. Ia ez zen ikusten ahal Europako zeruetan. Estuegia zen, ez zuen munduan zehar batetik bestera dabiltzan elkartasunezko eta partaidetzazko haizeak gozatzeko azalera nahikoa.

Garapenerako hezkuntzazko haizeak onik jotzen dute Iparraldean, baina ahulegi. Hegoaldeko haizeez gozatu beharra zegoen, bertako herri-hezkuntzazko aire-zirimolen indarra.

Hau dena kontutan hartuz, lau erakundeek kometaren azalera zabaltzea eta modulu-sistema bat sortzea erabaki zuten, Hegoaldeko eta Iparraldeko erakundeentzako poligono ireki bat. Oihala arina izan behar zen, kolore guztietakoa, eta oso dindirri luzeduna, partehartzea handitu beharreko uneetan lagungarri izateko. Nahiz eta horrelakoa izan, nahiz lehen baino gorago zebilen, artean kolorezko izpil hutsa baino ez zen Europako zeru grisean.

Baina handik gutxira Indonesiako jendea etorri, eta aluminioaren orde zabanua jarri zuten; Cabo Verdetik *creole* haizea hasi zen putz batean; Guatemalako kolore eta sinbolo maiek ederretatu egin zuten kometa, eta maien egutegian hegal egiteko egunak proposenak adierazten zen; Brasilen partaidetzazko jutez eginiko sokekin arindu egin zen egitura eta azalera handitzeko zeregin neketsua, gainera, brasildarrek animatu egiten zituzten hegaldia altxatzeko unerik proposenak Afroamerikako danborren eritimoaz. Internet eta antzeko teknologia berriak lagun, mundu zabaleko kolore eta ideiak bildu ahal izan zen: Brasil, Bolivia, Kolonbia, Peru, Paraguai, Venezuela, El Salvador, Guatemala, Panama, Costa Rica, Kongo, Senegal, Cabo Verde, Angola, Hegoafrika, Benin, India, Nepal, Indonesia, Filipinak, Danimarka, Irlanda, Italia, Portugal, Belgika, Frantzia, Espainia...

Munduko txoko guztietako hezitzaileak Euskadin elkartu ziren, eta denen artean kolore askotako kometa poligonala altxatu zuten, ekarpenegindako mosaikoa bailitzan, eta haizea bere alde duenean, Afrika, Amerika, Asia, Europa eta Ozeaniako zeru guztietan ikusten da. Tokirik toki, kometa txikiagoak ikusten ahal dira, sare lokalen eskutik; horrela, handiena zeruan urrun dabilenean, maluta txiki-txikia iruditzeraino, orduan ere beti izango dugu kometaren bat gure begien parean.

POLYGONE nazioarteko sareak bihotz eman dio garapenerako heziketari, herri-hezkuntzarekin lotuz, eta egi bihurtu du Hegoaldeko eta Iparraldeko jendeen anaitasuna.

(Miguel Argibay, HEGOA, 2002)

<sup>1</sup> 6. atalean topaketan parte hartu zuten pertsona eta erakundeen zerrenda aurkezten da.



**2. Labirintoa.  
Nazioarteko giroa  
eta hezkuntza**



Munduko egoera ekonomikoa eta politikoa, globalizazioa, labirinto ilun bat da, eta planetari eta gizateri osoari izugarritzko indarkeriaz mehatxu egiten die. Etekinaren logika ez da gelditzen espezie eta kulturen heriotzaren aurrean, eta gizakiak “baliabide baztergarri” bihurtzen ditu.

Heziketa inork notatzen duen arrebarik txikiena da. Zertarako egin behar dugu herri-hezkuntza Gobernu boteretsuek inposatzen diguten gabeziatik ez bagara inoiz aterako? Zertarako egin behar dugu garapenerako hezkuntza gero eta odolgabeagoak diren gizarte hauetan elkartasuna lekuri gabe geratzen bada? Ze Hezkuntza, maiuskulan idatzita, egin beharko da giza-garapena lortzeko, gure munduko kultur eta aurpegi-mosaikoarekin adeitsua?

## 2.1. Garapena eta globalizazioaren arteko tirabirak

Azken hamarkadako ardura izan da heziketak gaur egungo nazioarteko esparruan duen betebeharra definitzea, zeintzuk diren bere helburu nagusiak eta zer nolako ezaguerak eta trebetasunak behar diren tokian tokikoak eta globalak diren arazoei

aurre egiteko. Azkenean, amaigabeko aldaketan dabilen munduan, pertsonaren heziketa integrala bultzatzean datza. Heziketak lagundu al dezake zuzenagoa, lagunkideagoa eta ingurunearekin adeitsuagoa den mundu baten eraiketan? Nola egin daiteke, eta nortzuk izan behar dira aktore nagusiak?

Jacques Delors burua den Nazioarteko XXI. Menderako Hezkuntzari buruzko Batzordeak UNESCOrentzako egindako txostena galdera hau erantzuten saiatzen da. “*Heziketak altxor bat gordetzen du*”<sup>2</sup> deituriko txostenak bere hasieran esaten du heziketa, gaur egungo erronken aurrean ezinbesteko tresna bat dela, gizartea bake, askatasun eta giza-justizia ispilurantz aurrera egiteko. Nazioarteko esparruan sortzen dira gainditu behar diren tirabirak eta etendurak, eta haien artean:

- Tokian tokikoa eta mundialaren arteko tirabira: pixkanaka munduko hiritarra izatea ardatzak galdu gabe eta herriaren eta komunitatearen bizitzan aktiboki parte hartuz.
- Unibertsala eta singularraren arteko tirabira: kulturaren mundializazioa eta dinamikoak diren bertako kulturen artean. Eta honen barnean tradizioa eta modernitatearen arteko tirabira.

<sup>2</sup> XXI. Menderako Hezkuntzari buruzko Batzordeak (1999). *Hezkuntza: altxor ezkutua*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 14-16 orr.

- Epe motza eta epe luzearen arteko tirabira, gaur egun berehalakoaren nagusitasunak elikatutakoa. Erantzun eta irtenbide azkarrak bilatzen dira, baina arazo askok adostasunak eta epe ertaineko estrategiak behar dituzte, eta haien artean hezkuntza politikak.
- Elkarren kontrako lehia eta aukera-berdintasunaren arteko tirabira, hezkuntza, gizarte eta finantzazko politikari urte askotan lotuta.
- Ezagueren garapena eta gizakiaren asimilazioaren gaitasunaren arteko tirabira.

Tirabira hauek era desberdinetan gainditu daitezke. Delorsek heziketak izan behar duen lau zutabe proposatzen ditu: ezagutzen ikastea, izaten ikastea, egiten ikastea eta elkarrekin bizitzen ikastea. Autore desberdinek azaldu dute ezaguera eta trebetasunei buruzko kezka, adibidez Morinek<sup>3</sup> etorkizuneko hezkuntzarako beharrezkoak diren ezagueren multzo bat proposatzen du.

## 2.2. Dilema handiak

Aktoreei dagokionez, hezkuntzak duen betebeharra definitzeko unean, oso garrantzitsua da analisi maila desberdinetan kokatzea: gizartekoa, estatukoa eta nazioartekoa. Gizarte mailan –pertsonek, taldeak eta komunitateak osaturik— garapena eta giza-justizia bultzatzeko hezkuntzaren eginkizuna ezinbestekoa dela usten da. Garapenerako hezkuntza eta herri-hezkuntza gizartearen eraldakuntzan oso eginkizun garrantzizkoa izan dute eta, besteen artean, bake, giza-eskubide, haur-eskubide eta ingurunearen aldeko mugimenduak lagundu eta indartu dituzte. Heziketa hori ikastetxean kokatzen, da, baita gune ez-formaletan ere (helduekin, emakumeekin, gazteekin eta beste taldeekin).

Estatu mailan, Estatuak erantzukizuna dauka demokrazia eta herri-zaintza zuzenaren baloreak zabaltzeko, eta egin beharko du bake eta giza justiziaren baloreak bultzatzen duen hezkuntza-politika baten bitartez. Honek curriculum bat sortzea dakar, bes-

teen artean, garapena, kultura eta ingurunearekin lotuta dauden gaur egungo arazoaren dimentsio lokalak eta globalak kontuan izaten duena. Hala ere, Gobernu askok haien herriari oraindik ezin diote bere heziketarako eskubidea bermatu. Hau oso gai larria da, etorkizuneko garapenerako aukerak kolokan jartzen dituelako.

Nazioarteko mailan, heziketaren arloan lan egiten duten nazioarteko erakundeek sustatu behar dute bake eta giza justizian oinarritutako nazioarteko ulerkuntzarako hezkuntza. Zentzu honetan, UNESCOk ekimen desberdinak sustatu ditu, eta gomendioak eta ekintza-planak aldarrikatu ditu, gizarte maila guztietan askatasun, justizia, demokrazia, elkarlan, aniztasun, kultura-ezberdintasun, elkarrizketa eta ulerkuntzarako oinarrietan eraikitako proiektu bat sendotzeko ardatzak jartzen ditu.

Tirabira, arazo eta proposamen hauek nazioarteko esparruan kokatu behar dira, eta esparru hau gero eta “globalizatuago” dago arlo guztietan: ekonomian, gizartean, politikan eta kulturaren. Honekin batera, irailaren 11az gero, segurtasunari buruzko gaiek garrantzi handia izan dute eta “terrorismoaren kontrako gerra” justifikabidea izan da askatasuna mozteko eta Nazioarteko Zuzenbidean lorturiko emaitzak (adibidez, Nazioarteko Gorte Penalaren sormena) kolokan jartzeko. Dilema zaharrak berriro agertzen zaizkigu: segurtasuna askatasunaren aurrean, herri-nortasuna kosmopolitasunaren aurrean, eta gatazkak gainditzeko unean, indarkeriaren erabilpena irtenbide baketsu eta negoziatuen aurrean.

Mundu iraunkor eta seguru bat ez da izango munduko gizartearen populazio erdiak jasaten duen egoera mantentzen baldin bada: Banku Mundialaren datuen arabera, populazio horren biztanle bakoitzeko sarrera eguneko bi dolar baino gutxiagokoa da, eta aberatsen eta pobreen arteko ezberdintasuna gero eta handiagoa da. Ekonomia-politikak jasandako autonomiaren galerak, merkatu globalak baldintzatuta, gizarte politikak aurrera eramateko ezintasuna, nazioarteko lehiaren eskakizunek sortutako Estatu desegiteko arriskua, eta botere ekonomikoaren pilaketa

<sup>3</sup> Morin, E.(1999) *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Bartzelona: Paidós.

enpresa transnazionalen eskuetan, Estatuaren jabetasunaren eta autonomiaren galera erakusten duten prozesuak dira, eta demokraziarentzako mehatxu dira mundu mailan.

Globalizazioak, Jorge Alonsok<sup>4</sup> dion bezala, politikaren eginkizuna txikiagotu egin du, eta merkatuarena handiagotu egin du, hori dena gizarteari eta bere erregulatzeko tresna politikoei bizkarra emanez. Politika teknikan laburtu da, eta ekonomia hazkundera. Horregatik, munduko ekonomia aurrera doan bitartean, herrien arteko eta barneko desberdintasunak inoiz ezagutu ez dugun neurrira ailegatu dira. Neoliberalismoak hiritargoa eta benetako elkartasuna ahultzen ditu eta elkarren onura desegituratzen du. Pobreziaren zergatia ez da baliabide eza, baizik eta irtenbidea lortzeko borondate politiko falta. Pobreziari egitura politikoetan egindako aldaketa sakonekin aurre egin behar zaio, giza justizian eta oreka ekologikoan oinarritutako mundu demokratiko bat eraikitzeko. Pobreziak gehien ukituriko gizartearen sektoreek boterea eskuratu behar dute. 60ko hamarkadan urratzen zen estrategietariko bat Paulo Freirek bultzatutako “Zapalduaren pedagogia” izan zen: pertsonak historiaren subjektu bihurtzen dira, zapalduak haien egoeraz ohartzeko eta errealtatea eraldatzeko lan egin dezaten.

Zabaldutako gabeziak inguru batean demokrazia ezin da sendotu Latinoamerika, Afrika edo Asiako herri batzuetan dagoen. Gabeziak hiritargoa zedentzen du, ezin duelako zeharo parte hartu eskubide hori erabiltzeko gutxienezko baldintzak ez direnean. Eta hau da Brasilen “partaidezko aurrekontu”-ekin aurrera eramaten ari diren erronketariko bat: baztertuak nola gizarteratu, hiritar aktiboak izateko.

PNUDeK 2002 urtean egindako txostenaren gai nagusia “Zatitutako mundu batean demokrazian sakontzea” da. Txosten honek giza garapenerako ardatzik garrantzitsuenetariko bat partehartze politikoa dela dio, eta mundua gehiago zatitu ez dadin negoziaketetan eta munduko erakundeetan oinarri demokratikoa eskatzen du. Dena dela, nahiz eta demokraziaren sendo-

tzeak nazioarteko esparruan kezka handia sortu, 2002ko martxoan Mexikoko Monterreyn egindako garapeneraren finantzaketa-ri buruzko munduko batzarrean, garapenerako laguntza handitzeko aukera gaitzetsi zen. Batzar hau hegoaldeko herriei transferentziak emendatzeko aukera zen, zorren barkamena edo garapena finantzatzeko zerga global berriak sortuz. Hori militarra ez den mekanismo “neokeynesian” bat izan zitekeen gabezia eta desberdintasuna gutxitzeko, munduko ekonomia berpizteko eta gerraren arrazoi sakonei aurre egiteko. Baina hitz eta ideei politik erretorika hutsa baino ez ziren, eta oso neurri garrantzitsu gutxi hartu ziren, adibidez Europako Batasunak hain aurreratuta ez dauden herriei emateko hartutako konpromisoa Barne Produkto Gordineko %0,15 eta %0,20 bitartekoa.

### 2.3. Erronkak eta itxaropenak

Gerra, globalizazioa eta zuzengabekeriaren elkartasun arriskuak hausnarketa, kritika eta gaur egungo munduaren bidetarako aukerak formulazioa are garrantzitsuagoak egiten ditu. Horregatik, Brasilgo Porto Alegren orain dela hiru urte deitutako Munduko Giza Foruak garrantzi handia du eta itxaropenerako ikurra bilakatu da. Batzar hau gune bat sortzeko beharrak bultzatuta sortzen da orain nagusitu den eredu ekonomikoari alternatibei buruzko hausnarketa, eztabaida eta analisia egiteko. Foru hau Davoseko Batzar Ekonomikoarekin batera egiten da, errealtatean lan egiteko beste erak daudela agerian jartzeko, eta modu horretan, neoliberalismoaren planeta osoko erasoaldia ziurtatzen duen “pentsamolde bakarra”-ri gune alternatibo bat eraikitzeko. Munduko Giza Batzarra, alternatiba, oso erraza bezain sakona den kontzeptua elikatzeko, irudikatzen eta diseinatzen da.

Nagusitu den garapenerako ereduak argi erakutsi du gizarte osorako bizitza duina eskaintzeko ezintasuna. Alternatibak ezinbestekoak dira, baina formula politiko eta eskabide nabari bihurtu behar dira. Alternatibek bilaketa horretan batzar tematikoak egi-

<sup>4</sup> Egile batzuk (2002) *Alternativas Sur 1*, Madril. CIP/FUHEM.

ten dira ere bai, hezkuntzarena hain zuzen ere. Heziketa, politika-praktika eta eraldatzeko gunea bezala, alternatiba horiek eraikitzekeko estrategi bihurtzen da. Zentzu honetan, agertzen den dilema bat, Fernando Martínez Herediaren hitzetan<sup>5</sup>, pentsaeraren aurrerapausoak gizakiak askatzeko baliagarriak izango ote diren edo nagusitu den sisteman sartuko diren jakitea da. Eskakizun bikoitza behar da: gogoia eta historia berreskuratzea, eta bereziki, askatzeko esfortzuak eta etorkizuna irudikatzekeko ahalmena. Prozesu honetan, herri-hezkuntzak oso eginkizun garrantzitsua izan dezake, politikoa eta hezitzailea den jabetasun-prozesu baten aktiboki partehartzeko eta kontzientziatzeko tresna bezala, boterea eta eginbeharrak banatzeko eta ahalmena eta sormena eragiteko.

2000 urtean Dakarren egindako Heziketari buruzko Munduko Batzarra kontuan izateko beste gertakizun bat da<sup>6</sup>. Heziketarako aukera, garapena lortzeko ezinbestekoa da, eta hori lortzea planeta osoaren erantzukizuna da. Hori milaka pertsoneri ukatutako eskubidea da. Jomtien Oinarrizko Heziketa Unibertsala lortzeko azaldutako helburua Dakarren 2015 urtean Guztiontzako Heziketa lortzeko egindako proposamenean gauzatu da. Horretarako, herrietako Gobernuak ekintza-plan nazionalak epe motzean prestatu behar dituzte, beharrezko baldintza kanpoko laguntza izateko. Laguntza emailek konpromisoa hartu dute: finantzaketa zehaztea eta behar diren herriei laguntza emateko estrategi partikularrak egitea. Guztiontzako heziketa egi bihurtzeko beharrezkoa den elkarrekin egiteko esfortzu bat.

Heziketarako eskubidea kolokan dago, baita Iparraldeko herrietan ere. Munduko Merkataritza Antolakundeak Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Nagusia (GATS, ingelerazko sigletan) aurreikusitako zerbitzuen pribatizazioak (hezkuntza besteak beste) hezkuntza merkantzia bihurtzea ekarriko du. Hezkuntzaren merkantilizazioak hezkuntza-sisteman lorturiko aurrerapen asko arrisku bizian jartzen ditu, tokian tokiko curriculum moldaketa, programa elebidunak edo giza berdintasuna gehiago lortzeko tresna hezitzaileak, hain zuzen ere.

Egoera honi aurre egiteko ikuspuntu globala eta hausnarketa eta jardueraren arteko etengabeko elkarrekin beharrezkoak dira, munduko herri guztien eskarmentu soziala eta kulturalaz abarastuta. Tokian tokikoak, herrialdekoak eta nazioartekoak diren ekimen asko eraldaketa hori lortzeko elkartzen dira eta elkarrekin mugitzen dira, eta horregatik proposamen eta aukera desberdinen arteko elkarbizitza lortzea ezinbestekoa da. Elkartasun zabala lortzea beharrezkoa da, bazterketa ekonomikoa, dominazio politikoa, sexismoa, arrazakeria, eta beste diskriminatzekeko moduen kontrako erresistentzia eta borroketan oinarrituta. Taldearen baloreak diren giza-justizia, bakea, anaitasuna, aukera-berdintasuna, naturarekin adeitasuna sustatzea eta kultura eta heziketa bultzatzea herriak askatzeko tresna bezala.

<sup>5</sup> Egile batzuk (2002) *Alternativas Sur 1*, Madril. CIP/FUHEM.

<sup>6</sup> Dakarreko bilera 1990eko martxoan Jomtien (Tailandia)-n izandako "Heziketa denontzat" Batzarraren bigarren fasea da.





### 3. Mosaikoa. Heziketaren “Ipar-Hego” ikusmoldeak

“Zati txikitxo bakoitza elkartzeko epetasunak  
eta grinak mosaikoaren irudi osoaren  
edertasunaren saria dute.”

*Anonimo italiarra.*



### 3.1. Mosaikoaren zatiak

Gaur egungo mundua labirinto iluna da, bertan aurkitzen dira gerraren minotauroak, aberatsak eta pobreen arteko ezberdintasuna, emakumeen bazterketa eta kultura-berdintzearen mehatxua. Eredu hegemoniko neoliberalak inposatutako pentsamolde bakarrak kokatzen gaitu “segurtasunaren” teoria inperialista eta giza garapen iraunkorrek proposatzen duen “partehartzearen” teoriaren arteko bidegurutzean. Diagnostiko hori oinarritzat hartuta, POLYGONE sarea egoera honetan heziketa eta hezitzaileek izan dezaketen eginkizuna bilatzen saiatzen da.

POLYGONE herri, esparru, esperientzi, xede-talde, eta lan egiteko era desberdinaz eratutako mosaiko bat da. Horregatik benetan zaila egiten da, nazioarteko lpar eta Hegoaldeko hezitzaileen sare honetan heziketari buruzko irizpideak adostea. Sare honetan beste herriekiko sentsibilizaziorako eta elkartzuneko konpromisorako lan egiten duten erakundeak daude. Baita haien esparruetako giza talderik behartsuenen heziketan ardura hartzen duten erakundeak biltzen ditu ere. Guztiak kultura anitzak dira, eta hori benetako erronka da besteak beste demokrazia

partehartzailea, gatazken ebazpena, aukera-berdintasuna eta kultura-aniztasunari izan beharreko adeitasuna bultzatzen dituen heziketarako.

Nola definitu heziketa-eredu bat, orduan, behar eta testuinguru hain desberdinei erantzuna emateko? Zeintzuk dira mundu osoko hezitzaileak biltzen dituen heziketa-zergatiak? Zeintzuk dira sare honetako erakundeen izan daitezkeen erkidezko helburuak? Zergatik ez erakunde bakoitza bere errealitatean bakarrik lanean jarraitu? Zergatik heziketa-premisak adosten saiatu, jadanik oso korapilatsuak diren bakoitzaren errealitatean eraldatzean saiatu baino?

Galdera guzti horiek agertzen ziren sarean ziren erakunde guztien ikuspuntu eta sentimendu desberdinak bilduko zituen heziketaren definizio bat sortzeko garaian. Heziketaren definizio itxia egitea kontraesan bat zela adostu genuen, POLYGONE osatzen duen errealitate eta perspektiba-mosaikoarekin bat etorriko ez zen molde bakarra inposatzea suposatuko litzakeelako.

Bakoitzaren esparruan egindako heziketa-ereduak giza-garapena sortzeko erantzun alternatiboak diren eraikitzeari buruzko

eztabaida eta hausnarketa beharrezkoak zirela uste genuen. Gure helburu nagusia bai erkidezko jomuga –egoera honetan heziketak hartu behar duen eginkizuna– definitzea, baita errealtate anitzak eta Ipar eta Hegoaldeko herrietan irtenbide hezitzaileak bilatzeko era desberdinak ezagutzea zen ere. Egunerokotasunak inposatzen duen isolamendu eskatzailea apurtu nahi genuen, gure errealtatearen interpretazioa zalantzan jartzeko eta besteen emankizunekin berritutako diskurtsoa berre-raikitzeke.

### 3.2. Mosaikoaren lehen irudiak. Erkidezko diagnostikoa

Egindako elkartrukeei esker, hezitzaileen nazioarteko sare batean elkarrekin lan egitera bultzatzen gaituena eta elkartzen gaituena arrazoi multzo bat egiten duela erabaki genuen. Arrazoen artean baikorrak eta ezkorak baziren, baina guztiak gure erkidezko jomugan daude: gizartearen berraldatzerako heziketaren historia. Emankizun desberdinak kontutan izanda, ondorio bat atera genuen: gure heziketako iraganari buruzko diagnosian bat gentozela. Diagnosi horretan etorkizunean saihestu beharko diren irtenbide aizunak eta akats batzuk aurkitu ziren.

1999an Brasilgo Olindan egindako hitzaldian, Frei Bettok<sup>7</sup> adibide batzuk azaldu zituen. Bikaintasunezko heziketaren bidezko gizartearen eraldatzearen porrota aztertu zuen. Ikastetxe katolikoek martxan jarri zuten heziketa hori indibiduoan oinarrituta zegoen eta azkenean klase zuzendari alderdikariak eta ustelduak sortu zituen.

Iraultza armatuak eta politikako abangoardiak gizartearen aldaketa sortuko zutela ideiak porrot egin zuen. Iraultzaren estruktura eta doktrinek, mekanikoki eta derrigorrez, populazio osoa iraultzaile, kontzientziatuta, eta herriko ongizatea lortzeko arduratsu bihurtuko zutela ideiarekin bat zetorren ezkerak oso

emaitza negargarria ekarri zuen. Egitura zurrunez dogmatismoa, agintekeria, ustelkeria eta mafia politiko, finantzako, militar edo ideologikoen sormena garatzea bakarrik lortu dute, giza zuzentasuna, partehartze komunitarioa eta giza-eskubideekin adeitsuak izateko ideietatik oso urrun.

Bettok ustezko praktika askatzaile eta partehartze eragileen kontraesanaz irri-mirriz hitz egin zuen: “...nekazarien talde batekin lan egingo dugu..., beno, zuen esperientzietan oinarritzea oso ona izango litzateke, baina denborarik ez dugunez, hitzaldi bat emango dizuet. Eta horrela izan da beti, gure teoria askatzaileen izenean praktika kolonizatzailearekin zapaldu egiten dugu gure ideala”

Akats horietaz gain, beste batzuk badira, esaterako, heziketa ez-formala indar askatzaile bakarraz hartu eta berarengan justiziarako berdintasunerako eta askatasunerako heziketa izateko konfiantza osoa jarri, heziketa formala baztertuz. Horiexek ziren “eskolaz kanpoko” heziketaren premisak, 60ko eta 70eko hamarkadatan Paulo Freire eta Ivan Illichek “banku-heziketa”-ri egindako sustraizko kritikatan oinarrituta. Beste nahaste garrantzitsua: heziketa ez-formalak, pertsonen emankizunetan oinarrituta, hezitzaileen prestaketa-beharrak alderatu zituen (haien eginbeharra dinamizatzea edo tokian tokiko emankizunak ordenatzea zen, metodologiako zehaztasuna eta jakinduria alde batean utziz)

Garapenerako heziketan, fatalismoa nabaria izan ohi da, baita herri pobreen “biktimizazioa” ere. Herri aberatsen erantzukizuna gutxi azpimarratu da, beste kulturen elementu aberatsak eta gizarte osoari egindako emankizunak baztertuz. Guzti horrek behartu gaitu teoriak eta metodoak birpentsatzera eta gure heziketa-praktikak zalantzan jartzera.

Erne egon behar gara, iraganeko akatsek gure urratsak labirintetik ateratzeko irtenbide faltsuetarantz bideratu zituzten. Alabaina, herri-hezkuntzak eta garapenerako hezkuntzak izan

<sup>7</sup> Betto, Frei. *Desafíos para la Educación Popular en la Coyuntura de América Latina*. Herri-hezkuntzako Mintegi Latin Amerikar eta Karibearra. 1999.

dituzten arrakastak aipatu behar ditugu, gure erkidezko jomugan bait daude. Paulo Freire eta bere jarraitzaileen arrakastarik nagusiena pedagogia jendearen behar eta ezagutza zehatzetan oinarritzea izan da. Beste arrakasta heziketa formalaren eta ez-formalaren esparruan genero-berdintasuna bultzatzeko jardunbide zehatzak planteatzea izan da, eta eginkizun horretan daude hainbat POLIGONEko partaideak. Sarean gauden heziketa-higikundeok, giza-eskubideak, gatazken ebazpena, justizia eta elkartasuna lantzen saiatzen gara, bai tokian tokiko, bai herriko, baita nazioarteko harremanetan ere.

Proposamen horiek urteetan zehar oso poliki garatu dira, eta haien emaitza izan da kontzientzia soziala. Kontzientzia hori nagusitu den eredu neoliberalaren zapalkuntzak salatzeke prest dago. Nahiz eta munduko egoera oso itxaropentsua ez izan —eta Hugo Chávezek, Venezuelako presidentea, esan zuenez, “gobernuak gailurreko konferentziaz gailurreko konferentzia doaz, eta herriak, aldiz, zuloz zulo” — gailurreko konferentzi guztiek foru alternatiboak izan dituztela eta gizartea askotan mobilizatu egin dela gogoratzea garrantzitsua da, beti giza-eskubideen alde eta globalizazioaren alde ezgizatiarren kontra. Azken finean, eredu hegemonikoaren kontrako heziketaren estrategien bilaketak bilitzen gaitu, iraganeko akats estrategikoak baztertuz.

Gaur egungo munduan bizi den elkarren beharrak (ekonomikoa, politikoa, inguruetakoa eta kulturala) erantzun globalak bilatzera bultzatzen du. Isolamendua saihestu nahi dugu, eta horregatik, erkidezko jomuga eraikitzea oso garrantzitsua dela uste dugu. Horretarako, tokian tokiko lanak eta mundializazioaren esparruan dituzten loturen arteko elkartrukeetan oinarritu beharko gara.

### 3.3. Irudi txikiak eta berreraiki gabeko hutsunea. Kontraesan globalak

Orokorrean, eta bereziki mendebaldeko kulturetan —ez dira arduradun bakarrak, baina bai historian zehar emandako globalizazio politiko, militar, teknologiko, finantzazko eta heziketako globalizazioaren prozesuaren arduradun nagusiak—premisari hori onartuta dago: herri baten biztanleak lehen edo bigarren hezkuntzan aritzen badira, eta gutxi batzuk unibertsitatean joaten badira, bere memorio historikoa zaintzen du eta bere emaitza zientifiko, tekniko, filosofiko, etiko eta artistikoak ugaritzen ditu.

Ez-arautua den heziketako estruktura hori munduko edozein herriaren hezkuntzaren egoeraren irizpide eta adierazle bihurtu da. Horrela aurrekontuek, irakasleen kopuruak eta biztanleriaren matrikulazioak giza lagunen arteko ongizate, justizia eta ezaguerak banatzeko berdintasun-maila zehazten dute.

Gaitzesgarria da munduko populazioaren zati handiaren heziketa-egoera, batez ere ezjakintasunaren “feminizazioa”. Hau da bakarrik planetako gizakien %15ak gozatzen duen ezagueren pilaketaren beste alde. Baita gaitzesgarria da munduko gobernu guztiek heziketari dioten mespretxua, nazio-produktu gordinaren kontusail benetan txikiak bideratuz.

## POLYGON Eren partaideen herrien heziketa-egoera

HERRIA	Azalera (Km <sup>2</sup> )	Biztanleria	Analfabetismo-tasa	Unibertsitarien-tasa
<b>AFRIKA</b>				
Angola	1.246.700	11.300.000	%58	%1
Benin	112.622	5.563.000	%62	%3
Cabo Verde	4.033	450.000	%22	Ez dago daturik
Kongo	2.344.858	46.812.000	%30	%2
Senegal	196.722	9.000.000	%50	%3
Hegoafrika	1.221.037	42.393.000	%18	%17
<b>ASIA</b>				
Filipinak	300.000	70.000.000	%5	%27
India	3.287.590	1.000.000.000	%50	%6
Indonesia	1.904.569	200.000.000	%16	%11
Nepal	147.181	23.000.000	%70	%5
<b>AMERIKA</b>				
Bolivia	1.098.581	7.800.000	%17	%23
Brasil	8.511.965	174.000.000	%20	%11
Kolonia	1.138.914	37.000.000	%10	%17
Costa Rica	51.100	3.943.000	%5	%32
El Salvador	21.041	7.000.000	%30	%18
Guatemala	108-889	11.200.000	%45	%8
Panama	75.517	2.800.000	%10	%30
Paraguai	406.752	5.100.000	%10	%10
Peru	1.285.216	26.749.000	%11	%31
Venezuela	912.050	23.916.810	%10	%29
<b>EUROPA</b>				
Belgika	30.519	10.152.000	%0	%57
Dinamarka	43.094	5.283.000		Ez dago daturik
Espainia	504.780	39.699.000	%3	%53
Frantzia	551.500	58.886.000	%0	%51
Irlanda	70.280	3.705.000	%0	%41
Italia	301.270	57.343.000	%2	%47
Portugal	92.390	9.873.000	%10	%38

Iturria: Guía del Mundo 2001-2002. Hirugarren Munduko Institutua, IEPALA eta Santa María Fundazioa.

Eskolatze masiboa derrigorrezko eta legezko nahia da, talde behartsuak gizartearen egituran sartzea ahalbidetzen bait du. Hala ere, hezkuntza formalak dituen kontraesan handienetariko bat hau da: ez dago baldintza berdinek, ezta kalitate berdinek ere giza talde guztientzat. Behartsuenek haien ikasketei utzi behar-ko diete, klase aberatsek etapa guztiak gainditzen dituzte eta gizartearen ongi ikusitako lanak lortzen dituzten bitartean.

Estrukturak eta programazioak zifrak baino beldurgarriagoak dira: eskola-uztea eta alde zurretik pentsatutako bazterketa sortzen dute, gehiengoak jakintza akademikoz kanpo uzteko —emakumeak, indigenak, behartsuak eta baztertuak— haien norberestimazioa gutxitzeko, gizartearen edozein eskerrona ukatzeko, erruki eta mespretxuaz aparte. Petrellak jakinarazten duen bezala<sup>8</sup>, “...Kapital pribatuaren merkataritzako eta finantzako logika oso erraz inposatu da...hezkuntzaren helburu eta lehentasunak definitzeko garaian.”.

Ez dugu hezkuntza formalak ukatu behar, baizik eta mundu osoarentzako eskuragarria izatea eskatu eta bere edukietan lehen bakarrik heziketa ez-formalaren esparruan ziren baloreak sartzea exijitu (elkarlana, adeitasuna, elkarbizitza eta erantzukizun soziala).. Paulo Freirek bere *Itxaropenerako Pedagogia*-n berriz hausnartzen zuen bezala, “hezkuntzak behar ditu bai prestaketa teknikoa, zientifikoa eta profesionala, baita ametsak eta utopiak ere<sup>9</sup>.”

### 3.4. Zatiak elkartzen ez direnean. Bertakoa eta globalaren arteko tirabira

Heziketa formalaren sistemaren unibertsalizazioa orokorpen gehiegizkoa da, eta ez da aproposa herri zehatz baten talde-memoria zaintzeko. Egia esan, zapalkuntza eta bazterketa egiteko tresna neokolonial bihurtu daiteke, gizarteek eredia auke-ratzen badute mekanikoki eta kritikarik gabe.

<sup>8</sup> Petrella, Ricardo (2001). *La educación víctima de cinco trampas*.

<sup>9</sup> El Achkar, Soraya. (2001) *Liberación dialógica del silencio: una intervención político cultural*. Red de Apoyo por la Justicia y la Paz.

<sup>10</sup> Domingo, Daniel.(2000) *Sistema de educación maya*. PRODESSA.

<sup>11</sup> Petrella, Ricardo. *Op. Cit.*

Banku-hezkuntza eta herri-hezkuntzaren premisen eta ereduaren arteko tirabiraren argibide bat Daniel Domingok (PRODESSA) azaltzen du, Guatemalako herri mayaren eta beste kulturen egoerari buruz<sup>10</sup>: “Heziketa-prozesua eta heziketa-sistema herri baten kultura bereganatzeko eta iraunarazteko bidea da, kultura bizitza-sistema integrala (politikoa, ekonomikoa, soziala...) bezala ikusita. Kultur anitzeko nazioarentzako hezkuntza estrategikoa da. Beraz, herri desberdinen arteko berdintasuna politikoki finkatzea funtsezkoa da (...).Guatemalako Estatu nazioa osatzen duten herri guztiak kontuan hartzen ez duen erakunde juridiko eta estruktura formala izan da eta izaten dirau. Bere ezaugarriak hauexek izan dira: finantzetan gehiegikeriaz jokatzea, politikan bazterkeriaz eta kulturaren diskriminazioaz (honelako estatuaren praktikak nagusitu den eredu globalean sartuta daude). Globalizazio hori finantzazko teoria eta praktika zehatzen atzean dator: neoliberalismoa, hain zuzen. Ikus dezakegunez, bere postulatu guztiak, bere baliabide guztiak herri mayak egindako proposamenaren kontra daude. Baina, oraindik txarrago, globalizazioa eta neoliberalismoa, nahiz eta haien hitzetan kontrakoa esan, giza bizitza, natura eta unibertsoaren kontra daude. Gizarteko gatazkak, naturaren hondamenak eta giza bizitzaren iraina haien ondorioen adibideak dira”.

Aniztasunarekiko adeitasuna lantzeko behararen aurrean, arrisku bat sortzen da: “teknokratikoa den gizarte baten eredia, edukiak eta programak bateratzeko gai, eta planeta osoko txoko guztietan inposatzeko prest”. Petrellak Meryll Lynchek egindako azterketa aipatzen du, eta bertan horrela dio: “hurrengo bost urteetan, unibertsitate birtualetan mundu osoko milioika ikasle bilduko dira, ikasketak berberekin, irakasle berberekin, titulu berberekin”.

Egoera honek Hego eta Iparraldeko klase aberatsen merkantilizazioa eta uniformetasuna sortzen du, Internetarako sarbidea bait dute.



Atzerapena areagotzen da mendebaldeko herri batzuetan egiten ari diren hezkuntzaren erreformekin, baloreetan egindako hezkuntzaren erabateko bazterketa bait dakarte. Modu horretan kultura-nortasuna eta gizartearen batasuna kolokan jartzen dira, efizientiaren jainkoaren mesedetan.

POLYgone sarearen eztabaidarako dokumentu batean, Augustin Djeacoumarrek kategorikoki esaten du: “Nagusitu den teknika-rako lengoai bat egin duen aurrerapen zientifiko eta industrialak gizaki bakoitzaren orijinaltasuna, berezitasuna, aberastasuna, konplexutasuna eta sakontasuna murrizten du<sup>12</sup>”.

Baina kasu bakoitzean, gertutik ikusita, nabaritzen da bazterketa bateratzerik bihozgabeena dela. Mosaiko honen zatien egoeren ezberdintasuna partehartzaileek egindako testuinguru-fitxetan ikusten da<sup>13</sup>. Adibidez, Senegalaren egoera: “...Senegal eta beste Afrikako herri askok konpondu behar duten erronkarik handienetariko bat pobrezia da. Behartsuen kopurua populazioaren % 30 eta %60 artean dago. Pobrezia hirietan biltzen da, eta femeninoagoa da, hazkunde demografikoa handiagotzen den erritmo bera jarraituz.(...) Herri honetan biztanlegoren %55ak 20 urte baino gutxiago du, eta gizarte-zerbitzuak murriztera behartzen duen finantzazko kontrako egoera jasaten du. Beraz, eginkizuna argia da: Hezkuntza formalaren sistematik “baztertutakoak” berreskuratzea eta prestatzea<sup>14</sup>”.

Abiapuntu bezala, heziketa eraldatzailea izateko eta jakintza berdintasunez banatzeko gai izateko, alde-aurretiko baldintza batzuk exijitu beharko dira. Ambedkar, Indiako Konstituzioaren sortzaileenetariko batek horrela dio: “Berdintasuna eta gizakia-arentzako adeitasuna kontzeptu oinarrizkoak eta nagusiak dira. Anaitasuna eta askatasuna haiengandik sortutako ideiak dira. Berdintasuna ukatzen denean, beste kontzeptu guztiak (heziketaren barne) ukatzen dira ere<sup>15</sup>”.

Nazioarteko topaketa guztietan—Jomtien, Dakar, Porto Alegre—, UNESCO bezalako nazioarteko erakundeetan, eta Gobernu gehienetan, guztiontzako heziketari buruz hitz egin da, eta alfabetizazioa eta eskolaratzea, herrien eta pertsonen bizitza-kalitatea hobetzeko funtsezkoak direla esaten da. Mariano Herrera-k horrela azaltzen du Guztiontzako Heziketari buruzko Venezuelako GKE-ek egindako Azken Txostenean<sup>16</sup>. Hala ere, txosten beran, Venezuelako UNICEFeko Ana Lucía de Emiliok Jomtienen eta Dakarren adostutako lehentasunak kolokan jartzen ditu: “Nola definitzen dira oinarrizko beharrak? Oinarrizko beharren bertsio oso, oso mugatu bat hau da: bakoitzak jakin behar duen gutxiena irakurtzea, idaztea, beste arloetako pixka bat eta kito. Baina beste batzuk horrela esaten dute (dugu) “Ez, jauna, hori oinarrizko hezkuntzat hartzen badugu eztabaidaren bihotzetik erabat kanpo gaude”. Oinarrizko hezkuntza testuinguru zehatz batean dauden pertsonen beharretan funtsatuta dago, beraz, baloreak, giza-eskubideak, elkarbizitza bertan egon beharko dira, irakurtzen eta idazten jakiteaz gain (...)”.

Berdintasunaren ideia bihur daiteke bateratzearen ideia, eta berarekin batera, idazkerarik ez duten kultura, edo gutxienek kultura, edo mendebaldekoak ez diren kulturen baliomurriztapena etor daiteke.

Heziketa ez dago egoera politiko, ekonomiko edo kulturaletik aldentuta, haien barnean baizik, egoerak erreproduzitzeko, kritikatzeko edo eraldatzeko. Heziketa arautua modernitatean sartzeko eta giza-justizia lortzeko ezinbesteko tresna badirudi ere, Amin Maaloufen hausnarketa ez dugu ahaztu behar: “Sortzen den berri guztirako —nahiz eta eraikinak, erakundeak, jakintzarako tresnak edo bizimoduak izan— Mendebaldea eredutzat hartzen da. Nagusitu den zibilizazioan jaio direnek eta kanpoan jaiotakoek era desberdinean bizi dute honelako

<sup>12</sup> Djeacoumar, Augustin.(2001) *Construir la paz practicando la igualdad*. INDP.

<sup>13</sup> www.webpolygone.net –en eskuragarria

<sup>14</sup> Bougouma Diagne. ACAPES.

<sup>15</sup> Djeacoumar, A. *Op. Cit.*

<sup>16</sup> www.webpolygone.net –en eskuragarria.



errealitatea. Lehenak bihur daitezke, aurrerantz jarraitu, mol-  
datu..., nortasuna galdu gabe. Esan daiteke, mendebaldekoen  
kasuan, zenbat eta modernizatuago, hainbat eta haien kultu-  
ran sartuago, eta bazterturik geratzen direnak modernitatea  
ukatzen dutenak dira. Munduko beste guztientzat, garaitutako  
kulturen barnean jaio direnentzat, aldaketa eta modernitatea  
onartzeko ahalmena erabat desberdin planteatzen da.  
Txinatar, afrikar, japoniar, Asiako edo Amerikako indiarrentzat,  
bai greko eta errusiarrentzat, baita iraniar, arabiar, judutar edo  
turkiarrentzat, modernitateak haien nortasunaren atal bat  
utzaraztea ekarri izan ohi du. Nahiz eta batzuetan gogo biziz  
hartu izan, prozesuak beti mingostasun bat ekarri ohi du, irai-  
na eta ezetzaren sentimendua, barnerapenaren arriskuei  
buruzko galdera mingarria, nortasunaren krisi sakona<sup>17</sup>.”

### 3.5. Garapenerako hezkuntza eta herri-hezkuntza

“...Heziketa problematikazailerak, erabat gogoetatsuak, errea-  
litatea argitzeko etengabe dihardu... kontzientzien agerpena  
bilatzen du, horrela errealitatean kritikoki sartzeko”.

Paulo Freire. 1970.

Topaketa egin baino lehen eta egitean jakin nahi genuen erakun-  
de partehartzailerak bakoitzaren lana ze nolako heziketa-higikun-  
dean oinarrituta zegoen. Erantzunak denetariakoak izan ziren.  
Askotan herri-hezkuntzaz hitz egiten da, bestetan partaidetzako  
jarduneko saiakuntzaz, batzuek *Reflect Action* delako metodoa  
erabiltzen dute, eta beste testuinguruetan, heziketa globala edo  
garapenerako hezkuntza erabiltzen da.

Erakunde guztiek zera esaten dute: partaidetzako metodologiak  
dira, kontzientziatze, jendearen jabekuntza eta egite eraldatzai-  
lea lortzeko. Lan esparruak mugatzen dituzte: genero-berdinta-

sun, ingurunearen zaintza eta adeitasuna, giza-eskubideen  
defentsa, kulturartekoa, gatazken ebazpena, bakea, elkarbizitza,  
garapena eta hiritargoa.

Egia esan, higikunde guzti horiek gaur egungo gai sakonak lan-  
tzen dituzte, bata bestearekin lotuta, saski baten zumeak beza-  
la. Eta guztiek oso antzekoak diren metodologiak erabiltzen  
dituzte, ia helburu berdinekin.

Hezkuntza-higikunderik indartsuena —eragin handikoa bai Ipar,  
bai Hegoaldean— herri-hezkuntza delakoa da, Paulo Freire, bra-  
sildar filosofo eta hezitzaileak sortua. Horregatik sarearen par-  
taide guztientzako elkarbide bezala hartu dugu. Gero, garapene-  
rako hezkuntzaz hitz egin dugu, nazioarteko elkarlana eta elkar-  
tasunetik hezkuntza-higikunderik hurbilena.

Higikunde horiek bateragarriak eta osagarriak dira, nahiz eta  
ezberdintasuna batzuk izan, batez ere helburu duten xede-talde-  
ak. INDP-k garapenerako hezkuntzari buruzko dokumentu bat  
egin zuen, eta gero topaketaren pedagogia mintegirako oinarri-  
tza hartu zen. Bertan garapenerako hezkuntzari buruz zera esa-  
ten da: “...Aberastasun eta botere-banaketaren planetako ezber-  
dintasunez kontzientzia-hartzea bideratu behar du. Indibiduo  
bakoitzak bere garapenaren gakoak izateko aukera ahalbidetu  
behar du. Eduki akademikoak eta prestaketa pertsonala elkar-  
tzea bideratu dezake, indibiduo bakoitzak bere ingurunearen  
garapenean parte hartzeko eta errealitate globala eta garapen  
lokalaren arteko lotura ulertzeko aukera izan dezan<sup>18</sup>.”.

José Bengoak, soziologoa eta hezitzaile txiletarra, horrela defi-  
nitzen du herri-hezkuntza: “Heziketa honek gizartearen anizta-  
suna bultzatzea ahalbidetzen du, hau da, kulturako, iritziko,  
gizarteko mugimenduak sortzeko eta indartzeko, eta mugimen-  
du horiek gizartea bera indartzen dute, adostasunak lortzeko  
gaitasuna handiagotzen bait dute, eta, horregatik, giza sormena-  
ren adierazpena eta garapena bideratzen dute. (...) Giza mugi-

<sup>17</sup> Maalouf, Amin. (1999) *Identidades asesinas*. Madrid: Alianza Editorial.

<sup>18</sup> INDP. (2001) *Educación para el desarrollo*.

menduaren kontzeptuak gure hezkuntzaren jarduera positiboki pentsatzea ahalbideratzen gaitu, gure gizartearen demokratizazio-prozesuarekin lotuz. (...) Ikuspuntu honetatik, herri-hezkuntza herriaren heziketarako tresna nagusienetariko bat da, heziketa formala eta komunikabideak bezain garrantzitsua<sup>19</sup>.”.

Bi testu hauetan orientabideko ezberdintasunak hautematen dira: herri-hezkuntzak heziketa ez-formala bultzatzen du batez ere, eta garapenerako hezkuntza, Iparraldeko herrietan behintzat, Ipar-Hego elkartasunean sentsibilizatu eta kontzientziatu nahi du batez ere, baina ez bakarrik, sistema formalean, lehenengo hezkuntzatik unibertsitateraino.

Hala ere, berriro esan behar dugu nahiz eta bi higikundeen arteko ezberdintasunak izan, adierazgarriena haien osagarritasuna dela: bakoitza besteak baztertutako eta txikiagotutako eduki, prozedimentu eta sektoreaz arduratzen da. Beste era batez esanda, ezinbestekoa da gizartea elkarlotzea giza-mugimendu eta historiaren berreskuratzearen bitartez, baztertutako edo kalte egindako populazioaren jabekuntzarako, baina baita heziketa formalean lan egitea haientzako oso garrantzitsua izango da ere.

Heziketarako sarbide eza, giza-eskubideen urraketa eta gizartearen haustura da. Horregatik, Ipar eta Hegoaldeko hezitzaileek garapenerako heziketak egindako bidean jarraitu beharko dugu. Honek elkartasuneko eta demokraziako kontzientzia sortzen saiatzen da, erdi mailako klaseak askatzeko prozesuan sartuz, interpretazio esparru globala eskainiz eta beste gizarteko klase, beste herri eta beste kulturei buruzko aurreiritziak deseraikiz.

Hegoaldeko herrietan honelako oinarriak praktikan jartzen badira, mendebaldeko kulturaren sailkatuta dauden herriei buruzko estereotipoak eta orokortzeak saihestuko lirateke. Hegoaldeko klase menperatzaileen duineztasuna eta pasibotasuna salatu zitezkeen. Eta kooperazioaren munduan lan egin zitezkeen, herri behartsuek pasibotasun handiz hartzailearen rola onartzen bait dute, haien garapenean izan behar duten protagonismoa eskatu gabe. Sarearen partaideen emankizunekin, bi higikundeak alde-ratzeko koadroa egin da:

Berdintasunak begibistan daude. Biak heziketa prozesu elkarre-ragileak eta elkarrizketatzaileak dira eta landu behar duten tes-tuinguruaren eraldaketarako tresna bezala hartzen dute.

Horrela, “Labirintotik ateratzeko hezkuntza-mosaikoa” sarearen topaketara hurbildu ginen, premisa eta diagnostiko berdintsuak genituela, elkartrukeak baliagarriak zirela eta Ipar eta He-goaldeko esperientziak biltzea aberatsa zela ziur geunden, az-ken finean, elkarren ideia geneukan: hezkuntzan lan egiten dugu aldaketa soziala lortzeko itxaropenarekin, mundu desberdin bat sortzeko, zuzenagoa, berdinagoa, adeitsuagoa.

Zalantza asko genituen ere bai. Heziketa egiteko bakoitzak bere burua hezitzailea izateko prestatu egin behar duela, baliabide materialak eta pedagogikoak behar direla, partaidetza bultzatzea, kontzientzia kritikoa edo jabekuntza sustatzea ez dela erra-za izango. Zalantza pilo bat eta asko ikasteke dago.

---

<sup>19</sup> Bengoa, José. (1988) *La educación para los movimientos sociales*.

GARAPENERAKO HEZKUNTZA	HERRI-HEZKUNTZA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Iparraldean jaio da, garapenerako kooperazioari eta UNESCOren bakerako eta nazioarteko ulertzerako gomendioei lotuta.</li> <li>• Bere helburua “herri globalean” dauden zuzengabekeri, ezberdintasun eta aurreiritzien aurka kontzientziatzea da, elkartasuna bultzatzeko. Prestakuntza zuzengabekeriak salatzen konpromisoa eta elkarbizitzarako alternatiba lortzen saiatzen da.</li> <li>• Bere ikuspuntua globala da. Kontzeptuak elkartzen etengabe saiatzen da: garapena eta azpigarapena, bakea eta gatazka, giza-eskubideak eta demokrazia, generoa, ingurunea, kulturartekoa eta garapena. Lokal eta globalaren arteko loturak eraikitzen ditu.</li> <li>• Lan-metodoak herri-hezkuntzan eta jarduneko saiakuntzan oinarrituta daude. Partaidetza motibatzen saiatzen da, baina askotan esparru akademikoak eta giza-sektoreek mugatuta dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hegoaldean jaio da, gizarteko talde behartsuak jabetasun izateko menpekotasun-teoriei eta giza-mugimenduak bermatzeko beharri lotuta.</li> <li>• Bere helburua zuzengabekeri, ezberdintasun eta zapalkuntzaren aurka kontzientziatzea da. Baztertutako giza-taldeekin lan egiten du, jabetasun eta oinarrizko demokrazia bultzatzeko</li> <li>• Ikuspuntu politiko eta ekonomiko globala du. Arlo lokalean oinarritzen da, xedea den taldearen arazo zehatzetan. Garapena eta azpigarapena arlo politikoan erlazionatzen saiatzen da. Biziki lantzen ditu partaidetza, hiritasuna eta oinarrizko demokrazia.</li> <li>• Lan-metodoak partaidetzan eta jarduneko saiakuntzan oinarritzen dira. Elkarrizketa eta partaidetza komunitarioa ahal adina erabiltzen dira. Ahula da jakintza akademikoa (zientifikoa eta teknikoa) zabaltzerakoan.</li> </ul>

### 3.6. Hezkuntzaren lau dimentsioak

“...Ez dakigu zehatz-mehatz zer egin eta nola egin. Eta estrategi hori, irtenbide hori aurkitzeko..., ezaugarri batzuetan sakondu behar ditugu ikuspegi epistemologikoan, ikuspegi filosofikoan eta ikuspegi pedagogikoan.”

Frei Betto. 1999.

Sarearen proiektua egitean, POLYGONeren lau erakunde sortzaileek lau mintegietan banatu zuten, prozesu pedagogiko baten lau dimentsioak edo kontutan izateko elementuak azaltzeko: dimentsio politikoa, dimentsio kulturala, dimentsio pedagogikoa eta dimentsio metodologikoa (gero sistematizazioa deiturikoa)

Lau lerro hauetan lan egiteko argudiorik garrantzitsuenaren heziketaren aspektu zehatzei buruzko hausnarketa egiteko eta sakontzeko beharra zen, aspektu horiek, beti heziketan agertzen bait dira, batzuetan egiteagatik, beste batzuetan ez egiteagatik.

Heziketak, bere osotasunean, lau dimentsioak biltzen ditu, egite batez ere soziala izateagatik. Pertsona bakoitza, jaiotzatik, talde

familiar, sozial edo kultural batean dago. Edoskitzen, negar egiten, irria egiten, begiratzen, entzuten eta soinuak ezberdintzen, hitz egiten, ibiltzen, mugimenduak koordinatzen... ikasi behar du. Zentzumen guztiek, mintzamina bereziki, komunikatzen laguntzen diote, mehatxatuta edo babestuta, alai edo triste sentitzen. Jaiotzatik heriotzaraino egin behar diren ikaste horiek eta beste askok hizkuntzak ikastea, jarrerak, gogoak, usteak, aurreiritziak ikastea laguntzen dute. Gizakiaren bizitzak bakarrik zentzua du jakinduria elkartrukatzeko ahalegintzen duen testuinguru batean.

Ezin da bakartasunean ikasi, besteekin harremanetan baizik. Denbora luzez isolaturiko haurtxo batek mintzamina gal dezake. Hitzak, berarengana zuzenean jotzen duten ahotsak entzun behar ditu, doinua edo intonazioa interpretatu behar du goxotasuna, ziurtasuna, arriskua edo larritasuna antzemateko. Adin ezberdineko taldeak eskolan edo herriaren bizitzan sozializatzen dira, larredian, sabanan, basoan, mendian nahiz itsasoan izan. Horrela gizaseme guztiek gure nortasunaren zati bat hartzen dugu, jaio garen lekuko gizarteak markaturik (kultura, hizkuntza, erlijioa eta jakintza teoriko eta praktikoak).

Nortasun honen eraikuntzak inguruaren ezagutzaren eta bizirau-penaren baldintzak behar ditu. Heziketak familiek haien semeei, eta gero semeen semei zabaltzen dieten jakintzak, hain desberdinak kultura bakoitzean, biltzeko balio du. Ia kasu guztietan, ikaste-prozesu hau ez da bakarrik familian egiten, prozesu soziala bait da.

Edozein lekuan, hiri handietan nahiz basamortuan isolatutako talde txikietan, oihana tropikaletan nahiz itsas mailatik lau mila metro baino gehiagoko mendietan, gizakiek aukera pertsonalak eta taldeko aukerak dituzte. Zer eta nola erein, jakiak eta beste onurak nola gorde, ugaritasun edo gabeziaren uneetan nola banatu, elkarbizitzeko arauak eta betetzeko mekanismoak aukeraketak dira, eta aukeratzea gizarte guztien partaide guztien lana da. Galdera multzo hori kulturala da, eta baita politikoa ere, eta nahitaez, zabaltzeko metodo eta praktika bitxiak behar dira, pedagogia sortuz.

Lau dimentsioek heziketa osatzen dute, horregatik hain gertu daude bata bestearengandik, eta hain zaila da haien arteko mugak ezartzea. Ze nolako gauzak diren garrantzitsuak eta zeintzuk ez, ez da ikasten eta irakasten den gauza bakarra, besteak beste erkidezko ondasunari laguntza eman edo ez ikasten da ere. Adeitsua izaten edo ez ikasten da. Ezberdintasunean oinarritutako harremanak, botere-abusuak onartzen, uzten eta preziatzen ikasten da, edo berdintasuna konpartitzen eta preziatzen ikasten da. Gogortzale edo bakezale izaten ikasten da (indibiduoaren izaera eta jarrerak bideratuko dituzten arloak, baina baita taldeko nortasunaren idearioa finkatzeko arloak ere)

Labur esanda, taldeko bizitzak ikaste, elkartruke, partaidetza, kritika, desadostasunak irakasten ditu eta eskatzen ditu. Ideia berriak eta emankizunak behar ditu misterio dinamiko hori gertatzeko: bizi izatea eta elkarbizitzea, pertsonen artean, testuinguru berdineko edo nazioarteko mailako kulturen artean.



#### 4. Labirintotik ateratzeko. Ze nolako gizarte-aldaketarako ze nolako hezkuntza?

“Mintzamina eta entzumenaren bidez, nor garen, nondik gatozen, nora goazen eta gure bidea norantz doan badakigu. Horrela ere, besteari buruz, bere bideaz eta bere munduaz ezagutzen dugu. Mintzamina eta entzumenaren bidez bititza bera entzuten dugu.”

*Marcos Subkomandantea. Chiapas. Mexiko.*



#### 4.1. Ariadnaren matazak<sup>20</sup>. Hezkuntzaren lau dimentsioak

Labirintoaren irtenbidea gizarteko, politiko, kulturako eta finantzazko testuinguru desberdinetan egiten diren esperientziez ehundutako eta eraikitako Ariadnaren mataza anitzetan datza. Mataza batzuk askatu behar ditugu gure esperientzien zentzua bilatzeko, gizarte aldaketarako heziketa-praktika berriak bideratzeko proposamenak eta ikasteak lortzeko.

Hausnarketarako lau mintegiek irudikatzen dituzte erkidezko irtenbide baten biltzen diren mataza desberdinak askatzeko lanak. Guztiek galdera beraren erantzuna bilatzen zuten: Ze heziketa jarri behar dugun martxan ze motatako gizarte aldaketak lortzeko? Azken finean, heziketa eta hezitzaileen eginkizuna bilatzean datza.

Askatu nahi genuen matazak edo heziketaren dimentsioak haien artean elkarreragiten dira. Horregatik ezin da bat ulertu bestea kontutan izan gabe, baina bakoitzetik bereiz tiro egin behar dugu beste irtenbideko eremua identifikatzeko.

#### 4.2. Kulturaren mataza. Dimentsio kulturala

Topaketan dimentsio kulturala gizarte aldaketarako lan egiten dutenentzako erronkarik nagusienetarikotzat hartzen zen. Heziketaren uniformizaziorako gaur egungo joerak kultur aniztasuna kolokan jartzen du, berezitasunak ebazten eta kultur batzuen sustraiak eta nortasuna galarazten, desagertzeko arriskuan jartzen. Mendebaldeko kolonialismo kulturala hain zakarra

---

<sup>20</sup> Ariadna: Greziako mitologiaren pertsonaia, Minosen alaba. Teseori mataza bat eman zion, Minotaurora mendean hartu eta gero labirintotik ateratzen laguntzeko.





denez, beste kulturek norberestimazioa galtzea edo iragan dogmatiko batean geratzea lortu du.

Paulin J. Hountondjiren<sup>21</sup> hitzetan “Ekonomia global batean kultura zer izango ote? Nortasun kulturala, taldeko autoafirmazioa, historia bakar eta berdin baten partaidea izateko sentimendua, eta berarekin batera moldatzeko joera zertan geratuko ote dira? Autodeterminazioaren eskakizunarekin ze gertatuko da? Afrikan finkatutako ideia batzuk indarra galtzen ari dira (...) Tradizioak eta guztion baloreek egindako gizarte bat gero eta gehiago galtzen ari gara. (...) Gu geu izateko nahiak lekua utzi dio efikazia eta arrakastari buruzko kezka inpersonalari”.

Era horretan, herri globalean sartzek alde aurretiko uko egite bat eskatzen du: gure nortasuna, gure arbasoek utzitakoa, komunikatzeko eta mundua interpretatzeko erak, kontatzeko, jateko, janzteko, jolasteko, ondarea gordetzeko eta erkidezko onura kudeatzeko erak baztertu behar ditugu.

Raymundo D. Rovillosen esanetan<sup>22</sup>, “Egoera hau dela eta, bertako populazioek Mendebaldeak inposatutako hezkuntza-sistemek porrot egin dutela uste dute. Gaur egun eskatzen ari dira bertakoak ez direnak bezala tratatzen dituen hezkuntza bat. Eskolan kontrakoa irakatsi diete. Ahazten eta haien iragana paganoa eta basatia gaitzesten ikasi dute. Haien erresistentziazko historia bazter batean uzten da eta haien hezkuntza-sistema ez da kontutan hartzen. Baita hezkuntzako programa alternatiboek porrot egin dute ere, herri indigenen behar zehatzetan oinarrituta ez zeudelako”.

Zorionez, bertako kulturaren beharretan moldatutako erantzun hezitzaileak planteatzen hasi da, Guatemalako kasuan hain zuzen ere: “Heziketa Mayarako Unitate Lokalak” diren ULEM-ak (Unidades Locales de Educación Maya), heziketa-komunitateak dira, eta bertan programa, proiektu eta jarduera eskolarrak eta eskolaz kanpokoak garatzen dira, beti testuinguru mayan (giza-

ekonomian, hizkuntzan eta kulturen). Haien filosofia pentsamolde mayaren printzipio eta baloreetan oinarrituta dago eta kultur eta hizkuntz anitzekoa den nazio guatemaldarra osatzen duten herri eta komunitateen kultur anitzeko elkarbizitza abiapuntutzat hartzen du.(...) Amonek eta amek seme-alabeei zera esaten diete: ‘Jakintza bat komunitateari emanez, emankizuna egiten ari zara, eta gainera, zure buruan leku bat uzten duzu beste jakintza bat lortzeko<sup>23</sup>”.

Beraz, ezinbestekoa da, alde batetik, bertako kulturak hezkuntza-programetan sartzea, eta bestaldekik, kultura bakoitzaren beharretara moldatutako hezkuntza-programak prestatzea. Azken hori, kulturaren nortasuna birbaloratzean datza, bere historia berreskuratuz eta bertako hizkuntzak sustatuz. Horrela irakasteko eta ikasteko prozesu batean parte hartzen dutenek haien garapenaren subjektu aktiboak izateko aukera izango dute.

Askotan, ia erabatekoa den dimentsio kultural ezak elkartasuna bihurtu du neokolonialismoa egiteko era, nahiz eta borondate onez edo sinpletasunez egin, bertako kulturak baztertu edo gutxietsi bait ditu.

Europako heziketa eraldatzaileak ez du dimentsio kulturala kontuan hartu ere, nahiz eta hizkuntz, erlijio eta kultura aniztasuna nabaria izan. Gainera, etorkinen agerpenak kultur aniztasuna areagotu egin du. Baina etorkin horiei “laguntzen” zaie soilik, haien kulturak folklore bakarrik bezala hartuta bait daude abegi-gizarteetan. Gure praktikek ezin dute gure elkartasun edo laguntzaren hartzzaileei irain egin.

Zorionez, oso esperientzi onak izan dira arlo honetan. Adibidez, Irlandako KADE-k “Awareness Outreach Project” heziketa-proiektua martxan jarri du. Bere helburua Irlandan asilo eskatu duen populazioaren egoerari buruzko sentsibilizazioa da. Haien herrian aterpetutako jendeari protagonismoa emanez aurreiri-

<sup>21</sup> Hountondji, Paulin J. (1997) *Culturas africanas y mundialización: una llamada a la resistencia*. Africans on Africa series, Idoc. Intern. Vol. 28, 4.

<sup>22</sup> Rovillos, Raymundo D.(1999) *La educación y el Decenio Internacional de los Pueblos Indígenas*. Echoes 16.

<sup>23</sup> Domingo, D.(2000) *Sistema de educación maya*. PRODESSA.

tziak desmuntatu nahi ditu<sup>24</sup>. “Annoncer la Couleur”, Belgikako atzerri-arazoetako ministerioaren kanpainak (ITECO kolaboratzailea da), kultur aniztasunaren oniritziari buruzko lan garrantzitsu bat egiten du, etorkinen integrazioa errazteko, haien nortasuna galdu gabe. Espainian, ACSUR – Las Segovias, Alboan edo Mugarik Gabek kulturartekotasun eta partaidetzari buruzko ikasmaterialak eta kanpainak sortzen dituzte. Badira Europako erakunde asko beste kulturako pertsonak jasandako bidegaberak salatzeko eta kulturarteko elkarbizitzan heziketa egiteko prest daudenak.

Heziketa-teorian eta praktiketan dimentsio kulturala sartzea beharrezkoa da. Horrek hezitzaileen eta irakasleen prestaketan esfortzu egitea dakar, errealitate pluralaren beharretara erantzuteko eta partaidetzazko demokrazia kulturalan eta giza-eskubideen demokrazian sakonki integratuta dagoela onartzeko.

Herrien erlijioak eta fedea dimentsio kulturalaren barruan daude. Ulertzeko eta aldaketa positiboak proposatzeko oso beharrezkoa da hori. Arlo honetan esperientzi desberdinak daude, eta haien artean, Nepaleko isolatuenetarikoa nekazariekin egindako lana dago. “School for Learning and Society” (SLS)<sup>25</sup> erakundeak erabiltzen ditu jainkoen arteko elkarriketak nekazariak haien emazteak, hilekoa dutenean, isolamenduarekin ez zigortzeko. SLS-ak, besteen artean, “Centre for Agroecology and Development” osatzen du. Erakunde honek kontzientziatze eta ekoizte prozesuetan lan egiten du. Bere programen artean, basoan fruta-arbolen landaketa sustatu, gehiegizko mozketak gutxitu eta baliabideen suntsiketa prebenitu, komunitatearen biziraupenerako.

Erne egon behar gara kultura eta praktika kulturalak ez nahasteko. Nahaste honek gutxiengo batzuek komunitatearengan egindako botere-abusua eta zapalkuntza dakartza. Adibide bat Kongon daukagu. Bertan “ablazioa derrigorrezkoa da, eta amek alabak egitera behartzen dituzte, bestela ez dira gizonek

onartutakoak. Gizonei zuzendutako kanpaina bat egiten da emakumeak ez aldaratzeko eta emakumei zuzendutako beste bat, alabei ablazioa ez egiteko” Kongoko Errepublika Demokratikoko AWATU erakundeko Remy Mutungwa Bin Ngabok azaltzen zuen bezala. Antzeko estrategia erabiltzen du, Senegaleko CAEDHU-k. Bertan ablazioa oso praktika arrunta da, eta erakunde honek emakumeen eta familiaren norberestimazioa potentziatzea bilatzen da, horrelako praktikak kaltegarriak direla azalduz.

Kultura eta nortasunak estatikoak ez direla ulertzea beharrezkoa da. Bizirik daude eta etengabe harremanetan daude beste kultura eta herriekin. CAEDHU-ko ordezkariak, Fatoumata Diadiou, zera dio: norbere kulturaz, Wolof izateaz, harro egotea ondo dago, baina nortasun kulturala defendatzea garrantzitsua bada, gure kultura kritikatzeko eta gizartea hezteko gai izatea askoz garrantzitsuagoa da ohitura eta praktika galgarriak akabatzeke.

Hezitzaileek ikerketa behar dute, dauden errealitatearengandik ateratako bertako jakintza sortzeko. Esaterako, Filipinaseko “Asian Council for People’s Culture” erakundeko Alfredo R. Santosek esaten du: “banbua oso zuhaitz garrantzitsua da Indian, pobreen arbola da. Etxeen %90a banbuz egindakoa da. Banbuak irudi ona du. Haizea dagoenean malgua da, okertzen da, baina gero zutik dago. Beti zutik dago. Asiako testuinguru korapilatsuan heziketa egiteko estrategi berriak nahi ditugu. Banbuaren estrategiak informazioa elkartrukatzea, lan-sareak eraikitzea, taldean eta erakundeetan lan egitea dakartza. Banbuak adierazten du komunitateentzako ze heziketa mota behar den inposatzen duen curriculum bateratu bat saihesteko. Banbua irakasleriaren prestaketan datza, haiek izan behar bait dira aldaketaren aktoreak.”.

Praktika batzuetan, bai Ipar, bai Hegoaldean, harreman asimetrikoak eta hierarkikoak daude, berdintasun eta askatasun baloreak baztertuz. Hezitzaileak garenez, haien aurka jarri beharko

<sup>24</sup> KADEren ordezkaria den Mary McGillicuddik emandako informazioa.

<sup>25</sup> Nepaleko erakundeak POLYGONen duen ordezkaria den Devendra Adhikariren testigantzak

ginateke. Gure eginkizuna ez da bakarrik erreproduzitzea, baizik eta, bereziki, kultura sortzea eta kultur eta gizarte-jakintza berriak asmatzea.

### 4.3. Politikaren mataza. Dimentsio politikoa

Politikaren arloa heziketak gizarte aldaketarako dimentsiorik landutakoena da, baina oraindik erronka handiak ditu. Hezkuntzak eduki politikoa du, eraldatzeko jarduerak egin behar dituelako. Kolonbiako Komunikazio-Zerbitzuko Jairo Muñozek dio: “Herri-hezkuntzako jardueren helburua pertsona sozialak eta politikoak eratzea da”.

Hezkuntza politikoa da: erabiltzen dituen eduki eta metodoen arabera, jendeak daukan edo nahi duen gizartera ailegatzeko bizimodua moldatuko duelako: hierarkikoa edo berdintasunezkoa, adeitsua edo zapaltzailea, ustela edo zuzena. Aukera pertsonal eta sozialak heziketaren kausa eta ondorioak dira.

Hezkuntza politikoa da Yanomami Komunitate txiki batean Amazonaseko oihaneko erkidezko etxeak (edo haien hondarrak) nola eraiki eta orientatu irakasten eta eztabaidatzen denean, itsasoa dirudien ibai baten eta eguzkia estaltzen duten zuhaitzen ondoan. Politikoa da telebista pertsonak baino gehiago baloratzen irakasten denean. Heziketa politikoa da gizartearen aurrerapen eta kohesio-elementu bezala bere garrantzian irakasten denean. Politikoa da bere bazterketa salatzen denean, Gobernuak osasunean, artean edo hezkuntzan inbertitu baino, armamenduan dirua sartzan dutelako. Politikoa da jendeari erabaki batzuei aurre egiten irakasten denean: sufrimenduaz, indarkeriaz edo ustelkeriaz garapen ezgizatiarra dakarten erabakiak.

Horregatik heziketaren lana hain zaila da, eta hainbat kontraesan sortzen du. Gaur egun zabaldutako joerak hezkuntza prozesuak

eduki politiko eta etikoz husten ari da, bai arlo formalean, baita ez-formalean ere, kontzeptu zientifikoak eta teknologiak zabalteko teknika bakarrik izateko.

Herri-hezkuntzan dimentsio politikarik gabe lan egitea alfabetatzean eta talde behartsuak gizartean sartzeko laguntzan gertatzea da. Garapenerako heziketan gertatzen bada, “Hego-lpar” desberdintasunak determinismo katastrofikoaz onartzen dela, nagusitu den eredia ez dela kuestionatzen, pobrezia izanaren errudunak pobreak direla eta laguntza ekonomikoa edo teknikoa lasaigarri eskuzabala proposatzen dela esan nahiko du. Baina jendea ez da pasiboa eta ez da etsitzen, nahiz eta batzutan horrela adierazi nahi. Bougouma Diagnek Senegalen zera gertatzen dela azaltzen du<sup>26</sup>, “gizartearen partaideek haien bazterketa eta pobretasunari aurre egiten die gizartearen egile dinamikoak izanez. Komunitateko elkartasunezko tradizioan oinarritzko elkarreetan antolatzen dira. (...) Hala ere, irtenbide alternatiboak bilatzen biziki jarraitzen dute biziraupenezko egoera larri batean. (...) Ikuspuntu horretatik diseinatzen dira ACAPES-ek martxan jarritako programak, oinarritzko mugimenduen onerako, sektore horien erantzukizuna, konpromisoa eta autonomia lortzeko partaidetzaren bidea jarraituz”.

Ezinbestekoa da hezkuntzaren praktika berriro neurtzea eta eduki politikoaz hornitzea. Hitz gutxitan, honek bizi garen mundua eta zuzengabekeriaren zergati anitzak ezagutaraztea dakar. Informazio hori testuinguruan kokatu behar da ulergarri eta interpretagarria izateko, bakoitzak bere eginkizuna bilatzeko testuinguru horretan.

Paulin J. Hountondjik dioenez<sup>27</sup>, proposamen horiek aldaketa sakonak eskatzen dituzte estatuen sistema politikoan. Estatuek ziurtatu behar dute edozein kulturako pertsona guztiek eskubide berdinak izatea eta erabakietan parte hartzeko aukera izatea. Pertsona eta herrien autodeterminazio hori kosmopolita (arlo

<sup>26</sup> Bougouma Diagne ACAPES-aren ordezkaria da POLYGONEn.

<sup>27</sup> Hountondji, P. J. *Op. Cit.*



intelektualean, ekonomikoan, kulturakoan...) eta globala izan behar da benetan eraldatzailea izateko.

Hori posiblea egiteko, ikastetxeak eta prestatzeko zentroak ez dira bakarrik hiri handietan izan behar, herrialdeetan eta herri txikietan sortu behar dira. Horretarako, Estatuaren konpromisoa beharrezkoa da, irakasleriaren prestaketa egokia eta ministerio eta saila desberdinen arteko behar den koordinaketa bermatuz. Oso garrantzitsua da “topaketan prestatetan erakunde publikoko ordezkariak inplikatzeko, eta horretarako partehartzea sustatu behar dugu topaketan, baliabide metodologiko gehiagorekin erakunde publikoek parte har dezaten”, Italiako CISP-eko Marinella Fasanellak zioen bezala..

Hiritarren Estatuarekiko eta bere kargu tekniko edo politikoez harremanek erronka handi bat suposatzen dute. Giza-aldaketarako lan egiten duten erakundeak saiatu behar dira tokian tokikoak nahiz globalak diren politika publikoetan eragina izaten, eta herritarren eta erakundeen elkarrizketa sustatu behar dute.

Administrazio publikoarekin lan egitea beharrezkoa da. Erakunde publiko batzuetan, nahiz eta erabatekoak ez izan, aldaketak izaten ari dira, eta eragina izateko aukerak izaten ari dira, herri bakoitzeko testuinguruaren arabera.

#### 4.4. Pedagogiaren mataza. Dimentsio pedagogikoa

Laugarren mataza ezinbestekoa da gure labirintotik ateratzeko proposamenen. Lehen elementua heziketa epe luze eta ertainerako emaitzak dituen prozesu bezala ulertzea da. Dimentsio pedagogiko, kultural eta politikoarekin gertatzen den bezala, sormena erabiliz alternatiba berriak imajinatzean datza. Aniztasuna ez dela negatiboa eta gatazkak sor ditzakeela onartzea suposatzen du, eta aniztasun kulturala zerbait berria eta ezberdina eratzeko aukeratzat hartzen duen “sartzearen pedagogiaren” esparruan lan egin beharko dugula.

Pedagogiak eta heziketaren jarduerak esentzia bera dutela esatea ia tautologiakoa da. Begi-bistakoa da pedagogia metodo eta baliabide multzo baten emaitza dela, gizarteko jakintza afektiboa, gno-seologiakoa, teknikoa edo simboliko-espirituala zabaltzeko. Girouxek dion bezala, “...(pedagogiak) baliabideak eskaintzen ditu, eta haien bidez, pertsonak haien buruari buruz pentsatzen eta besteekin eta munduarekin erlazionatzen ikasten dute”.

Erabilitako metodo eta baliabideen arabera, boterearen pedagogia edo pedagogia askatzaile eta alternatiboa izan ditzakegu. Freirek “zapaltzailearen pedagogiari” aurre eginez “zapalduaren pedagogia” sortu zuen, eta apalkuntzaren pedagogiari alternatiba emateko pedagogia askatasunaren praktika bezala diseinatu zuen. Pedagogi askatzailea diseinatzeak eta praktikan jartzeak “desikasteko” lana dakarte: baztertutako taldeak eta talde nagusiak alienatu dituzten emandako urratsak “desikasi”.

Freireren laguna zen, Carlos Rodrigues Brandao, brasildar antropologoa eta hezitzailea, zera esaten zuen: “Kontrako klaseen bizimodu eta bizi-baldintzei buruz hausnarketa gaur egun egiten badugu, biak balore alienatzaile, sinbolo eta esangurek egindako egituran daude, biak zatitutako mundu berea irudikatzen duten kultura-adierazpen desberdinak dira. (...) ...haien bizitza soziala globalki eta egoki ulertzeko zapaltzaile eta apalduakoen ezina garbi asko azaltzen du<sup>28</sup>”.

Pedagogia moldatu behar da kultura-ardatzetara eta testuinguru komunitario eta politikora, hau da, taldearen baldintza eta ezauzarrietara. Adibide bat Danimarkako “The National Innovative Centre for General Education” da. Erakunde honen “The Youth Town” (gazteen hiria) programa, berrikuntza pedagogikoan aritzen da, eta Hegoaldearen errealitatea, giza-eskubideak eta gatazka-ebazpena bezalako gaiak lantzen ditu pedagogi-metodo berrien bidez (antzerkia, kazetaritza edo musika) Torben Ulrik Nissen, POLYGONE sarerako erakundearen ordezkariaren esanetan, programa hori herriaren udal batzuetan lantzen ari da, 100.000 lagun bilduz.

<sup>28</sup> Rodrigues Brandao, Carlos. (1985) *A educação como cultura*. Editora Brasiliense.

Pedagogiaren teoria eta metodoaz, orokorrean didaktikari buruz edo ikaste-eduki bakoitzarako didaktika zehatzaz eta zer edo ikasteaz XX. mendeko hezkuntza-teoriarik garrantzitsuenak garatu dira. Guztiek jakintza bereganatzeko eta zabaltzeko bideetan arakatu dute. Jakintzari buruzko kanpoko eta barneko oztopoak adierazi dituzte, pertsonarentzako eta gizartearentzako esanguratsuak izateko.

Hala ere, dinamizatzaileek edo irakasleek —bai herri-hezkuntzan, baita garapenerako hezkuntzan ere— normalean ez dituzte emankizun horiek ezagutzen. Nahiz eta hezitzaileak izan, pedagogiaz, didaktikaz, psikopedagogiaz eta beste kulturetako metodoaz eta tresnaz gutxi dakite edo ez dakite. Hori da gaingiditu beharko genukeen akats larri bat.

Komunitate indigenen hezitzailea den Alfredo Santos, zera esaten zuen POLYGONeren topaketan: “umeek komunitatean eskolan baino gehiago ikasten dute. Askotan basoa liburuak baino irakasle hobea da. Komunitatean adeitsua izaten, zatibanatzen, natura zaintzen eta beste taldeekiko elkartasuna lantzen ikasten da, eta hori oso gutxitan lortzen da Mendebaldearen antzera egindako eskolatzean<sup>29</sup>”.

Dimentsio pedagogikoa kontuan izateak esan nahi du hezitzailea izateko prestakuntza eta gaitasuna izatea. Garapenerako hezkuntzan, unibertsitarioak nahiz teknikariak diren kooperatzaileek hezitzailearen lana egiten dute, oinarriko kontzeptu argirik gabe. Nahiz eta salbuespenak izan, erakunde askok informatzen dute, “kontrainformatzen” dute eta salatzen dute, bakarrik elkartasunezko mezua kontutan hartuz, baina zabaltzeko bideetan profesionaltasuna alde batean utziz.

Solaskideen gogoak, perspektibak edo gaitasunak oso gutxitan hartzen dira kontuan. Badirudi berdin dela sei, hamazortzi edo hogeita hamar urtekoak izatea. Aurreko jakintzak edo kooperazioari buruz edo nazioarteko ekonomiaz badakiten ez da normalean pentsatzen. Mezulari txarrak bere hitzaldia botatzen du,

dinamika edo rol-jokuaren bat tartean, eta automatikoki, elkartasun zaleitsuak izango ditu.

Pedagogia hitza erabili gabe, Frei Bettok egindako kritika da. Oso akats larria da, ondorio latzak izan ditu, eta ez errepikatzen saiatu beharko da. Herri-hezkuntzan, irakurketa-idazketari buruz piperrik ez zekiten zenbat alfabetatzaile izan diren, zenbat izan diren haien buruei gaingiroki alfabetatzearen funtzioaz galdetu ez dieten, gero ahozko tradizio handiko eta baliabide ekonomiko gutxiko herriak behin alfabetatu eta gero, ez zieten ezer eman irakurtzeko, ezta idazteko ere

Zenbat izan diren hezkuntza-programa elebakardunak proposatzerakoan zorrotzak izatearen beharraz haien buruari galdetu zioten, programa elebidunak izateko aukera kontuan izan gabe. Jarrera horiek eta beste batzuk bihurtzen gaituzte askatu nahi dugunon kultura eta politikaren hondamendiaren kide. Hausnarketarik gabeko aktibismoan jendea isilarazi dugu, kendu diogu hitza eta sentimenduak eta jakinduria adierazteko aukera. Alfredo Ghiso dion bezala, “Pentsatzen dugunari eta sentitzen dugunari buruzko isiltasuna mantentzen irakasten ez duen beste pedagogi bat eratzeko ordua da. Zer esan, zer pentsa eta zer sentitu estaltzen ez duten hezkuntza proposamenak egiteko ordua da. Hezkuntzako praktika eta teoria sustatzeko ordua da, elkarbizitza sortzeko, hitza bere erbestealditik bueltatzen lagunduz<sup>30</sup>”.

Ezinbestekoa da dimentsio pedagogikoa bistatik ez galtzea, gure balore eta helburuen kontra ez egiteko.

#### 4.4.1. Hezkuntza eta kalitateari buruzkoa

Pertsona eta herri guztiek kalitatezko hezkuntza nahi dute. Baina hitz honek nahasia sor dezake, eredu neoliberalak eta bere jarraitzaileek erabiltzen bait dute edozein heziketa proposamena askatzailea geratzeko.

<sup>29</sup> Alfredo Santos. Asian Council for People's Culture. 2002ko POLYGONeren elkarrizketak.

<sup>30</sup> Ghiso, Alfredo. (1998) *Pedagogía/Conflicto. Pistas para deconstruir mitos y desarrollar propuestas de convivencia escolar*. CESEP.



### Gure oinarrizko irizpideak

Aipatutako kalitateak zera esan nahi du:

- Hezkuntza-sistemak haien errealitate anitzera moldatzea.
- Eleaniztasuna bermatzea.
- Lantzen diren edukiak birpasatzea eta moldatzea.
- Bertako irakasleriak prestakuntza iraunkorra izatea.
- Komunitateetako pertsonen jakintza-maila handitzea.
- Bertako herrien eskubideak errebindikatzeko, errespetatzea eta lantzea.
- Komunitatearentzako garrantzitsuak diren tradizioetan eta historiako gertakizunetan sakontzea.
- Kultura aztertzea eta bizirik dagoen prozesu dinamiko eta aldakorra bezala planteatzea.

Nahi dugun eskolaren ereduak aukeratu dugun eta sustatzen dugun garapenaren ereduarekin bat etorri behar da. Eskolak eta komunitateak eskutik helduta ibili behar dute, eta giza taldeek ze eskola-mota nahi duten eta zertarako nahi duten erabaki beharko dute.

Herri batzuetan, curriculumak komunitate bakoitzaren kultura-errealitateera moldatuta daude. Oinarrizko erkidezko aspektu batzuetan kontzientziatze eta sendotze aurreko lana egin da, adibidez, kultura eta tradizioa mantentzea, ingurunearen babesa (lurra, ura, airea), e.a. Nahiz eta erakunde ofizialetako ordezkarietako arazo batzuk izan, proposamenak ez ulertzeagatik edo ukatzeagatik, oso garrantzizkoa da curriculum horien aitortzea.

#### 4.4.2. Oinarrizko elementu eta hezibideei buruzkoak

Erakunde ofizialetako ordezkarietakoekin egin behar den lanaz gain, hezitzaileekin egin behar dena hor dago. Lan-esparruko kultura eta hizkuntzak ezagutzea eta bertakoak izatea komenigarria da. Eguneroko bizitza erabili behar da ikasteko esperientzia bezala, eta bizitza beraren gaiak eta edukiak landu behar dira.

Gure jardueretan parte hartuko duten talde zehatzak ongi identifikatzea beharrezkoa da, beraiekin heziketan sakontzen, gero biderkatzaileak izan daitezten.

Giza-aldaketarako hezkuntzak egunerokoan aldaketak sortzeko metodologia behar du, konpromiso teorikoan ez geratzeko, metodologi batek, nahiz eta aktiboa izan, batzutan eraldaketarik ez bait dakar.

Bai gure erakundeetan, baita sarean egindako lanean, gure tes-tuinguruetan aurkitzen ditugun erronkei hobeto erantzun dieten pedagogi metodo eta praktikei buruzko hausnarketa iraunkor bat garatu behar dugu.

Metodoak ez dira gogorak izan behar, inolaz ere, laborategiko produktu balira bezala. Bizirik egon eta malguak izan behar dira, testuinguru lokal bakoitzean egokitzeko. Adibidez, ahozko tradizio handiko herri bat bada, abestiak jakintzak zabaltzeko eta ikasteko baliabide garrantzitsuak izan daitezke.

Metodoek bultzatu behar dute:

- Sartze-prozesuen bidezko guztien partehartzea.
- Kontzientzia hartzea, errealitatearen eta bertan jarduteko gure gaitasunaren kontzientzia sortzen duen prozesua.
- Jabekuntza eta pertsonaren protagonismo integrala.
- Jarduerak, egitura-aldaketak bilatzeaz gain, jarrera-aldaketak ekartzen, “txikia” dena aldatzen, eta ikuspuntu globala hartzen lagundu behar du.

Eta metodoek kontuan hartu behar dute:

- Entzumena.
- Irudimena, ametsa eta utopiaren garapena.
- Jardueren dimentsio emozionala.
- Adierazpen-era desberdinen erabilpena.





### 4.4.3. Pedagogia-mintegian aurkeztutako esperientziak

#### 1. kasu-azterketa

Izenburua: Gazteak garapenerako prestatzea Erakundea:  
CIDAC, Portugal

##### HELBURUAK (besteen artean):

- Portugalen, garapenarekin lotutako gaietako buruzko gazteen heziketan aritzea (globalizazio-aroa, Bestea, Hegoaldea, etorkinak, e.a.)
- Maila desberdinetan gizartea aktiboa izateko botereari eskakizunak egiteko prest egiteko sustapenean aritzea.
- Garapeneko gaietako gazteen prestaketari buruzko hausnarketa sakona bultzatzea.
- Hegoaldeko eta Iparraldeko hezitzaileek elkarlana egitea, distantziazko harreman zuzenen bidez.
- Beste GKEkin eta gizartearen erakundeekin esfortzua egitea, garapeneko materialak hezitzaileen prestakuntzaren edukietan sartzeko.

**HARTZAILEAK:** Gazteen erakundeetako buruak eta partaideak.

**JARDUERA (eremua eta egutegia):** Kontinenteko Portugalen, 1997 eta 2000 bitartean zortzi mintegi egin ziren. Bakoitzak hiru eguneko iraupena izan zuen, herri osoko toki desberdinetan. Partehartzaileek, hiru taldetan banaturik, CIDAC-arekin batera proiektuak egin zituzten Garapenerako Hezkuntzaren arloan.

**EBALUAKETA:** « (...)FJD proiektua Portugalen egiten den Garapenerako Heziketaren testuinguruan ongi bideratutako berrikuntza izan zen. Gazte-erakundeei zuzenduta, proiektuak hurbiltzeko estrategia martxan jarri zuen, elkarrekin haien esparruetan prestatetako proposamen bat eta esku hartzeko beste bat elkartuz, kasu bietan elkarlana bultzatuz. Partehartzaileen esanetan, emaitza onak gai berriak planteatzeaz gain, proiektuan egoteagatik esku hartzeko gaitasunen indartzean oinarritu dira. Ahuleziak, batez ere, gazte-elkarrekin arteko dinamika ezan eta proiektuaren operatzaile nagusian, batez ere jarduera bakoitza planifikatzeko unean dautza. (...) »

Antonio de La Fuente  
Belgikako GKEko ITECOko kanpoko ebaluatzailea.  
Proiektuaren ezaugarriak eta gabeziak  
Garapenerako gazteak prestatu-n

##### OHARRAK:

1. Gizarte zibila delakoaren elkarrekin gain, estatuaren instituzio batzuetara, parlamentuan dauden alderdi politiko guztietara eta haien gazteen elkarrekin jo zen.
2. Proiektuak bildu zituen elkarrekin eta CIDACarekin eta haien arteko harremanak proiektuan eta bera bukatu eta gero izan zituzten elkarrekin (hogeita bost gehiago) informatutako iritzi publiko aktiboaren eraketarako emankizuna dira, Garapenerako Heziketaren edukietan eta gazterian.

## 2. kasu-azterketa

**Izenburua:** Isla do Fogoko Goialdeen Garapena.

**Erakundea:** Elkartasunerako Cabo Verdeko Institutua - Cabo Verde

### HELBURUAK:

- Populazio behartsuari enplegu iraunkorra bermatzea.
- Hegaletako lurzoruen defentsan eta berreskuratzean laguntzea.
- Abereentzako larreen produkzioan laguntzea.
- Etekinaren handitzean lagundu, akain-belarraren haziak, zura eta fruitu exotikoak ekoizpen eta behi- eta ahuntz-aziendako (familia bakoitzeko bi behi eta hamar ahuntz) ustiaketa bidez.

**HARTZAILEAK:** 140 familiak, ekonomikoki behartsuak, zazpi taldeetan banaturik (gutxi gora behera bakoitzean hamazortzi pertsona) zonalde bakoitzean.

**METODOLOGIA:** FAIMOSaren (intentsitate handiko eskulaneko frontea) egituraren birmoldaketaren bitartez beharren partaidetzazko identifikazio bat egin eta gero, proposamenak egin ziren, eta haien atzean lehentasuneko irtenbideei buruzko eztabaida egin zen, bertako liderraren prestakuntzari garrantzia emanaz. Antolakuntza bi taldeetan banatu zen: lehenean proiektuaren hartzailleak ziren, eta bigarrean, Estatuaren zerbitzu deszentralizatuen ordezkari teknikariak. Lehen taldean liderrak aukeratuta izan ziren eta bigarrean Isla do Fogoko Kontseiluaren egoitza den S. Filipeko Udaleko Kamararen Zuzendaria lidertzat hartu zuten. Hartzailleak lan guztien burutzapenaren erantzukizuna hartu zuten bitartean, teknikariak arlo desberdinetako (nekazaritza, basoak, osasuna, politika...) haien aholkularitza bermatu zuten.

**JARDUERAK:** 1. Uharen zuzenketa, akain-belarraren ekoizpena; 2. Abereen hazkuntza; 3. Baso-berritzea; 4. Nekazaritza; 5. Frutagintza; 6. Aurrekia eta kreditua; 7. Prestaketa. Ekintza guzti horiek taldean egin ziren, abereen hazkuntza izan ezik, familietan egin bait zen.

**EREMUA ETA EGUTEGIA:** Isla do Fogo, 1000 metroetako kotaren gainetik dauden zonaldeak. Jarduerak 1989 eta 1994 bitartean egin ziren.

**EBALUAKETA:** Uharen zuzenketa arrakastatsua izan zen, aurreikusitakoarekin guztiz bat etorri bait zen. Akain-belarraren ekoizpenak ez zuen emaitzarik eman hazien ekoizpenean, maila lokalean olioaren ekoizpena ezinezkoa bait da eta haziak esportatzeko zaila delako. Bestalde, erazteko ekoiztutako larreak abereen elikadura hobetu zuten. Abereen hazkuntza beste arrakasta bat izan zen, gaztaren aurreikusitako ekoizpena (urteko 78000 gazta) ia bikoiztu zelako. Baso-berritzea buruz, arrakasta itxurazkoa izan zen, etengabeko lehorteengatik, nahiz eta landatutako zuhaitzen kopurua gaitzera. Zuraren ekoizpena, agerikoa denez, pentsatu baino beranduago hasi zen. Zonalde batzuetan nekazaritzak ez zuen fruiturik eman lehorteak zirela eta, baina mikroklimako zonaldeetan, urte bakoitzean bizpahiru uztak izan ziren (zerealak, babarrunak, patatak...) Frutagintzan, klima epeleko frutabolen ekoizpena dibertsifikatuta aurreikusten zen. Besteen artean, mahaztien laboreei lehentasuna eman zitzaion, eta arrakasta bat izan zen, horien fruituak ardo bihurtu baitziren, eta oso emaitza komertzial onak izan zituzten. Beste arrakasta handi bat, proiektuaren bukaeran hartzailleek 48.000 euroak taldean aurrezteko lortu baitzuten, eta horrela inbertitu zituzten: abereentzako janari-fabrika (eraikuntza eta tresneria), prestaketa profesionaleko zentro txiki bat (zurgintza) eta okindegiko kolektibo bat. Eta herri-lanetan, azpimarragarria da euria jasotzeko zisternen eraiketa.

**OHARRAK:** Arrakastarik handiena gizartearen antolakuntza izan da, kontzientizatze eta heziketari esker. Horrela, lan-taldeak garapenerako bertako elkarte bihurtu ziren, eta proiektua administratzeko zelula bertako elkarte guztien elkarte-ama bihurtu zen. 140 familiekin hasi zena, gaur egun 350 biltzen ditu.

## 4.5. Matazak askatzeko. Sistematizazioa

Heziketa errazteko badira metodo batzuk, adibidez ebaluaketa, diagnosa edo plangintza. Hala ere, gure hiztegian sartu berri den hitz bat agertu da “sistematizazioa”.

Sistematizazioa ez da bakarrik heziketarena, baina zorrotasuna ematen dio dimentsio pedagogikoari, eta heziketako jarduera guztien diagnosiak, prozesua eta emaitzak indartzen ditu (bereizki giza-aldaketarako eta giza garapenerakoak).

Sistematizazioak prozesuaren memoria modu zehatzean berreskuratzea inplikatzeko du, akatsak sumatzeko, gaitasunak eta mehatxuak detektatzeko eta esperientzia bere osotasunean gordetzeko. Horrela, berri baten hasieran estrategiak hobeto planteatuko dira eta ikasitakoak praktikan jarriko da, “bolbora berrasmatzeko” edo hutsetik hasteko beharrik gabe.

Ez da lan erraza. Herri-hezitzailea den Isabel Hernándezek, Argentina eta Txileko komunero maputxeekin luzaro egin zuen lana, eta horrela hitz egiten du sistematizatzearen zailtasuna eta garrantziari buruz: “Askotan herri-hezitzaileak ez dugu sistematizatzen, ezta gure esperientziak zabaltzen ere, besteak beste, lortu zuten garrantzia kentzen diegulako. Gure baloreen gainetik, neurgarriak eta berehalakoak diren emaitzak gehiago baloratzen ditugu, heziketa prozesua osatzen duten jarreraren aldaketa motelak eta epe luzeko aurrerapenak eta atzerapenak baino<sup>31</sup>”.

POLYGONEk uste du metodo hori, oso garatua Latinoamerikan, oso interesgarria eta aproposa dela talde baten emankizunak biltzeko eta bere ikastearen ondarea izateko. Europan, Asian edo Afrikan ez dago sistematizatzeko ohiturarik.

Esperientzi pedagogikoak elkartrukatzeke eta testuinguru desberdinetan egokitzeko eta aprobeatzeko sortzen den sare

batentzat nahitaezkoa da bere partaideek haien lanak aurkezteko, sailkatzeko eta denboran jartzeko era erkidezkoa izatea, prozesua bizi ez dutenek ongi ulertzeko.

Sistematizazioa oso garrantzitsua da heziketaren beste hiru dimentsioen lana indartzeko, abstrakzio-ariketa bat delako, heziketa praktikak hobetzeko, ikaste berriez jabetuz, eta ez bakarrik gure erakunderako, baizik eta beste esperientzietarako, informazioa sozializatzeko prozesu zehatz baten bidez.

### 4.5.1. Zer da benetan sistematizazioa?

Latinoamerikan, sistematizazioaren lanak 70eko hamarkadan hasi ziren, eta bere sorreran garapenaren autoreek eta dinamizatzaileek parte hartu zuten: Oscar Jara, Alfredo Ghiso, Carlos Núñez, Sergio Martinic eta Jorge Osorio, besteen artean.

Oscar Jarak sistematizazioaren bi ikuskera posible direla dio<sup>32</sup>:

- Bata, informazioaren sistematizazioari buruz, logika zehatz bat jarraituz informazioaren sailkapena eta antolaketa.
- Bestea, esperientzien sistematizazioari buruz.

Lehen ikuskerari buruz asko idatzi da, eta horregatik bigarrena gehiago interesatzen zaigu abiapuntutzat hartuta. Esperientzien sistematizazioa definitzen duten elementu bat hau da: praktikan ateratako ikastea praktika bera hobetzeko ezinbestekoa dela ziur egotea. Praktika berreskuratzeke era honek (praktikaren protagonistek egindakoa) aberasten eta indartzen ditu bai lana eta baita erakundeak ere.

Ghanako Accrako Demokraziarako eta Berdintasunerako Institutuko Emmanuel O. Akweteyek esaten du beharrezkoa dela esperientziak konpartitzea Iparra eta Hegoaren artean, Hegoa eta Iparren artean, Hegoa eta Hegoaren artean eta Iparra eta Iparren artean. Guzti hori posiblea da sistematizazioaren bidez<sup>33</sup>.

<sup>31</sup> Hernández, Isabel & Cipolloni, Osvaldo. (1985) *El educador popular y la vida cotidiana. Dos experiencias entre comuneros mapuche*. CEAAL.

<sup>32</sup> Jara, Oscar. (2002) *El desafío político de aprender de nuestras prácticas* POLYGONEren topaketaren harreran egindako hitzaldia.

<sup>33</sup> Donostiako Udalarentzako Garapena eta Kooperazio-Esperientziak. Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Tolerantzia Saila.

Sistematizazioa, ulertzen dugun bezala, gizarte aldaketarako beste hiru dimentsioak biltzen ditu:

- **Osagai politikoa**, metodo honetan aritzen diren pertsona eta erakundeek planetako hiritar guztientzako harreman zuzena goak eta gizarte aldaketa lortzeko lan egiten dutelako. Oscar Jarak aipatzen duenez<sup>34</sup>, sistematizazioak giza mugimenduen praktikak berroritzen eta giza zientzien ekoizpen teorikoa berritzen lagundu dezake. Sistematizazioa, interpretazio kritikoaenez, bakarrik erabatekoa izango da praktika eraldatzaile bihurtzen bada eta pertsona kritikoak eta sortzaileak izateko prestaketa integrala dela esaten du ere bai.
- **Osagai pedagogikoa**, praktika beratik egindako jakintzaren eraiketa kolektiboa delako. Eta hori posiblea da irakaste-ikaste prozesuetan eta historiaren berreskurapenean pertsona guztiak aktiboak izateko teknika eta bideak erabiltzen dituelako. Jarak dio sistematizazioa gu geu prestatzeko bidea dela<sup>35</sup>, eta Ghiso dio sistematizatzeko prestatzen garela eta sistematizatuz prestatzen garela<sup>36</sup>.
- **Osagai kulturala** sistematizazioak, gure praktikan oinarritutako ikasteak lortzen laguntzen gaituenez, gure kultura kontrastatzeko aukera ematen digu, gure esperientzietan zehar ikus dezakegun ispilu bat bezala. Honek kultura-hel-dutasuna behar du, gure buruak alderantzeko eta prozesu

bereganatzaileak ez egiteko. “Gogoratu behar dugu gure praktikari buruzko egiten dugun interpretazioa kultur esparru zehatz batean, eta gure jakintzarekin, hausnarketarekin, usteekin, mitoekin, baloreekin, emozioekin, eta gure subjektibitatearen adierazpen guztiekin egiten dugula<sup>37</sup>”.

Azken finean, sistematizazioak esperientzi baten historia berreskuratu nahi du, eta kritikoki birpasatu nahi du, historian izandako prozesu dinamiko bat bezala. Edozein sistematizazioa egin baino lehen, berreskuratu, “birtestuinguratu” eta analizatu dezakegun praktika bat badago, eta hori egiteko prozesu osoan jasotako jakintza erabil dezakegu. Analisi kritiko hori egiteko bitarteko prozesuari buruzko interpretazioa eta irakurketa egiteko galdera sortzaileak erabiltzea bide bat izan daiteke, dimentsio ekonomiko, sozial eta politikoarekiko harremanak kontuan hartuz. Historiaren berreskuratze hori gure praktikaz oihartzeko eta hobetzeko egiten da, aspektu positiboak berreskuratuz eta indartuz, eta birformulatuz. Metodo honen bidez gure esperientziak kontzeptualizatu ditzakegu eta jakintza eta proposamen berriak sortu.

Pertsona guztiak haien egiteak sortutako pertzepzio eta jakintza badute. Jakintza hori sistematizazioaren abiapuntua da, eta esperientzian parte hartu zutenak bere protagonistak dira.

<sup>34</sup> Jara, O. (1997) *Para sistematizar experiencias*. IMDEC..

<sup>35</sup> Jara, O. *Op. Cit.* 1997

<sup>36</sup> Ghiso, A. (1998) *De la práctica singular al diálogo con lo plural. Aproximaciones a otros tránsitos y sentidos de la sistematización en épocas de globalización*. Funlam.

<sup>37</sup> Ghiso, A. *Op. Cit.* 1998.

## 4.5.2. Sistematizazio esperientziak

### 1.go esperientzia

#### El Salvadorren egindako lur-banaketaren programa FUNPROCOOP

**ESPARRUA:** Bake-akordioak egin eta gero erabakitako FMLN eta Indar Armatuaren gudulari izandakoentzako Lurren Banaketarako Programa (PTT).

**IREMUA:** Gerrostearen – Nekazal erreformarik ez – Lurrak liberalizatzeko Munduko Bankuak egindako presioa – Sistema neoliberalaren ezartzeko esparrua: salneurrien liberalizazioa, mugasarien ezabatzea.

**KONTZEPZIOA:** Sistematizatzeko proposamena, Alforjaren esperientzian oinarriturik, dimentsio batzuk kontuan hartuz:

- Politikoa: pertsonen jabeakuntza eraldatzeko eta boterea eraikitzeko.
- Filosofikoa: errealtatearen ulertze dialektikoa eta sistematikoa, pentsamolde zirkularra eta ez-lineala sortuz. Errealtatea pentsatzeko eta ezagutzeko modu berria, aurkikuntzaren logikaz.
- Psikologikoa: subjektibitateak; nortasunen eraiketa eta “deseraiketa”; historiaren berreskuratzeak iragana eta etorkizunaren arteko zubiak egiten ahalegintzen du, erresistentziatzko nortasunak berreraikitzen ditu, sentimenduak berreraiki edo birneurtzen ditu.
- Pedagogikoa: Esperientzian abiatuz, jakintzaren taldeko eraiketa: eraldatzeko testuinguru zehatz batean “bizitako eta pentsatutako” gure praktika.

**ARDATZA:** Lurraren eskuragarritasuna eta taldeko erabilpena eta nekazarien bizitza duin batentzako garapena.

**HARTZAILEAK:** El Salvadoreko hiru lurraldeetako onuradunak, 50 taldeburuak.

**PROZESUA:** urte bat

1. Historiaren berreskuratzea:

- a) 50 pertsonekin egindako mintegia- 35 emakumeekin egindako mintegia
- b) Informazio gehigarria lortzeko ikerketa eta bideoaren egitea.
- c) PTT-ko komunitateekin egindako informazioaren itzulketak eta oniritzia, bideoa eta berreskuratutako informazioaren laburbilduma erabiliz.

2. Interpretazio kritikoa:

- a) 2. ulertze-mintegia.
- b) Ulertze prozesuan egindako eztabaidak eta emankizunak biltzen dituen bideoaren egitea.
- c) Itzulpena eta eztabaidak PTT-ko komunitateetan, bideoaren aurkezpenaz eta landutako gaien analisiaz.

### 3. Ondorioak eta ikasteak.

- a) Azken mintegia, emaitzak eta ikasteak lantzeko.
- b) Komunitateentzako itzulpen-bideoa.
- c) Eskakizunak egiteko plataforma.
- d) Itzulpenarako Foru Nazionala, Brasilgo MST-aren parte hartzearekin, lur-arazoei buruzko eztabaida. 150 lagun.

### 4. Azken emaitzen egitea. Laburpen-bideoa eta liburua.

### 5. Sistematizazioa egin eta geroko prozesuaren jarraipena: politikan eragina nola izateko eta kooperatibismoari buruzko mintegiak, nekazarien mugimendua dinamizatzeko sinergiak eraikitzea.

**PROZESUAREN BALORAPENAK:** Prozesuan parte hartu zutenak eta haien komunitateak jabekuntza lortu zuten. Lur-arazoei buruzko eta herriko nekazal-arazoari buruzko eztabaida bat sortu zen. Politikan eragina izateko plataforma bat badago. Nekazarien mugimenduan ez zen sinergiarik lortu, oso instituzionalizaturik zegoelako (partaide berriak izateko itxia) Epe luzean, hala ere, eskakizunak egiteko mugimenduen berpiztean lagundu zuen.

## 2. esperientzia

**Recife, Brasilen egindako gizarte-interesa duten zonalde berezietako (ZEIS) gazteen profesionalizatorako eta kontzientzia hiritarra hartzeko proiektua. ETAPAS**

*"Quero fazer parte dessa massa que faz, de uma forma ou de outra, a moldura de um país que tenta ser feliz",  
Elisângela (proiektuko parte hartzaile gaztea).*

**TESTUINGURUA:** 1.200.000 biztanle dituen Recifen egindako proiektua, etxebizitzak eskuratzeko arazo handi bat duen hirian. Recifen gutxi gora behera 400 hiriko okupazioak daude ("favelas") hiriaren erdia eta inguruaren artean banaturik. Recifeko biztanleriaren %40a bertan bizi da.

1983 arte, honelako lekuen izatea ez zen onartuta izan, ezta haien biztanleena ere. Antolatutako herri-mugimenduen borrokari esker, 1983an leku horien izatea onartzen zuen lurra erabiltzeko eta okupatzeko lege bat sortzen da. 1987an PREZEIS (gizarte-interesa duten zonalde bereziak ordenatzeko plana) legea ezarri zen. Une honetan ETAPAS instituzionalizatzen da eta populazioen hiriko erdian egote- eskubidea onartzen da. PREZEIS legeak honako helburu nagusiak ditu: urbanizazioa, legalizazioa eta errentaren kudeaketa (botere publiko, GKE eta herri-sektoreen artean).

ETAPASek helburu horiek bereganatu ditu, eta erkidezko partehartzearen oinarria sustatu du, kudeaketan parte hartuz eta ZEISetako biztanleen perfilei buruzko ikerketak eta ikasketak eginez.

**PROZESUA:** Proiektua lan aukera gutxiko eta eskolaratze eskaseko testuinguruko gazte eta gaztetxoei zuzenduta zegoen.

Esperientziak hiru urte iraun ditu, eta bere ebaluaketa hiru urratsetan egin da:

- Lehen urtean, kanpoko ebaluaketa.
- Bigarren urtean, parte hartu duten gazteentzako galderak.
- Hirugarren urtean, gazteekin eta haien familiekin egindako ikerketa bat, gero haiei aurkeztuta, iritziak elkartrukatzeko.

#### AZKEN EMAITZAREN EBALUAKETA:

- Helburuak: ikuspuntu kritikoa teknikarien gaitasunak eta prozesuaren beste aldeak indartzeko; amaitzeko aurreikusitako talde-ebaluaketa bat egitea, erkidezko parte hartzearen sustapena.
- Ebaluaketaren prozesua:
  1. Proiektuan zehar egindako dokumentuen analisia (ikerketak, txostenak).
  2. Teknikarien taldea eta kanpoko aholkularien arteko topaketa: “helburuen arbola” egitea, aurreikusitako eta lortutako helburuak ezberdintzeko (estrategiak aldatzeko).
  3. Elkartutako eraginen ikerketa, gazte eta komunitateekiko topaketaren bitartez eta aldeekiko elkarriketen bidez.
  4. Zailtasunak ikusteko eta gainditzeko prozesuen planteatzea (batzuk martxan jarrita prozesuan zehar).
  5. Prozesuen indar eta gaitasunen identifikazioa eta analisia, perfil sozio-ekonomikoak eta erkidezko parte hartzea ikertuz. Etorkizuneko prozesuetan sartzea.

#### GAUR EGUNGO EBALUAKETAREN BALORAZIOA:

1. Antzeko proiektuen indar-emailea.
2. Gazteen jabeakuntza eta GKE-etan integrazioa.
3. Kontzientzi politiko handiagoa: lehendakari berriari egiteko eskakizunak.

#### 4.5.3. Ebaluaketa eta sistematizazioa. Berdinak ala antzekoak?

Badago “sistematizazio” hitzari lotuta datorren zalantza bat: hainbestekoa al da ebaluaketa eta sistematizazioaren arteko ezberdintasuna?

Ebaluaketa eta sistematizazioa osagarrikoak dira, eta elementu batzuk konpartitzen dituzte. Osagarritasun horrek biontzako aberastasuna sor dezake, baina baita tirabirak ere, haien arteko muga markatzea zailago egiten bait da.

Biek abstrakzio-ariketa dakarte, eta ariketa horrek ikaste berriak lortuz heziketa-praktikak hobetzen laguntzen du. Eta laguntza hori gure erakundearentzako izango dira, baina baita beste esperientzi berrientzako ere, informazioa elkartrukatzeko prozesu baten bidez.

Hurrengo koadroan ebaluaketa eta sistematizazioaren ezaugarriak aurkezten dira, helburu, enfasi, egile eta aurreikusitako emaitzen bidez<sup>38</sup>.

<sup>38</sup> POLYGON Eren topaketan parte hartu zutenek ANAFAEK bere “Esperientziak sistematizatzeko mintegia”-n eskatzen zuten bezala.





ASPEKTUA	EBALUAKETA	SISTEMATIZAZIOA
<b>Helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prozesu baten emaitzak neurtzea</li> <li>• Emaitzak helburuekin, helmugekin eta aurreikusitako ondorioekin alderatzea.</li> <li>• Etorkezuneko jarduerak egiteko gomendioak egitea.</li> <li>• Sinpleagoak diren prozesuetarako ardaztuta.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esperientziaren bidez jakintza lortzea.</li> <li>• Beste esperientziekin elkarrizketak izateko ikasteak jasotzea.</li> <li>• Prozesuak konpartitzea, ikastea eta hobetzea.</li> <li>• Konplexuagoak diren prozesuetarako ardaztuta.</li> </ul>
<b>Enfasia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emaitzak helburuekin, helmugekin eta aurreikusitako ondorioekin alderatzeari lehentasuna ematen dio..</li> <li>• Logika zatizkoa da..</li> <li>• Objektibotasunerako joera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egindako esperientziari buruzko hausnarketa egin nahi du gidatzeko haria edo hausnarketarako ardatzaren bidez.</li> <li>• Prozesuan eragina duten zergatiak eta ondorioak bilatzea.</li> <li>• Sakonki hausnartzea.</li> <li>• Esperientziak zabaltzea.</li> <li>• Prozesuaren logika ulertzea.</li> <li>• Logika zirkularra, sistematikoa, konplexua da.</li> <li>• Dimentsio subjektiboa kontuan hartzen du.</li> </ul>
<b>Nork egin</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez da beharrezkoa aktoreek parte hartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beharrezkoa aktoreek parte hartzea.</li> </ul>
<b>Itxarondako emaitzak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Helburuen noraino heldu diren neurtzea.</li> <li>• Tekniken onartzea.</li> <li>• Efektu kognoszitiboak zehaztea.</li> <li>• Lanaren jarraipena eta balioztatzea definitzea.</li> <li>• Komunikazioa prozesuaren aktore zuzenei bereziki zuzenduta dago.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasteak, ondorioak, komunikazio-emaitzak, bideoak, dokumentuak, istoriotxoak, e.a.</li> <li>• Komunikazioak aktore zuzenak gainditzen ditu.</li> </ul>

#### 4.5.4. Edozein egoeran eta edozein aurrekontuarekin posible al da sistematizatzea?

Metodo honek prestaketa behar du, ezin da inprobisatu. Zapuzte bat ez izateko, pertsonalak eta instituzionalak diren baldintza batzuk izan beharko dira.

##### Baldintza pertsonalak

- Prestaketa-prozesu teoriko eta praktikoa batean gure barnean sortzen ditugun baldintzak (ulertu behar da hasi baino lehen ez direla erabat lortu behar)
- Sistematizazio-prozesu bat aurrera eraman nahi dutenek esperientziaren bidez ikasteko gogoia izan behar dute.

Esperientzia honen bidez zer ikas dezaket? Ze nolako ikasteak lortuko ditut?

- Análisisa eta laburpena egiteko trebezia, gertatutakoaren deskripzioa gaindituz.
- Esperientziari entzuteko sentsibilitatea: benetan gertatu zena jaso, baina ez jaso gertatu nahi izan genukeena.

##### Baldintza instituzionalak

- Oinarrizko baldintza: sistematizazioa instituzioaren politikarako lehentasuna izan behar da. Kontuan izan behar dira sistematizazioaren erabilgarritasuna eta helburua. Sistematizazio-prozesu bat aurrera eraman nahi duen erakundea-

ren apustu politikoaren argitasuna eta koherentzia behar dira (eta aritzeko denboran eta baliabide ekonomikoak eta materialak eta dedikatutako pertsonala izango dira neurtzeko irizpideak).

- Talde-lanerako koherentziaren bilaketan interesatuta izatea, sistematizazio prozesu batek gure nahien eta praktiken inkoherentziak zehazten eta estrategi berriak planteatzen laguntzen bait du. Oso une ona da gure proposamen eta praktiken esparru metodologiko eta teknikoaren teoriari buruzko eztabaia sortzeko.
- Sistematizatu nahi duen instituzio batek proposamen metodologiko bat izan behar du, markatutako bide bat. Horrela sistematizatuko dugu prozesua kritikoki berreskuratuko dugu eta ulertuko dugu. Instituzio horrek sistematizazioa garapen instituzionala eta plangintza estrategikoaren ezinbesteko atala dela onartu behar du. Eta nazioarteko mailan jarraipena egiteko mekanismoak sortu behar dira.
- Azken baldintza instituzionala: instituzioan pilotatzeko prozesu bat sortzeko prest egotea, historian zehar lorturiko ikasleak ez galtzeko. Ikaste-pila hori instituzioaren erregistroetan jaso egin behar da, sistematizatzeko prozesua errazteko.

Honelako prozesu bat martxan jartzen duen instituzioak parte hartzeko guneak izatea edo sortzea sustatu behar du. Oso garrantzitsua da beste erakundeekiko elkartruckerako espazioak eta mekanismoak sortzea. Eztabaia demokratikoa — argudioak ematen, eta negoziatzen ikasteko—, benetan demokratikoa bada, pertsonen jabekuntza eta prozesuen jabeak izatea lortuko dute. Azkenik, informazioa eskuragarria izatea beharrezkoa da, sistematizazioaren lana instituzio osorako baliagarria eta benetakoa izateko.

#### 4.5.5. Sistematizazioaren muga batzuk

Metodo honek muga batzuk ditu eta komenigarria da zehaztea, hobeto erabiltzeko. Bi muga-mota daude: jarrerari buruzkoak eta gai teknikoei buruzkoak<sup>39</sup>.

#### Jarrerari buruzkoak.

- Gerta daiteke lan-metodo honi lehentasuna ez ematea. Orduan baztertutako jarduera izango da, instituzioaren plan globaletan sartu gabe.
- Beste muga bat partehartzaileen larrugorritasuna da, emandako esperientzi batean gertatutakoa zehaztea eta baloratzeari eskatzen bait zaie. Biluztasunetik jabekuntza lortzeko prozesu batera pasatzeko partehartzaileen arteko konfiantza lantzea komenigarria da. Manipulatzeari arriskua bada, baita informazioa erabiltzerakoan partzialtasuna izatea ere.
- Sistematizazioak konpromiso pertsonala eta instituzionala eskatzen du. Hala ere, beharturik parte hartzen den azaleko prozesu bat izateko arriskua badago. Jarrera hori ez da batera positiboa giza-aldaketarako heziketa prozesu baterako, ezta sistematizatzeko prozesu baterako ere.

#### Gai teknikoei buruzkoak.

- Gerta daiteke sistematizazio batean parte hartzen duen metodoaren lorpenak eta mugak ez ulertzea, ezta ibilbide argi bat izatea ere, eta orduan prozesuan galtzea.
- Beste muga bat gertatutako guztiak duen garrantzia da. Taldean lehentasunak eta akordioak izatea beharrezkoa da, baita irizpideak eta sailkapenak zehaztea ere, berreskuratutako behar den informazioa definitzeko.
- Instituzio batek esperientzia bat sistematizatu nahi duenean, kontuan izan behar du esfortzu handia izango dela (dirua, materiala, pertsonak, denbora...) Apustu instituzionala izan behar da.

#### 4.5.6. Sistematizatzeko proposamen metodologiko bat

Proposamen hau ez da bakarra ezta hobereana ere, baina topaketan adostu zen eta martxan jartzea posiblea da, lehen aipatutako elementu guztiak kontuan izaten badira. Bost une ditu, eta malgutasunez hartu behar dira, era desberdinak izango bait dira martxan jartzeko.

<sup>39</sup> Iniciativas de Cooperación y Desarrollo. (2002). *Proceso de Sistematización del grupo de trabajo de voluntariado de la CONGDE*. Madrid.

### 1.go unea. Abiapuntua:

- Sistematizatu nahi dugun esperientzia bizi izatea beharrezkoa da.

### 2. unea. Hasierako galderak:

- Ze esperientzia sistematizatu nahi dugu? Objektua mugatu.
- Zertarako sistematizatu nahi dugu esperientzia hori? Helburua definitu.
- Ze nolako aspektuetan interesatuta gaude? Ardatz bat zehaztu.

Une honek behar diren erregistroen eta informazioaren sailkapena behar du.

### 3. unea. Bizi izandako prozesua berreskuratzea:

- Bizi izandako prozesuaren historia berreraiki.
- Berreraiketa honek une bakoitzaren informazioa sailkatzen lagundu behar du, prozesu osoa berrikusiz.

### 4. unea. Hausnarketa sakona:

- Gertatutakoaren ulertze kritikoa (hau da unerik garrantzitsuena)

### 5. unea. Helmugak:

- Ondorio teorikoak eta praktikoak formulatzea: praktikaren kontzeptualizazioa da.
- Ikasteak eta jakintza berriak komunikatzea: nori komunikatu eta nola egin erabaki beharko da. Beharrezkoa da ikasitakoaren zabalkuntzak instituzioaren esparrua gainditu behar duela planteatzea. Beraz, zabaltzeko metodoa zehaztu egin behar da, pertsona gehiagorengana heltzeko.

## 4.6. Mataza askatzen da. Bide berriak

POLYGONEn ustez, komunitate eta kulturen beharretara moldatzen diren heziketa-jarduerak eskatzea nahitaezkoa da. Gertatzen ez bada, gizarte eta kultura alienatzeko prozesua sor daiteke, neoliberalismoaren heziketa-politikaren helburuetara hurbilduz.

POLYGONEn partaideek zalantzan jartzen dute heziketa sistema gogor baten nahia unibertsalista, baina ez dute zalantzarik hau esatean: duintasunerako lehia guztiontzako heziketa lortuz irabazten da. Sare honetako erakunde parte hartzaile guztiek heziketa, formala eta ez-formala, mundu osoko kulturen eta pertsonen oinarritzko eta debekaezinak diren eskubideen artean heziketa dagoela esaten dute.

Ez dugu sare honetako erakunde parte hartzaile guztien artean egindako heziketaren definizio bat. Hala ere, POLYGONEn ustean heziketa, formala eta ez-formala, erkidezko etengabe aldatzen den prozesu bat izan behar dela esan daiteke. Kontzientzia-hartze kritikoz eta erkidezko komunikazioz egindako tresna bat izan behar dela uste du ere bai. Heziketa askatzailea komunitate eta kultura baten gogoia bizirik mantentzen duena da, eta jakintza berrien bidez, aberasten duena.

Gure hezitzaileen lanean transmititzen dugun munduaren perzeptzio eta ulertzearen berrikuntza prestakuntza iraunkorretik dator, eta baita beste pertsonetikiko izandako etengabeko elkartruketik dator ere, eta uste, teknologia eta egunerokotasun desberdinak elkartrukatzen dira.

**POLYGONE Sarearen Topaketaren azken osoko bilkuran bildutako indar-ideiak.  
2002ko azaroan.**

1. Berdintasunezko, kalitatezko eta guztiontzako eskuragarria den heziketa bat lortzeko lan egitea, pertsona guztien duintasuna, jakintza, edozein pertsonen eta taldeen partaidetza soziala eta kulturala sustatzeko.
2. Nagusitu den ereduak inposatu nahi duen hezkuntzaren pribatizazioaren kontra, heziketaren merkantilizazioaren kontra eta kulturaren uniformizazioaren kontra aritzea.
3. Kultura eta bere testuinguru soziopolitikoaren praktika pedagogikoaren ardatz nagusitzat hartzea. Ardatz kulturala aniztasuna, norberestimazioa, adeimena, begirada plural kritikoa eta autokritikoa izatearen bermea da.
4. Heziketak kultura gordetzen, zabaltzen eta ekoizten du. Kulturen etengabeko eraldaketa prozesua sortzen du, sinplifikazioaren kontra, "folklorismoaren" gogortasun hilgarriaren kontra edo neokolonialismo kulturalaren kontra.
5. Elkarbizitzeko, parte hartzeko eta oinarrizko demokrazia lantzeko prozesuak sustatzen dituen heziketa mota bat egitea. Parte hartzen, eskubideak defendatzen eta erantzukizunak onartzen ikastea eta irakastea.
6. Pertsonei eta ikasi eta irakasteko prozesuari egindako emankizunei protagonismoa eman.
7. Heziketa-politika baztertzailen aurka egotea.
8. Garapenerako hezkuntza edo herri-hezkuntza egitea, bake-kulturaren alde, partaidetzazko demokraziaren alde, militarismoaren aurka, armen aurka, indarkeriaren aurka, mafien aurka, ustelkeriaren aurka eta botere-abusua hierarkien bidez (sozialak, ekonomikoak, politikoak edo ideologikoak) onartzen duen edozein gizarte autoritarioaren kontra.

POLYGONEren partaide guztiek partaidetzazko demokrazia, besteekiko adeitasuna, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, gure eta besteen giza-eskubideen defentsa landu nahi dugu. Erakunde parte hartzaileak eta haien sare lokalak

Latinoamerikan, Asian, Afrikan eta Europan egiten ari diren esfortzuen adierazpen bizia dira, pentsamolde bakarraren dogman oinarritutako eredu nagusia eta zapaltzailearen aurka.



**5. POLYGON**Eren  
etorkizuna



POLYGONEk osatzen duen hezkuntza-mosaikoa mundua dagoen labirintotik ateratzeko erkidezko proposamen bat eraikitze bidean hasi da. 2002ko azaroan Euskadin egindako topaketak elkarrekin aurrerantz jarraitzea ahalbideratzen duten harremak sortu zituen, eta sarearen lehen fase horren klimaxa izan zen. Dokumentu hau lehen fase horren emaitza da, elkar ezagutu, elkartrukatu eta eztabaidatu eta gero. Hausnarketa pizteko baliabidea izan nahi du, guztion pentsamendua sortzeko, bai nazioarteko sarean dauden erakundeetan, baita tokian tokiko sareetan ere.

2003ko martxoan bi urte baino gehiagoko fase bat amaitzen da. Bertan HEGOAK, CIDAC, CIP eta ITECOren laguntzaz, mosaikoa eraikitzea eta esfortzuen koordinaketa bere gain hartu zituen. Geldialdi bat egiteko unea da, gure sarearen ezaugarriak definitzeko, zerk motibatzen gaituen, nola jarraitu nahi dugun...

Sarearen etorkizuna zehazteko prozesua hasi zen 2002ko azaroan egindako topaketan, sarean dauden erakundeen ordezkarien emankizunak azaldu zirenean. Ze nolako jarduerak eta bideak izango lirake posible? Gero, posta elektronikoen bidez eztabaida egin zen, eta koordinatzaileari bidalitako ideia guztiak bildu ziren.

Munduko Heziketa-Foruan eta Munduko Giza Foruan —biak 2003ko urtarrilean Porto Alegren egin ziren— sareko erakunde batzuen partehartzeak topaketan ezarritako lehentasunak aberastu zituen eta globalizazio neoliberalarekiko kritikoak diren mugimendu globalekiko estrategia diseinatzeko lagundu zuen. Bruselan ideia eta proposamen multzo hau koordinazio-taldean dauden lau erakundeek eztabaidatutakoa izan zen: jatorrizko taldeko lau erakunde europarrak —CIDAC, CIP, HEGOAK eta ITECO—, 2002ko ekainean talde horretan hasi ziren Hegoaldeko lau erakundeekin batera —BIMAESW (Indonesia), CITI-HABITAT (Cabo Verde), ETAPAS (Brasil), eta PRODESSA (Guatemala)—. Taldeko eraikitze-prozesuak gutxienez 2003ko abendura arte iraungo du. Ordurako erkidezko nortasuna eta gure errealitateetan oinarritutako funtzionamendua izan nahi ditugu. Jarraian Bruselan adostutako ideia eta akordiorik garrantzitsuenak azaltzen dira.

### Trantsizio-aldian izango den koordinaketa. 2003ko apirila-2004ko martxoa

2003ko martxora arte, HEGOAK koordinatu du POLYGONE sarea, eta ardura horretarako koordinatzaile nagusia izan du, soilik eginkizun horretan jardun duena. CIDAC, CIP eta ITECO

Koordinazio Batzordean izan dira, sarearen erakunde sustatzailerak izateagatik.

2003ko apiriletik 2004ko martxora arte, POLYGONEren koordinaketa zortzi erakundeen artean egingo da: azal dutako lauak eta alde aurretik egitura horretan zeuden Hegoaldeko beste lauak. Guztiek Koordinazio Batzordea osatzen dute, eta 2003ko martxoan Europako Batasunaren dirulaguntza amaitu eta gero izandako murrizketa dela eta, ez da ezinbestekotzat hartzen koordinatzaile nagusia izatea.

Egungo koordinaketak 2004ko martxoa izango du epea, alde batek nortasuna eta sarearen funtzionamendua definitzeko prozesua egiteko funtsezkoa delako, eta bestaldekik, bigarren topaketa egitea beharrezkoa delako. Gaur egungo proposamena 2004ko apirilean Sao Paulon (Brasil) egitea da, III Hezkuntza Munduko Foruarekin batera. Urte bat nahikoa ikusten da 2003an definituko diren jarduera eta proiektuentzako dirulaguntza lortzeko.

Koordinaketa Batzordearen helburu nagusiak hauexek dira: harremanak eta eztabaidak mantentzea, sarean dauden erakundeen arteko komunikazioa dinamizatzea, eta nortasuna eta sarearen funtzionamendua definitzeko prozesua sustatzea.

Helburu horiek lortzeko jarduerak aurrera eramateko, egungo Koordinaketa Batzordearen eta sarearen erakunde guztien zereginak eta konpromisoak zehaztu dira.

### *Azken dokumentua eta topaketaren bideoa.*

Biak sarearen lau hizkuntzetan egiten ari dira —gaztelaniaz, ingelesez, portugesez eta frantsesez— eta partaideen artean banatuko dira, tokian tokiko sareetan eta testuinguru zehatzetan zabaltzeko. Sareko erakundeek bertako hizkuntzetara itzultzeko konpromisoa hartu dute. Nazioarteko dokumentuaren lau bertioak eskuragarri egongo dira weborrian, eta modu horretan eskuratzea eta kopiazea aukerakoa izango da. Banaketaren eta tokian tokiko sareetako eztabaiden ostean, erakundeek interneten bidez elkartrukatuko dituzte haien testuinguruan izandako eztabaidak eta erantzunak.

CIDAC besteen emankizunak biltzeko eta sarearen weborrian kokatzeko arduraduna da.

### *Komunikazioa*

Weborria —[www.webpolygone.net](http://www.webpolygone.net)— edo posta elektronikoko zerrendak —[forum@webpolygone.net](mailto:forum@webpolygone.net) eta [polygone@webpolygone.net](mailto:polygone@webpolygone.net)— bezalako tresnek erakunde partehartzaileen arteko komunikazioa laguntzen dute. Hala ere, ahaleginu beharko gara Interneterako sarbidean zailtasunak dituzten erakundeak bazterturik ez geratzeko. Horretarako zortzi erakundeek —berezi CIDACek— Interneteko sarea erabili ezin dutenekin harremanetan jartzeko ardua izango dute, telefonoz, faxaz edo postaz.

ITECOK “berriak” zerbitzua martxan jarriko du, sareko edozein erakundearen eztabaidak, proiektuak, argitalpenak, jarduerak sozializatzeko. Weborriak informazio horretarako atal bat izango du, eta erakunde guztiei aldizka bidaliko zaie, postaz, posta elektronikoz edo faxaz.

CIDAC izango da sarean bertako komunikazioaren arduraduna, eta harremanak mantendu beharko ditu (posta elektronikoz batez ere)

### **Taldeko eraikitze-prozesua. Nortasuna eta funtzionamendua.**

Bi urte horietako ahalegina izan da sarearen eraiketa eta heziketa ulertzeko eta praktikan jartzeko gure era desberdinei buruzko elkartrukeak eta eztabaidak hastea. Orain beste beharra sortzen zaigu: gure nortasuna zehaztea, beste nazioarteko plataformekin alderatuta, gure berezitasuna identifikatzea. 2002ko azaroan hasitako eztabaidan emankizun argigarriak atera ziren, eta Koordinazio Batzordearen (2003ko apiriletik abendura arte) beste eginkizun garrantzitsuen abiapuntua izango dira: gure nortasunaren eta egituraren eta funtzionamenduaren definizioa. Posta elektronikoen bidez emankizun ugari izan ditugu. Guzti horiek osatzen dute 2003ko otsailean Bruselan egindako bileran egungo koordinatzaileak —HEGOA— eztabaidarako aurkeztutako proposamena.



CIP eta BIMAESW sarearen identitatea eta estatutuei buruzko erkidezko eztabaida koordinatzen ari dira.

CITI-HABITAT, ETAPAS, HEGOA eta PRODESSA Sarearen egitura eta funtzionamenduari buruzko eztabaida dinamizatzeko ardura-dunak izango dira.

### Nortasuna.

POLYGONeren berezitasunaren definizioa ezinbestekoa da berbaldi teorikoa eta erkidezko kokapen politikoa sortzeko. CIP eta BIMAESWek estatutuen zirriborroa idatziko dute, eta sareko erakunde guztien artean eztabaidatuko da. Horren ostean une horretan dauden erakundeek onartu beharko dute. Gure aurkezpen-gutuna izango litzateke beste erakunde, plataforma eta instituzioen aurrean, eta etorkizunean sarean sartuko ziren erakundeek onartu beharko zuten.

Orain arte egindako eztabaidan honelako helburuak zehaztu dira:


- Politika publikoetan eragina lokala eta globala izan.
- Gure hezkuntza praktiken arteko etengabeko elkarriketa bultzatu. (Garapenerako hezkuntza eta Herri-hezkuntza).
- Erkidezko proposamen pedagogikoa taldean sortu, gizartearen mobilizatorako.
- Garapenerako eredu alternatibo eta anitzaren erkidezko ikuspegi Hegoa eta Iparra modu bidezkoan kontuan hartu.

### Egitura eta funtzionamendua

Sarearen partaide batzuen proposamenak kontuan izanda, Koordinazio Batzordeak osatzen duten zortzi erakundeek oinarri hauek hartu dituzte gure sarean funtzionatzeko eta lana antolatzeko:

- Deszentralizazioa.
- Demokratizazioa.
- Erkidezko erantzukizuna.
- Erregionalizazioa.

Egitura, eginkizunak eta funtzionatzeko moduei buruzko hasitako eztabaidan, bi eredu hauek sortzen dira:



Lurralde ereduaren, Koordinazio Batzordea lurralde bakoitzeko bat edo bi erakunde osatutakoa izango litzateke. Lau edo bost lurraldeak izango lirateke, Amerika osotasunean hartzen den edo lurraldeetan banatzen den (erdialdekoa eta hegoaldekoa) arabera. Lurralde bakoitzean bat edo bi erakunde bertako sareko erakundeak koordinatzeko eta dinamizatzeko ardura hartuko lukete. Lurralde bakoitzean bertako proiektuak egin daitezke, dirulaguntzaz eta koordinaketaz tokian tokiko sarea arduratzen bada. Erkidezko erantzukizunaren oinarriak zera dakar: nazioarteko sareko erakunde guztiek sareari bitzita emateko jardun beharko dute. Jarduera eta proiektu guztiak sozializatu egingo dira beste sareko erakundeekin, Koordinaketa Batzordea medio, edo dagoeneko dauden baliabide merkeen bidez, weborria edo posta bezala. Erakunde bakoitzaren erantzukizuna da bere tokian tokiko sarearekin bere jarduerak eta berriak sozializatzea.


Koordinaketa Batzordearen eginkizun nagusia da nazioarteko sarearen eta tokian tokiko sareen komunikazioa eta jarduerak laguntzea. Aldi berean, sare osoa inplikatzeko proiektu globalak

(topaketak, argitalpenak, kanpainak...) martxan jartzeko ardura-duna da. Sareko erakunde guztiek gure lana bideratzeko proiektuak eta jarduerak proposatu ditzakete.

Eredu horretan, egitura definitzeko irizpidea ez da izango lurraldetasuna, baizik eta gaia, eta bera da ezberdintasun nagusia. Beraz, batzordeak gai zehatza landu nahi duten erakundeek osatuko lituzke —adibidez, heziketaren merkantilizazioa, heziketa eta partehartzea, sistematizazioa...—. Modu horretan, batzorde batean lurralde ezberdinetako erakundeak egon zitezkeen. (esaterako, Afrika lusofonoa eta Brasilen arteko heziketa eta erki-dezko garapenari buruzko taldea sortzeko proposamen bat

heldu da). Koordinazio Batzordean talde tematiko guztiak ordezkatuta izango lirateke.

Gure sarearen nortasunaren definizioa eta funtzionatzeko moduaren aukeraketa (gure ezaugarriak eta interesak kontuan izanda) ezinbesteko eginkizunak dira, eta oso garrantzitsua izango da POLYGONEko erakunde guztiek denbora eta ahalegina bertan dedikatzea. Talde eztabaida sortzeko prozesua martxan jartzea lehen urratsa da nazioarteko heziketa-mugimendua sortzeko, bere lekua zehazten duen mugimendu bat alternatibak eraikitze-ko gaur egungo globalizazio ereduan.



The background features a faint, light gray world map. Overlaid on this are several large, abstract, brush-stroke-like shapes. A prominent blue shape is located in the upper right quadrant, and a gray shape is in the lower right. Another gray shape is on the left side, partially overlapping the text. The overall aesthetic is modern and graphic.

## 6. Erakunde partehartzaileak



## Afrika

### ACAPES

Association Culturelle d'Auto-Promotion Educative  
et Sociale

**Bougouma Diagne**

Parcelles Assaines U 20 – BP 3432

Dakar • **Sénégal**

Tlf. 00-221-835 10 66 / 221-835 78 77

Fax: 00-221-835 66 41 • [acapes@sentoo.sn](mailto:acapes@sentoo.sn)

Senegalen sortu zen, 1972an. Harrezkero, analfabetismoarekin, jakinezarekin, bazterketarekin eta pobreziaarekin amaitu nahirik, erakunde honek, bitarteko gisa, Garapenerako Hezkuntza eta Hezkuntza Globala erabiltzen ditu. Erakundearen bestelako egin-kizun bat elkartasunaren kultura eta hiritartasuna sustatzea da, gizarte mugimenduekin ekintzak eta hartuemanak ahalbidetuz. Ohiko hezkuntzaren alorretik kanpo egiten du lan. Lan metodoak partehartzaileak dira. Hitzaldi, debate eta abarrekoekin euren historiaren gaineko gogoeta egiteaz gainera, partehartze komunitarioa bultzatzen dute. Ekintzak adin guztietako bizilagunei bideratzen dizkiete, eta Dakar inguruko lurraldean, Thiésen, St Louisen, Ziguinchoren eta Tombacoundan gauzatzen dituzte gehienetan.

### ADRA

**Ação para o Desenvolvimento Rural e Ambiente**

***Fernando Augusto Pacheco dos Santos***

Caixa Postal 3788

Luanda • **Angola**

Tlf.: 00-2442-399312 / 396683 • Fax: 00-2442-396683

[adra-ang@ebonet.net](mailto:adra-ang@ebonet.net)

Angolan sortu zen, 1990ean. Garapenerako Hezkuntza lantzen du, demokrazia sustatu eta gizartearen adiskidetze eta bizikidetzak baketsua posible egitearen kariaz. Pobrezia eta bazterketa-aren aurka borroka egiteko, giza garapen sustengarria helburu dituzten proposamenak luzatzen dituzte. Partehartzea areagotu nahi dute eta, bidenabar, gizartearen ehundura trinkotu. Huila, Benguela, Huambo, Malanje, Luanda, Bengo eta Cunenen egiten dute lan gehienbat. Herri osoan zehar proiektuak eta harremanak dituzte. Sortzen ari diren Gobernu Kanpoko Erakundeak eta herrigune eta hiriguneetako talde marjinalak laguntzen dituzte. Hiru hilabetetan behin boletina argitaratzen dute, eta urtez urteko informeak eta hezkuntzarako materiala.

## AWATU

Association Wamama Tuungane

*Remy Mutungwa Bin Ngabo*

Via B.P 3729

Bujumbura II

Burundi - République Démocratique du Congo

Tlf.: 00-257-956 292 • [awatu2002@yahoo.fr](mailto:awatu2002@yahoo.fr)

1996an jaio zen Kongoko E.Dan. Garapenaren, Giza Eskubideen eta Bakearen Hezkuntza lantzen ditu. Emakume nahiz haurren eskubideak dibulgatzen ditu bereziki. AWATUk bizikidetza bul-tzatzen du Bemben, Gulirun, Viran eta Banyamulengen lekututa-ko kanpamentuetan. Bizikidetza baketsua eta gizartearen berra-diskidetzea errotu nahi ditu. Ohiko hezkuntzaren alorretik landa-ra egiten du lan, eta gatazkei irtenbidea emateko partehartzean oinarritutako bitartekoak darabiltza. Sud-Kivuko lurraldean eta Fizin eta Uviran lan egiten du.

## CAEDHU

Centre pour l'Éducation aux Droits Humaines

*Fatoumata Diadiou*

Sicap Liberte 4N

5022 Dakar • Sénégal

Tlf.: 00-221-825 28 78 • [caedhu@hotmail.com](mailto:caedhu@hotmail.com)

1996an Senegalen sortua. Orduz geroztik hezkuntza popularra landu eta giza eskubideen gaineko hezkuntza jorratzen du. Herritarrek euren eskubideen, giza eskubideen eta, bazterketa eta txirotasunari akabera emateko, partehartzearen garrantzia-ren jabe izatea lortu nahi dute. Emakume taldeekin, Gobernuz Kanpoko Erakundeekin eta Oinarriko taldeekin dabiltza elkarla-nean. Ohiko hezkuntzaren alorra atzean utzi eta partehartzea ahalbidetzen duten metodoak eta gatazkak konpontzeko balio-garriak direnak darabiltzate. Senegalen barrena egiten dute lan eta Afrikako beste hainbat herritan euren lanaren berri ematen dute. Dokumentazio gun bat daukate. Commission Africaine des droits de l'homme et des Peuples-en behatzaile gisa onartua dago.

## CBDIBA-ONG

Centre Béninois pour le Développement des Initiatives  
à la Base

*Patrice Lovesse*

BP; 256 Bohicon

**Benin**

Tlf.: 00-229- 51 04 85 / 229-51 10 96 • Fax: 00-229-51 07 33

[cbdiba@intnet.bj](mailto:cbdiba@intnet.bj)

Beninen jaio zen 1990ean. Ordutik Ikerketa Ekintza izeneko metodoaz baliatzen da Garapenerako Hezkuntza jorratzeko. Bizibide duina lortzeko, mikrokreditoak eta mikroenpresa proiektuak laguntzen dituzte. Alfabetizazio eta hezkuntza lanak burutzen dituzte bidenabar (garapena, ingurugiroa, osasuna eta Giza Eskubideak), gizaki eta komunitateen sustapena errazteko xedeaz. Emakume, nekazari eta herrisketako gazteen alde metatzen dituzte euren indarrak. Ohiko hezkuntzaren alorretik kanpo egiten dute lan, nahiz eta, inoiz, ikastetxe eta unibertsitateetan ibili-ibiltzen diren. Herri osoan ezarrita daude eta mugaz gaindiko proiektzioa daukate. Bi hilabeteetan behin nekazariei zuzendutako boletina argitaratzen dute, 'Glessizogbin'.

## CENTER FOR CONFLICT RESOLUTION

*Bulelwa Nobuzwe Ngewana*

C/o University of Cape Town

Private Bag

Rondebosch

7701 Cape Town • **South Africa**

Tlf.: 00-27-21-422 2512 • Fax: 00-27-21-422 2622

[bulelwam@ccr.uct.ac.za](mailto:bulelwam@ccr.uct.ac.za)

Gatazkak konpondu eta bakea erdiesteko lanean, hezkuntzaren alorra jorratzen dute. Hainbeste urtetan pairatu duten Apartheida eta zonaldeko indarkeria direla eta, erakunde honek bitartekaritza lanak, elkarrizketa eta gatazken irtenbide kolektiboak lagunduko dituzten pertsonak trebatzen ditu Hegoafrika, Zimbabwe, Malawi, Lesotho eta Burundin. Gaztediari erreparatzen diote bereziki, geroz eta gehiago ikastetxeetan lan egiten badute ere. Herri osoan ezarrita daude eta mugaz gaindiko proiektzioa daukate. Euren proposamenen eragina biderkatu dadin formatzaileak trebatzen dituzte. Partehartzean oinarritutako metodoak erabiltzen dituzte, hala dramatizazioak nola rol-jokuak. Materiale pedagogikoa landu eta banatzen dute. Hezkuntza tailerretan erabilgarriak diren liburu, argazki eta kartelak egiten dituzte.

## CITI-HABITAT

Centro de Investigaçã e Tecnologia Intermediária  
para o Habitat

*Ramiro Azevedo • Elisio Rodrigues*

C.P. 132-C. Ponta d'Água

Praia • Cabo Verde

Tlf: 00-238-64 23 47/ 64 36 71/ 64 48 02

Fax: 00-238-64 40 25

[citihabitat@mail.cvtelecon.cv](mailto:citihabitat@mail.cvtelecon.cv)

Cabo Verden sortu zen 1988an. Garapenaren eta Hiritartasunaren Hezkuntza jorratzen dute, Paulo Freireren kontzientziario metodoa dela bide (Hezkuntza Popularra). Formakuntza, alfabetizazioa, komunitatearen garapena, bizitza baldintzen hobekuntza, ingurugiroarena, eta hiri edo herrietako periferian bazterturik bizi diren taldeen partehartzearen sustapena dira euren helburuak. Helduen hezkuntza, nekazarien garapena, mikrokreditoak, saneamendua eta ingurugiroaren garrantzia azpimarratzen dute euren jardunean. Komunitatearekin batera aritzen dira arazo kulturalak, ingurugiroari dagozkionak edota produkzioarenak konpondu eta demokrazia partehartzaileari bide emateko. Ohiko hezkuntzaren alorretik kanpo egiten dute lan batipat: pobreak, helduak, gazteak eta emakume kolektiboak. Herri osoan ezarrita daude eta mugaz gaindiko proiektzioa daukate.

## Amerika

### CEP- ALFORJA

Centro de Estudios y Publicaciones Alforja

*María Cecilia Díaz Soucy*

Apartado 369-1000

San José • Costa Rica

Tlf: 00-506 – 2806540 • Fax ; 00-506 – 2537023

[cep@alforja.or.cr](mailto:cep@alforja.or.cr)

[www.alforja.or.cr/centros/cep](http://www.alforja.or.cr/centros/cep)

Costa Rican eratu zen 1982an. Hezkuntza Popularra du ardatz, kultura politiko berri baten bidez herritarrek gizartearen aldaketa positiboa eragin dezaten, euren familian, komunitatean, sarterrian edota atzerrian. Emakume kolektiboak, herrietako komunitateak, bazterturiko sektoreak, indijenak eta abarrekoak sartzen dira euren jomugan. Lan metodoak Hezkuntza Popularrean eta Ekintza Partehartzailearen Ikerketan (IAP) oinarrituta daude. Pentsakerak sistematizatuz, herritarren partehartzea eta emakumeen kolektiboak trinkotuarazi nahi dituzte, beharren gaineko diagnostiko hobeak egin eta garapen komunitarioaren ekintza eta estrategien programaketa egokiagoak burutzeko. Costa Rican ezarrita daude (Puntarenas, Alajuela eta San José), eta nazioarteko proiektzioa ere badute Nikaraguan, El Salvadorren, Guatemalan eta Hondurasen.



## CEASPA

Centro de Estudios y Acción Social Panameño

*Jesús Alemanca*

Via Cincuentenario # 84

Coco del Mar

San Francisco • Panamá

Tlf.: 00-507-226 / 6602 / 4529 / 6783 / 6799

Fax: 00-507-226-5320

[ceaspa@cwpanama.net](mailto:ceaspa@cwpanama.net)

Panaman sortu zen 1977an, gizarte zientzietako zenbait profesionalek eta apaiz jesuitek bultzatuta. Pobreei eta baztertuei helarazi nahi diete euren laguntza. Panaman bertan eta honen inguruko herrietan gizarte-aldaketak proposatzen dituzte, mundu hobe baten bila. Gizarte zibilaren partehartze demokratiko nahiz antolatua azkartu nahi dute, gobernuak txiroen bizitza kalitatea hobe ditzakeen neurriak har ditzan. Horrexegatik partehartzea, garapen sustengarria, hobekuntza ekonomikoak, teknikoak, produktiboak eta administratiboak sustatzen ditu, genero ikuspuntua, hezkuntza eta osasuna aintzat hartuz. Bi alderdi metodologikoetan, Hezkuntza Popularrean eta Ekintza Ikerketan, oinarritzen dira. Ez dute ohiko hezkuntza alorra hobesten eta emakume kolektiboak, nekazariak, indijanak, tokian tokiko buruzagiak, udal teknikoak eta talde ekologistak laguntzen dituzte. Proiektio nazionala, internazionala eta tokian tokikoa dute. Argitalpen pedagogikoak prestatzen dituzte, gizarte ikerketak, gai monografikoak.

## ETAPAS

Equipe Técnica de Assessoria, Pesquisa e Ação Social

*Waneska Millena Ferreira do Bonfim*

*Marcelo Olimpio dos Santos*

*Neide Silva*

Rua da Soledade, 243/249

Boa Vista

Recife • Brasil

Tlf./ Fax: 00-55-81-32310745

[etapas@terra.com.br](mailto:etapas@terra.com.br) / [nmsilva@elogica.com.br](mailto:nmsilva@elogica.com.br)

Brasilen sortu zen 1982an. Auzo txiroetako bizilagunak kontzientziatu nahi ditu, udal eginkizunetan auzoaren eta hiriaren kudeaketan parte har dezaten. Lan ildoak honakoak dira: praktika sozialerako eta enplegurako formakuntza; tokian tokiko garapena eta kudeaketaren demokratizazioa; kudeaketa publikoaren kontrol soziala. Auzo baztertuetan dihardute, emakume, gazte eta buruzagi komunitarioekin batera. Multiplikatzailerekin, Gobernu Kanpoko Erakundeekin, Erakunde Publikoekin eta gizarte mugimenduekin egiten dute lan baita ere. Hezkuntza Popularra eta Ekintza Partehartzailearen Ikerketa ohiko hezkuntza alorretik at burutzen dute. Recife hirian (1.400.000 biztanle) mamitzen da euren egitekoa, oinarrizko zerbitzurik gabeko, kriminalitate handiko eta hezkuntzarik gabeko ZEIS (Interesa Sozialeko Gune Bereziak) zonaldeetan. Brasilgo zenbait sareekin bat egiten du, hala nola Partehartze Popularreko Forum Nazionalarekin, garapen sustengarrirako DLIS sarearekin, e.a. Euren programekin honako esparruak biltzen dituzte: Gazteen Trebakuntza (artisaularan, informatika, minienpresen kudeaketa, hiritartasuna), multiplikatzailen sozialen trebakuntza, Ekonomia Popularrari laguntza, Aurrekontu Partehartzaileei bultzad.

## SOF

### Sempreviva Organização Feminista

*Nalu Faria Silva*

Rua Ministro Costa e Silva, 36

Pinheiros

Sao Paulo / SP

Cep; 05417-080 • Brasil

Tlf./ Fax: 00-55-11-3819 / 3876

sof@sof.org.br • www.sof.org.br

Brasilen sortu zen 1963an. Bere egitekoa hiru zutabe hauetan oinarrituta dago: Gizarte Mugimendua, feminismoa eta eraldaketa soziala. Oinarrian sortutako hegemoniaren aurkako diskurtsoaren ildotik, genero berdintasuna eta justizia soziala eskuratu nahi dute, emakumeen partehartze aktiboaren bidez. Genero ikuspuntua formakuntzari eta trebakuntzari atxikitzen diote, aktore eta mugimendu sozialak egituratuz, debate feministetan ideiak zabalduz eta hauetan parte hartuz, politika publikoetan eragina bilatuz eta proposatutako programetan ikuspuntu eta metodologia feministak berenganatuz. Paulo Freireren Hezkuntza Popularra, konstruktibismoa eta psikologia sozialeko metodoak jarraitzen dituzte. Maizetan sikodrama erabiltzen dute, eta ohiko hezkuntzatik kanpo aritzen dira. Herri Mugimenduko emakumeak, beltzen mugimenduak, hirietako eta herrietako sindikatuak eta Gobernu Kanpoko Erakundeak, besteak beste, laguntzen dituzte. Emakumea eta Osasuna boletina argitaratzen dute eta 'Sempreviva' koadernoak. Euren herrian, erregioan eta nazioartean egiten dute lan.

## FUNPROCOOP

### Fundación Promotora de Cooperativas

*Anna Katharina Bickel*

Colonia Flor Blanca

12 Calle Pte. Nº 2422

San Salvador • El Salvador CA

Tlf.: 00-503 / 223-0453 / 298-3445 • Fax: 00-503-224-9025

fpc@sal.gbm.net / vallabik@cyt.net

El Salvadorren sortu zen 1968an. Beren helburuak, hauexek: nekazarien kooperatibak eta komunitateen garapen sustengarria sendotzea, hezkuntza popularraren bidez nekazarien elkarteak indartzea, erabateko laguntza tekniko ematea, politikan esku hartzea eta erresistentziatzko nekazaritza sustatzea. Formala ez den hezkuntzaren barnean dihardute, eta partehartzea ahalbidetzen duten teknikak, sistematizazioa, boterea, kultura eta nortasunaren berri ematen dute. FUNPROCOOPek gizaki eta erakunde popularrei formakuntza proiektuak eskaintzen dizkie, partehartzea, garapen komunitarioa eta herri eta nazio mailako kultura politikoa sustatzen dituelarik. ALFORJA sare regionalarekin bat egiten du, eta El Salvador eta Erdialdeko Amerikako nekazarien komunitateen partehartzea posible egitea du helburu.

## LAS DIGNAS

Asociación de Mujeres por la Dignidad y la Vida

*Irma Patricia Iraheta Cruz*

Col. Satélite

Avenida Vernal casa número 16

San Salvador • El Salvador

Tlf.: 00-503-25 89 44 • Fax: 00-503-226 18 79

[dignas.direccion@integra.com.sv](mailto:dignas.direccion@integra.com.sv) • [www.lasdignas.org.sv](http://www.lasdignas.org.sv)

El Salvadorren osatu zen 1990an. Hezkuntzan, lanean, alor sozio-ekonomikoan, kudeaketa eta partehartze komunitarioan, lege-gintzan, justizian eta partehartze politikoan emakume eta gizonezkoen arteko aukera berdintasuna sustatzea dute xede. Formakuntzarekin, ikerketekin, nazioarteko foroan jarraipenarekin, salaketekin eta proposamen alternatiboekin, Las Dignas taldeko kideek sexismoari, matxismoari, emakumeen bazterketari, gizarte androzentrikoari aurre egin nahi diete. Horretarako, formakuntza eta erantzunkizunak ematen dizkiete emakume kolektiboek, beren buruaz duten iritzia sendotzeko alegia. Ikastetxeetan, unibertsitateetan, parroketan, sindikatuetan, emakumeen erakundeetan eta justizia administrazioan eragina izan nahi dute. Hasieran Hezkuntza Popularreko metodoari ekin zioten, alfabetizazioa eta helduen hezkuntzari zegokienean (1994), eta ostean hezitzaileen formakuntzari heldu zioten, bes-telako alorretara ailegatu eta, genero ikuspuntua aintzat hartuta, gizarte aldaketa eragin dezakeen trebakuntza zabaltzeko borondate politikoarekin (1999). Euren herrian ezarrita egoteaz gainera, eragin regionala eta nazioarteko proiektzioa badute.

## INFANT

*Esther Genara Díaz Gonzáles*

Enrique del Villar Nº 967

Zona “D”

Sanjuán de Miraflores

Lima • Perú

Tlf.: 00-51-450-8376 • Fax: 00-51-450-2707

[infant@terra.com.pe](mailto:infant@terra.com.pe)

Perun sortu zen 1999an. Lanean dabiltzan haurrak eta nerabeak trebatu nahi dituzte, euren eskubideak, behar sozialak eta bizi-rauteari lotuta dauden alderdiak kontutan hartuta. Horrela, euren buruak kolektibo gisa hartu eta Peruko gizartean zeresanik izan dezatela lortu nahi da. Formakuntza iraunkorra eskaini asmo dute, gizarteratzeko zirrikituak, maitasuna eta autoestima, talde konzientzia eta erabaki kolektiboen sustapena. 7 eta 18 urte bitarteko haur eta langile nerabeen artean ehuneko 60 emakumeak dira eta, atzerapen akademikoak izanagatik ere, guztiak eskolarizatu gai dira. Ohiko hezkuntza bazter uzten dute. Gai hauexek jorratzen dituzte: giza eskubideak, autoestima, sexualitate, indarkeria, lana, oratoria, arteak, e.a. Herriko zonalde ezberdinetan kokatuta daude: Hegoaldean, Iparraldean, Erdialdeko Mendizerran, Kostaldean, Erdikaldean eta Mendebaldean.

## PAN

Centro para la Infancia Vida: Proyecto de Apoyo a los Niños

*Roberto Cervantes Rivera*

La Cantuna A 13

Arequipa • Perú

Tlf.: 00-51-400180 • [centrovida@hotmail.com](mailto:centrovida@hotmail.com)

Hezitzaile Elkarte honek 1994tik haur eta gazteei bideratutako programa integralak garatzen ditu. Haurren lanaren balorazio kritiko batetik abiatuta, haurren duintasuna berreskuratu nahi dute, komunitate baten partaide, bazterketarik gabeko gizarte baten partaide, sentitu daitezen. Peruk pairatzen duen pobrezia egoeraren aurrean, haurren lana produkzio eta birprodukzio sozialaren ondorio da. Zentzu honetan, helburua antolakuntza, formakuntza eta partehartze prozesuak laguntzea da, lanean dabiltzan haurrak, beste aktoreekin batera, euren historiaren jabe sentitu daitezen.

## JOC - PARAGUAY

Juventud Obrera Cristiana de Paraguay

*Javier Arévalos Morel*

Nanduti N° 4080 C/ Chipira

Asunción • Paraguay

Tlf./Fax: 00-595-21-525502 • [joc@sce.cnc.una.py](mailto:joc@sce.cnc.una.py)

Paraguayen sortu zen 1941ean, baina Stroessnerren diktadurak bertan behera utzi zuen harik eta 1989an berriz martxan jarri zuten arte. Sektore popularreko gazte eta, gehienbat, langileen trebakuntza integrala bilatzen du, partehartzea sustatu eta aldaketa soziala eragiteko. Paulo Freireren Hezkuntza Popularreko premisak jarraitzen ditu. Aipaturiko gizarte lanek lan-trebakuntza, animatzaile komunitarioen trebakuntza, kooperatiben bul-tzada eta Guaranitarren kulturaren sustapena bilatzen dituzte. Ohiko hezkuntzaren esparrutik kanpo lan egiten dute, hiri inguruko eta herrietako gazteekin.

## SERPaj-PY

Servicio Paz Y Justicia Paraguay

*Catalina Servín Portillo*

Montevideo 1322 c/ Lugano

Asunción • Paraguay

Tlf.: 00-595-445125 • [serpaj@conexión.com.py](mailto:serpaj@conexión.com.py)

1990ean sortu zen, Paraguayan. Bakearen alde lan egiten dute, gizartean dauden bidegabekeriaren kontra eta giza eskubideen errespetuan oinarritutako bizikidetzaren alde. Hezkuntza Popularra eta Ekintza Partehartzailearen lkerketa jorratzen dute, ohiko hezkuntza alorretik at, elkarte, komunitate, gizarte mugimendu eta gaztediarekin. Heldu, emakume eta gazteekin batera dabilta lanean. Elkarrizketa proposatzen dute, gatazken irtenbide baketsua eta gizartearen desmilitarizazioa. Dokumentazio-gune bat daukate. Hasieran Asuncionen egiten zuten lan, hiriburuan, eta orain barnealdeko beste zonaldeetara hedatzen ari dira.

## PRODESSA

Proyecto de Desarrollo Santiago

*José Guillermo Barrios Villatoro*

*Flor de Maria Alvarez Medrano*

*Borja Doval*

Km 15 calzada Roosevelt zona 7

Mixco, Interior Instituto Indígena Santiago • Guatemala

Tlf: 00-502-4354802 • Fax: 00-502-4353913

[serveduc@intelnet.net.gt](mailto:serveduc@intelnet.net.gt) • [prodessa@terra.es](mailto:prodessa@terra.es)

Guatemalan sortu zen 1989an eta Espainian, 2001garren urtetik berezko egoitza du. Kriolloek eta ladinoek indijenak baztertzen dituzten gizarte multikulturalaren barruan, Mayen komunitatearen alde lan egiten dute, hirietan nahiz herrietan. Garapen komunitarioa bultzatu nahi dute, bizitza kalitatea hobetu eta partehartze aktiboa sustatuz. Euren printzipioak Hezkuntza Popularrean oinarrituta daude. Hezkuntza formalean eta ohiko hezkuntzatik kanpo egiten dute lan. Mayen kultura eta komunitateak indarberritu nahi dituzte, bai eta genero berdintasuna, antolakuntza eta ekoizpen komunitarioa ere. Eragin nazionala daukate eta mugaz gaindiko proiektzioa.

## Red de Apoyo por la Justicia y la Paz

### *Pablo Eugenio Fernández Blanco*

Parque Central, Apartado postal 17.476

Código Postal 1015-A

Caracas • Venezuela

Tlf.: 00-58-212- 5741949 • Fax: 00-58-212- 5748005

[redapoyo@cantv.net](mailto:redapoyo@cantv.net)

1985ean sortu zuten, Venezuelan. Justizia eta Giza Eskubideen aldeko borroka egiten dute, hezkuntza eta gizartearen parte-hartzea bultzatuz, erakundeenganako eragina bilatuz, inpunitatea galeratzeko salaketak eginez eta gizaki eta kolektibo ahulen oinarritzko eskubideak zabalduz. Euren lan-metodoa Paulo Freireren Hezkuntza Popularraren gisakoa da (elkarrizketa, parte-hartzea, joku kooperatiboak, kontzientizazioa, analisi kritiko). Justiziaren alorrean, osasun fisiko eta sikikoarenean eta Giza Eskubideen aldeko ekimen politikoen sustapenean borrokatzen dute. Talde askorekin aritzen dira: irakasleak, sustatzaile komunitarioak, ikasleak, bortxakeriaren eta indarkeriaren biktimak, polizia funtzionariak. Hezkuntza eta Giza Eskubideen defentsa eta sustapenaren inguruan, argitalpen ugari karrikaratu dituzte. Herri osoan ezarrita daude eta maila nazionalen zeresanik badute.

## SCC

### Servicio Colombiano de Comunicación

#### *Jairo Muñoz Muñoz*

Cra.16 N° 39 A - 78

Barrio Teusaquillo

Bogotá • Colombia

Tlf.: 00-57-1-3203900 • Fax 00-57-1-2881581

[scc@colnodo.apc.org](mailto:scc@colnodo.apc.org)

Kolonbian sortu zen 1972an, eta 1988an indarberritu zuten. Gizakiek eta gizarteko taldeek gaitasun guztiak garatu ditzatela nahi dute, eta, baita ere, bizimodua hobetu eta demokrazia parte-hartzailearen bitartez gizarte zibila azkartu dadila eta etnia, kultura, sexu, politika edota erlijio arrazoigatik inor baztertuta ez geratzea bilatzen dute; bide horretan baldintza aproposenak sortzen ahalegintzen dira. Hezkuntza Popularretik edaten dute, kontzientizazioa eta konpromiso parte-hartzailea pizten baititu. Orokorrean, hiru urteko proiektuak burutzen dituzte. Generoren kuestioan indarra jartzen dute, eta tokian tokiko nahiz nazio osoko emakume kolektiboek sorrera laguntzen dute. Hezitzaile popularrak trebatzeko programak badituzte. Komunikazio pertsonalei, komunitarioei eta komunikabideenei arreta berezia eskaintzen diete. Emakume taldeekin, sindikatuekin eta gazteekin egiten dute lan gehienbat. Herri osoan sakabanatuta daude eta egoitza Bogotan daukate. Barranquillan, Cartagenan, Kalin, Yumbon, Palmiran, Buenaventuran, Bogota Cundimarcan, Santanderren eta Nariñon aritzen dira.

## Universidad Nur

*Boris Vladimir Urquizo Rodríguez*

Av. Cristo Redentor # 100

Santa Cruz • **Bolivia**

Tlf./Fax: 00-591-3-376076

[dpid@nur.edu](mailto:dpid@nur.edu) • [www.nur.edu](http://www.nur.edu) • [www.gntparticipa.org](http://www.gntparticipa.org)

Unibertsitateak 1982an ekin zion lanari. Helburu nagusitzat hezkuntza prozesuaren baitan giza garapena laguntzea dute, mundua bidezkoagoa, baketsuagoa eta orekatuagoa izateko baldintza egokienak sortu nahirik. Metodologia partehartzaileetan oinarritzen da, mentalitate aldaketa ekarriko duen kontzientzia kritikoa eraikuntzan alegia. Hezkuntza alor formalean eta ez-ohikoan egiten du lan. Helduekin, gazteekin, profesionalekin, teknikoekin, administratiboekin, herriko buruzagiekin, nekazariekin, herrietako irakasleekin eta buruzagi komunitarioekin batera aritzen dira. Herri osoan ezarrita daude eta unibertsitateen arteko kooperazio programei esker Italia, Erresuma Batuak, Argentina eta Dominika Errepublikako unibertsitateekin hartuemanak dauzkate.

## Asia

### ACPC

**Asian Council for People's Culture**

*Alfredo R. Santos*

13 Madre Selva St.

Roxas District

Quezon City 1103 • **Philippines**

Tlf.: 00-63-2-373 4932 • Fax: 00-63-2-412 1954

[acpc@acpc.ph](mailto:acpc@acpc.ph) • [www.acpc.ph](http://www.acpc.ph)

Filipinetan sortu zen 1985ean. Harezkerok hezitzaileen, bitartekari kulturalen eta irakasleen formakuntzan dihardu. Komunitateen garapena suspertu nahi dute, proposamenak kultur sustraiekin eta komunitate bakoitzaren beharrek inplantatzen dituztelarik. Hezkuntzan erabiltzen dituzten metodoek partehartzeari garrantzi handia ematen diote -Hezkuntza Popularraren ildotik, lan metodoak eguneroko bizitzan eta jendearen esperientzian oinarrituta daude-, eta euren xedea kontzientziak piztea eta komunitateak euren boterearen jabe egitea da. Lanaren muina kuestio kulturala da. Komunitate indijenekin eta, bereziki, komunitatearen barruan kargodunak direnekin aritzen dira. Hezitzaile sareak herri mailan sustraiturik daude (indijenen hezkuntza), Asia-Pazifiko erregioan (Asian Cultural Action), eta Filipinetan, Tailandian, Kanboyan, Laos eta Vietnamen formakuntza ikastaroak ematen dituzte.

## BIMAESW - BENIH MATAHARI

*Maria Mumpuni*

*Ni Ketut Sekar Santi IP*

JL. Semolowaru Selatan III/nº 9

Surabaya 60119

East Java • **Indonesia**

Tlf./Fax: 00-62-031-8713481

**bimaesw@indo.net.id**

Indonesian sortu zen 2000. urtean, lanari 1998an ekin bazioten ere. Euren lan metodoa Ikerketa-Ekintza deritzona da, ikaskuntza kritikoa eta partehartzea bultzatzen duena (Hezkuntza Popularra). Euren egitekoa, herri edota hiriko haur eta helduen hezkuntzan zeregin garrantzitsua duten hezitzaileak trebatzean datza. Lanaren ardatza kuestio kulturala da, eta tokian tokiko komunitateen garapen partehartzeareari, garapen nazionalari eta globalari atxikitutako erreferentzi testuinguru bat ematen zaie hezitzaileei. Euren eragiña Surabayan eta Java Ekialdean eta Mendebaldean nabarmentzen da. Holanda, Kanada, India, Hong-Kong, Tailandia eta Zinbabweko hezitzaileekin lan egiten dute.

## SLS. CAED

School of Learning And Society. Centre for Agro-Ecology and Development

*Devendra R Adhikari*

Post Box 4555

Kathmandú • **Nepal**

Tlf.: 00-977-1-473 675 • **seacow@healthnet.org.np**

Nepalen sortu zen 1992an. Ordutik Hezkuntza Guztiontzat leloa berea egin du, gizaki ororen eskubidea baita. Berrikuntza metodologiko eta pedagogikoak darabiltza, debateen bidezko hezkuntza partehartzaileari eta Ikerketa-Ekintza edota Reflect Action metodoei helduta. Gizaki guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea daukate, eta erakunde honek eskoletan eta eskoletatik kanpo eskaintzen du formakuntza. Baztertuekin, herrietako oinarriko taldeekin, eskoletako zuzendaritzekin, pertsonaia eraginkorrekin eta hezkuntza arloan iritzia sortzeko ahalmena dutenekin lan egiten du. Bidenabar, ingurugiroa eta bizirauteko beharrezkoa den nekazal ekoizpenaren gaineko programak badituzte. Ikastaroak, tailerrak eta debate-foroak antolatzen ditu. Eragin nazionala eta mugaz gaindiko proiektzioa dauka.



## INDP

Intercultural Network for Development and Peace

*B. Augustin Jayakumar*

Post Box No. 207

Pondicherry 605 001 • India

Tlf./Fax: 00-91-222 05 37 • [indp@vsnl.com](mailto:indp@vsnl.com)

India Hegoaldean sortu zen, Tamil Nadu Estatuan, 1999an. Frantzia adar bat dauka, Garapenerako Hezkuntza, kooperazioa eta elkartasunaren sustapena bultzatzen dituena. Bazterketari eta pobrezia aurre egiteko, eta tokian tokiko garapena lortzeko, Hezkuntza Popularra darabil. Lan metodoa Ikerketa-Ekintza izenekoa da. Daliteko emakume eta komunitateekin batera egiten dute lan; hots, Indiako kasten sistemaren barruan 'ukiezinak' direnekin. Norberak bere buruaz duen iritzia hobetu nahi dute, kontzientizatzearen beharra haienganatu nahi dute ere eta, India eta Munduko biztanleak diren neurrian, eskubideen aldarrikapena herritarrak bere egitea lortu nahi dute. Garapena, arrazakeria, generoa eta kultura dira gehien aztertzen dituzten gaiak. India Hegoaldeko lau estatuetan barna zabaldua daude (Pondicherry, Tamil Nadu...). Ikerketak egiten dituzte, ikasgai pedagogikoak ere bai, eta Garapena eta Hezkuntza Popularrari buruzko erakusketak.

## Europa

ACSUR-Las Segovias

Asociación de Cooperación con el Sur Las Segovias

*Concepción García Herrera*

C/Cedaceros, 9-3<sup>o</sup> Izda

28014 Madrid • España

Tlf.: 00-34-91 429 16 61 • Fax: 00-34-91 429 15 93

[educacion@acsur.org](mailto:educacion@acsur.org) • [www.acsur.org](http://www.acsur.org)

Espanian sortu zen 1986an. ACSUR Las Segovias erakundearen helburua Hegoaldeko herriekin elkartasuna bultzatzea da, kooperazio proiektu eta programekin, laguntza humanitarioarekin eta sentsibilizazio programekin. Azken hauek Iparralde aberatsean gauzatzen diren aktibitateak dira; informazioa eskaintzen dute, formakuntza, erakundeengan eragina izaten ahalegintzen dira, eta Ipar eta Hegoaldearen artean ematen den aberastasunaren banaketa bidegabea salatzen dute kontzientziak ziztatu eta berdintasunean eraikitako hartuemanak ezartzearen. Garapenerako Hezkuntzaren ikuspuntutik abiatuta formakuntza, sentsibilizazioa eta salaketak burutzen dituzte. Ohiko hezkuntzaren alorrean -unibertsitate, eskola eta institutuetan- eta ez ohikoan -herritarrekin, GKEekin eta gaztediarekin- egiten dute lan. Estatu Espainoleko zenbait lurraldeetan hedatua dago. Nazioartean aurrera ateratzen dituzten proiektuak Latinoamerikaruntz bideratuta daude batipat, nahiz eta, azken boladan, Palestina, Magrep, Filipinak eta Vietnamekin harremanak sendotzen ari badira ere.

## CIP

Centro de Investigación para la Paz

*Manuela Mesa* • *Nieves Zúñiga*

Duque de Sesto 40

28009 Madrid • España

Tlf.: 00-34-91 576 32 99 • Fax: 00-34-91 577 47 26

[educa@fuhem.es](mailto:educa@fuhem.es) • [manuelamesap@terra.es](mailto:manuelamesap@terra.es)

[www.cip.fuhem.es](http://www.cip.fuhem.es)

Espainian sortu zen 1984ean. Langilearen Etxea Fundazioarenpean dago. Nazioarteko gatazken analisiak egiten dituzte, bai nazioartean eta bai euren herrietan giza eskubideak, kultura artekotasuna eta garapena kontuan eukiko dituen elkartasuna bultzatzeko. Garapenerako Hezkuntzaren bidea segitzen dute. Gatazkei irtenbidea emateko ikuspuntu globalak darabiltzate, aztertzen dituzten fenomenoak hobere deskribatu eta ulertzeko. Ohiko hezkuntzan eta bestelakoan aritzen dira. Hezitzaileekin, irakasleekin, GKEekin, unibertsitatearekin, dokumentazio guneekin, kazetariarekin, politikoeekin eta herritar xumeekin harremana daukate. Madrilen dokumentazio eta ikerketa zentrua daukate, baina gatazken inguruan burutzen dituzten ikerketa eta argitalpenek, bai eta sensibilizazio eta hezkuntza proiektuek ere, nazioarteko proiektzioa daukate.

## HEGOA

Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari  
Buruzko Ikasketa Institutoa

*Miguel Argibay* • *Gema Celorio*

Nieves Cano, 33

01006 Vitoria-Gasteiz

Pais Vasco • España

Tlf.: 00-34-945 014287

[hegoa@vc.ehu.es](mailto:hegoa@vc.ehu.es) • [www.ehu.es/hegoa](http://www.ehu.es/hegoa)

Bilbon, Euskalherrian, sortu zen 1987an. Egungo eredu hegemonikoaren aurrean, gizakien garapenaren aldeko apostua egiten dute, edota, bestela esanda, garapenaren, sensibilizazioaren eta Hegoaldea eta Iparraldearen arteko ezberdintasunen gainean debatitu eta hauen ezagutza areagotzea lortu nahi dute, gure gizarteak beste herrieekin erakusten duen elkartasuna aditzera emanaz. Hezkuntzaren atalean Hegoak, ardatz gisa, Garapenerako Hezkuntzaren ikuspuntua hartzen du, eta Garapena eta Kooperazioari buruzko Dokumentazio Gune bat dauka eta Baliabide Pedagogikoetako Zentru espezializatua. Hegoak formakuntza, dokumentazioa, kudeaketa eta azterketa eskaintzen ditu. Ohiko hezkuntza alorrean, eta alor formalean, lan egiten du. Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak, unibertsitatea, GKEetako formatzaile eta hezitzaileak, Mugimendu Sozialak, kooperatzaileak eta Garapen eta Kooperaziorako erakundeak dira Hegoaren jomuga. Bilbon eta Gasteizen (Euskalherria) egoitzak dituzte. Euskalherrian, Estatu Espainolean eta nazioartean, Europako Batasuneko erakunde eta unibertsitateekin dituen harremanak direla eta, finkatuta daude.

## CIDAC

Centro de Informação e Documentação Amílcar Cabral

*Mário Furtado*

Rua Pinheiro Chagas 77, 2<sup>o</sup> Esq

1069-069 Lisboa • Portugal

Tlf.: 00-351-21-317 28 60 • Fax: 00-351-21- 317 28 70

cidac@cidac.pt / mgfurtado@netcabo.pt • www.cidac.pt

Portugalen sortu zen 1973an. Hiritartasuna errotzea nahi dute, gizarte zibilari informazioa eskainiz eta garapena, giza eskubideak, demokrazia eta herrien arteko elkartasunari dagokienean, herritarrek erantzukizunez joka dezatela bilatuz. Portugesez mintzo diren Afrika, Asia eta Amerikako zenbait herritan proiektuak dituzte. Garapenerako Hezkuntzaren alorrean, kooperatzaileak trebatzen ditu, sentsibilizazioa lantzen du eta Portugaleko Gobernu Kanpoko beste erakundeei hezkuntza programak luzatzen dizkie. Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako irakasleekin lan egiten dute. Kooperazio eta Ipar eta Hegoaldearen arteko hartue-manak ikasgai dituen Dokumentazio Gune bat daukate. Egoitza Lisboan dago, eta Portugalen eragina izateaz gainera mugaz gaindiko proiektzioa dauka kooperazio proiektuak direla eta.

## CISP

Comité Internacional para el Desarrollo de los Pueblos

*Marinella Fasanella*

Via Germanico 198

00192 Roma • Italia

Tlf.: 00-39-6-3215498 • Fax: 00-39-6-3216163

master@cisp-ngo.org • www.cisp-ngo.org

Italian sortu zen 1982an. Helburu nagusiak, honakoak: kooperazio proiektu eta programak eta laguntza humanitarioa. Lan haue-tan jokabide kode zorrotza jarraitzen dute, zeinean baldintzarik garrantzitsuena emaile eta hartzaileen arteko partehartze oreka-tua den. Garapenaren Hezkuntzan ahaleginak egiten dituzte baita ere, eta irakasleak, hezitzaileak eta Gobernu Kanpoko Erakundeetako kideak trebatu eta sentsibilizazio eta salaketa kanpainak burutzen dituzte. Ohiko hezkuntzaren alorrean eta bestelako eremutan aritzen dira. Egoitza Erroman dute, baina euren eragina herri osora (formakuntza eta sentsibilizazio kan-painak) eta nazioartera hedatzen da (Kooperazio proiektuekin batipat).

## UCODEP

Unità e Cooperazione per lo Sviluppo dei Popoli

*Federica Benedetti*

Via Madonna del Prato, 42

52100 Arezzo

Toscana • Italia

Tlf.:00-39-0575 907826 • Fax: 00-39-0575 909819

[eas@ucodep.org](mailto:eas@ucodep.org) • [www.ucodep.org](http://www.ucodep.org)

Italian jaio zen 1976an, Toscana hirian, eta 1990ean berregitura-tua izan zen. Mundu berri bat sortzeko gakoak eskaini nahi ditu. Mundu horretan justizia sozialaren praktikak, demokraziak eta kontsumo neurtuak lekua izan beharko lukete. Kooperazio lanen bitartez, sentsibilizazioarekin eta Garapenerako Hezkuntzarekin, elkartasuna eta gizaki eta herrien eskubideak eta, bidenabar, inguruarekiko errespetua, modu baketsuan aldarrikatzen ditu. Hezkuntza formalean aritzen da (Lehenengo Hezkuntzatik Unibertsitateraino), bai eta eskoletatik kanpo ere (gaztedia, oinarriko taldeak, elkarteak, e.a). Ipar eta Hegoaldearen arteko harremanen gaineko ikuspuntu bateratua dauka, eta, hortaz, elkartasunean oinarritutako ekonomia sustatzen du -bidezko merkataritza, banka etikoa- eta, baita ere, munduari zabalik eta kulturen artean bizitzeko gai izan daitekeen gizarte mota bat. Kooperazio proiektuak biltzen dituzten argitalpenak, bideoak eta CD-ROMak karrikatzen ditu. Nazioarteko kooperazioari dago-kionez, Ekuadorrekin, Errepublika Dominikarrekin, Nika-raguarekin, Bosniarekin, Serbiarekin, Tanzaniakin, Vietnamekin, e.a, lan egiten dute. Euren herrian ongi ezarrita daude, eta Europa eta nazioarteko proiektzioa dute.

## ITECO

Centre de Formation pour le développement

*Adeli Miguel • Namur Corral*

Rue Renkin, 2

1030 Bruxelles • Belgique

Tlf.:00-32- (0) 2-2437030 • Fax: 00-32- (0) 2-2453929

[iteco@iteco.be](mailto:iteco@iteco.be) / [adeliemiguel@iteco.be](mailto:adeliemiguel@iteco.be) • [www.iteco.be](http://www.iteco.be)

Belgikan sortu zen 1960an. Garapenaren, elkartasunaren, gizar-tearen partehartzearen eta bidegabekeriaren salaketan berri ematen die gazte talde, gizarte mugimendu eta hezitzaileei. Garapenerako Hezkuntzan dihardu, eta bere egutejiab Hezkuntza Popularra eta Ekintza Ikerketa metodoen eragin handia igerri daiteke. Talde honen ardatzak eragile multiplikatzaileen forma-kuntza eta, 'Antipodes' aldizkariarekin, gogoeta eta debatea sortzea dira. Walonian edota frantsesez mintzo den Belgikako zonaldean, Frantzian eta Europako beste zenbait herritara zabal-duta dago. RED (Garapenerako Hezkuntza Sarea) gisako Hezkuntza formaleko sareekin batera aritzen da. Baita ere, proiektuetarako dokumentazioa, jarraipena eta azterketak eskaintzen ditu.

## Red Nord Sud

### *Benoît Roosens*

18, rue Sablonnière

1000 Bruxelles • **Belgique**

Tél.: 00-32- (0) 2-218 31 44 • Fax: 00-32- (0) 2-223 15 12

[info@rednordsud.org](mailto:info@rednordsud.org)

Belgikan sortu zen 1992an. Garapenerako Hezkuntza jorratzen duten 20 erakundek osatzen dute. Sare anitza da, eta bere baitan Gobernu Kanpoko erakundeak eta Hezkuntza Iraunkorra eskaintzen duten taldeak biltzen dira. Nord-Sud sareak Garapenerako Hezkuntza eskoletan eta eskoletatik kanpo zabaldu asmo du. Bruselan dauka egoitza nagusia, eta bere eragina Walonian antzeman daiteke. Bere kideen bitartez eta Garapenerako Hezkuntza lantzen duten Gobernu Kanpoko beste erakundeen bitartez Europan barna proiektzioa dauka.

## Fédération Artisans du Monde

### *Melle Yaël Clec'h*

53 Bd de Strasbourg

75010 Paris • **France**

Tlf.: 00-33-01 56 03 93 50 • Fax: 00-33-01 42 70 96 35

[y.clech@artisansdumonde.org](mailto:y.clech@artisansdumonde.org) • [www.artisansdumonde.org](http://www.artisansdumonde.org)

1974ean sortutako mugimendu baten partaidea da. Hego eta Iparraldearen artean burutzen den merkataritza bidezkoagoa izan dadila nahi dute. Hegoaldeko herrien artisaulanen ekoizpena eta merkaturatzea sustatzen ditu, eta herri horietako errealitate soziala eta kulturala eta lan baldintzak ezagutzera ematen ditu. Euren sortutako sarean Bidezko Merkataritza sustatzen duten 100 talde daude eta Frantzian zehar 114 gune dituzte. Guneok ez dira soilik Bidezko Merkataritzako produktuak saltzen dituzten dendak, horietan, elkartasun mugimendu handi bat osatuz, 3.000 bolondres aritzen dira. Hezkuntza materialak ekoizten dituzte eta kontsumo kritikoa jorratzen duten sentsibilizazio kanpainak aurrera ateratzen dituzte Frantzian eta Europan.

## PTA

Programme Terre D'Avenir

*Anne Kaboré*

14 Passege Dubail

75010 Paris • France

Tlf.: 00-33-01-42 09 20 47 • Fax: 00-33-01-42-09 21 97

[terre-d-avenir@globonet.org](mailto:terre-d-avenir@globonet.org)

[www.globonet.org/terre-d-avenir](http://www.globonet.org/terre-d-avenir)

Parisen, Frantzian, sortu zen 1999an, Comité Catholique contre la Faim et pour le Développement (CCFD) eta Nazioarteko Elkartasunaren Gaineko Dokumentazio Zentroaren (RITIMO) eskutik. Sarean 13 elkarte eta 2 erakunde elkartzen dira. Frantzian Garapenerako Hezkuntzaren berri eman nahi dute debate eta ekintzen bitartez, eta horretarako, euren herrian eta nazioarten, elkarteratzeak sustatzen dituzte. Alor formalean eta, sareko kide diren GKEekin, ohiko hezkuntza eredutik kanpo egiten dute lan. Sareak koordinazioa eskaintzen du, formakuntza, hartuemanak, jarraipena eta Garapenerako Hezkuntza aztertze-ko metodoak. Datu basean Garapenerako Hezkuntza ardatz dituzten 300 kasuen artxiboa daukate, eta, baita ere, gidak, bideoak, CDRomak eta bestelako materiale pedagogikoak (900 ale guztira). Frantzian aski ongi errotuta daude eta nazioarteko proiektzioa daukate.

## KADE

Kerry Action for Development Education

*Mary McGillicuddy*

11, Denny Street

Tralee, Kerry • Ireland

Tlf./Fax: 00-353-066-7181358 • [kade@eircom.net](mailto:kade@eircom.net)

Irlandan sortu zen 1993an. Bere helburua hezkuntzaren bitartez justizia globala bultzatzea da. KADEk hezkuntza alor formala eta ez-ohikoa jorratzen ditu, eta tokian tokiko elkarte eta erakundeekin batera aritzen da. Giza Eskubideak, kulturen arteko ulermena, bidezko merkataritza eta partehartzearekin zerikusia duten praktikak eta ikasketak dira erakunde honek lantzen dituen ideietariko batzuk. Baliabide Gune bat daukate eta materiale pedagogikoa argitaratzen dute. Garapenerako Hezkuntzaren barruan partehartze aktiboa eta ikasleak protagonista diren ikas-metodoak erabiltzen ditu. Guzti honekin Kerryko biztanleen artean pentsamendu kritikoa eta elkartasuna ernetu nahi dituzte. Garapenerako Hezkuntzan espezializaturiko beste gune askotan bezala, irakasle eta hezitzaileei laguntza dokumentala eskaintzen die, euren Baliabide Zentrua dela medio. Hezkuntzan aritzeaz gainera, materiale pedagogikoa argitaratu eta partehartze komunitarioaren inguruko ikerketak koordinatu eta laguntzen dituzte. Garapenerako Hezkuntza Zentroekin duen harremanari esker, KADEk proiektio nazionala dauka.

## The National Innovative Centre of General Education

*Torben Ulrik Nissen*

Islevgaards Alle 5

2610 Roedovre • Denmark

Tlf.: 00-45-4491 46464 • Fax: 00-45-44914140

ungdomsbyen.spf@inet.dk • www.inet-spf.dk

1964ean sortua, Danimarkako Hezkuntza Ministeritzapean dago. Bigarren Hezkuntzako (8garren mailatik 12ra) ikasleen kurrikuloaren diseinuan ikuspuntu berritzaileak garatzen dituzte, ikas-materiala hobetuz eta euren lan eta ikerketak zabalduz. Eskola bat daukate; udalerrri ezberdinetako 25.000 ikasle ta irakasle jasotzen dituen 'Hiri Gaztea' izeneko formakuntza zentroa; ikerketa gune bat -ikus [www.inet\\_spf.dk](http://www.inet_spf.dk) - eta nazioartera hedatzen den GKE eta hezkuntza erakunde sare bat. Euren proposamen metodologikoetan gizartegintza, pedagogia eta psikologia arloko hainbat teoria uztartzen dituzte. Disziplinen arteko proposamen honek hezkuntzan ageri diren alderdi intelektualen, afektiboen, sozialen eta sortzaileen arteko oreka bilatzen du. Kopenhagen, Danimarkako hiriburuaren inguruan ezarrita dago, baina herri osoko ikasle nahiz irakasleak hurbiltzen dira bertara. Mugaz gaindiko proiektzioa dauka, nazioarteko sareen bitartez.

## Polygoneren topaketan parte hartu zuten tokian tokiko sareetako erakundeak

### ALBOAN

*Marlen Eizaguirre*

P. Logendio 2,2<sup>o</sup>

48008 Bilbao

País Vasco • España

Tlf./Fax: 00-34-94 4153592 • [m.eizaguirre@alboan.org](mailto:m.eizaguirre@alboan.org)

Bilbon, Euskalherrian, sortu zen 1996an. Euskal Erkidego Autonomoan eta Nafarroan ezarrita dago. Eraldaketa sozialaren alde egiten du lan, giza garapena, bizitza duina eta justizia gizaki guztion ondareak izan daitezzen. Euren aktibitateak hezkuntza-aren alorrean, trebakuntza politikoarenean eta komunikazioarenean isladatzen dira. Elkartasunerako Hezkuntza jorratzen duten neurrian, metodo honi dagozkion edukinak Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako kurrikuloetan ezarri nahi dituzte, gure mundua aldatzeko konpromezuari helduta. Ohiko hezkuntzatik kanpo aritzen dira baita ere (gazteen elkarteak). Ikerketa Ekintza metodoari ikuspuntu globala eranstean diote, sistemikoa. Euskalherrian ezarrita daude eta Euskalherriko mugetatik kanpo proiektzioa daukate, 'Fe y Alegría' federazioari esker.

## MUGARIK GABE

*Susana Correal* • *Edurne Rey*

Casa de Asociaciones "Itziar"

Pza. Zabalburu s/n

01003 Vitoria-Gasteiz

Pais Vasco • **España**

Tlf.: 00-34-945 277385 • Fax: 00-34-945 265907

[mugarik@teleline.es](mailto:mugarik@teleline.es)

1987an sortua. Kolektiboen gaitasunak azkartzea bilatzen du. Salaketa-lana eta munduan dauden ezberdintasunaren gaineko sentsibilizazioa funtsezkotzat jotzen ditu. Talde honek mundu osoko gizakien garapenaren aldeko apostua egiten du, eta aniztasunaren kontzientzia eukitzeko beharraz, emakumeek duten garrantziaz eta desmilitarizazio eta bakearen kulturaz ohartarazteko beharra nabarmentzen ditu. Erakunde indijenen eta emakumeen ekimenak laguntzen ditu. Euskalherrian, Garapenerako Hezkuntzaren barruan, sentsibilizazioa eta trebakuntza lantzen ditu. Hezkuntza ikuspuntuari dagokionez, Garapenerako Hezkuntza, Kulturen Arteko Hezkuntza eta Bakearen Aldeko Hezkuntza uztartzen ditu. Hezkuntza alor formalean aritzen da batipat (ikasle eta irakasleekin), haurren eta Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzan. Gehien jorratzen dituzten gaiak honakoak dira: Herri Indijenak, Generoa, Arrazakeria eta Kulturartekotasuna. Erakusketa andana egin dute eta langai didaktikoak prestatzen dituzte (CD.ak, gida didaktikoak...).

## AJP

**Acção Jovem para a Paz**

*Ana Filipa Flores Encarnação* • *Ana Filipa Flores*

Rua São João

3130-080 Granja do Ulmeiro • **Portugal**

Tlf.: 00-351-239-642815 • Fax: 00-351-239-642816

[ajpaz@clix.pt](mailto:ajpaz@clix.pt) / [ajp-p@clix.pt](mailto:ajp-p@clix.pt)

Portugaleko Granja do Ulmeiro herrian sortu zen 1986an. Gizakien garapena, elkarbizitza eta bakea ahalbidetu nahi dituzte. Partehartzea eta Giza Eskubideak sustatzen dituzte, ezein motako bazterketen aurka. Hezkuntza Partehartzailea eta Gatazken Irtenbiderako metodoak erabiltzen dituzte. Gazteak, besteak beste, Bidezko Merkataritzaz eta Ipar eta Hegoaldearen arteko harremanaz ohartarazi eta trebatzen dituzte. Seminarioak eskaintzen dizkiete bolondreseei, monitoreei eta kooperatzaileei. Aipaturiko seminarioak eta gazteen arteko topaketak Chavesen, Coimbran, Pombalen, Alviton, Beijan, e.a, gauzatu dira, eta Portugaletik kanpo, berriz, Timorren eta Cabo Verden.



## APEDI

**Associação de Profesores para a Educação Intercultural**

**Ana Maria da Conceição Maduro da costa e Silva**

Av. Da Liberdade, nº 3, 3º andar, sala 4

Lisboa • Portugal

Tlf.: 00-351-21-3425849 • Fax: 00-351-21-3225047

[dir.apedi@mail.telepac.pt](mailto:dir.apedi@mail.telepac.pt)

Irakasleen elkarte hau Portugalen sortu zen. Berrikuntza pedagogikoak lantzen dituzte, kulturen artekotasunari garrantzi berezia emanez. Europako Batasunaren aniztasun kulturalak berak eta Portugalen bizi eta inoiz koloniak izan ziren lurraldeetatik bertaratutako kolektiboek (Mozañbik, Angola, Cabo Verde, Timor...). ezinbestekoa egiten dute mota honetako hezkuntza. APEDI, horregatik hain zuzen, bai Portugalen eta bai Europan Garapenerako Hezkuntza jorratzen duten irakasle elkarteekin eta GKEekin anaikidetua dago.

## IMVF

**Instituto Marquês de Valle Flôr**

**Ana Isabel Lisboa Castanheira**

Rua de S. Nicolau, 105

110-548 Lisboa • Portugal

Tlf.: 00-351-21-3256300 • Fax: 00-351-21-3471904

[isabel.imvf@mail.telepac.pt](mailto:isabel.imvf@mail.telepac.pt)

[www.im-valle-flor-pt](http://www.im-valle-flor-pt) • [www.odisseia2000.net](http://www.odisseia2000.net) •

[www.forumdc.net](http://www.forumdc.net)

Portugalen sortu zen 1951an. Ordutik, laguntza humanitaria, Garapenerako Kooperazioa, Ipar eta Hegoaldearen arteko hartuemanen gaineko sentsibilizazioa eta Garapenerako Hezkuntza jorratu ditu. Lehenengo Hezkuntzatik hasita eta Unibertsitaterarte ikasle nahiz irakasleekin batera lan egiten du. Kooperazio proiektuetan murgilduta dago ere bai. Proiektzio nazionala dauka, eta nazioartean portugesez mintzo diren herriekin harremanak ditu.

## ISU

Instituto de Solidaridade e Cooperação

*Ana Filipa Flores Encarnação*

Travessa do possolo,11,3º

1350 Lisboa • Portugal

Tlf.: 00-351-21-3957831 • Fax: 00-351-21-3907206

[isu@mail.telepac.pt](mailto:isu@mail.telepac.pt)

## Associação Juvenil Tá a Mexer

*Fernanda Helena Garcia Ferreira*

Rua Almirante Reis, 57

2530-131 Lourinhã • Portugal

Tlf.: 00-351-917149285 • [fernandelena@hotmail.com](mailto:fernandelena@hotmail.com)

Lisboan, Portugalen, sortu zen. Gazteen buruzagi eta hezitzaileak trebatzen ditu. Hezkuntza Popularra eta Garapenerako Hezkuntzatik eratorriko metodo partehartzaileaz baliatzen da. Hiritar arduratsuak sortzea da bere helburua, euren etxeetan, eskoletan, komunitateetan, gazte taldeetan eta nazioarteko elkartasunean aritzeko gauza izan daitezen. Hitzaldiak, ikastarotak, topaketak, hezkuntza tailerrak, Bidezko Merkataritza eta Aisialdirako saioak antolatzen dituzte. Eragin lokala daukate

## Iturriak eta bibliografia

- Angulo, Gloria. (2001) *De Jomtien a Dakar. Diez años de ayuda a la Educación para Todos*. Bartzelona: Oxfam/Intermón.
- Bengoa, José. (1988). *La educación para los movimientos sociales*.
- Betto, Frei. (1999). *Desafíos para la educación popular en la coyuntura de América Latina*. Seminario Latinoamericano y Caribeño de Educación Popular.
- Egile batzuk (2002) *Alternativas Sur 1*, Madril. CIP/FUHEM
- Djeacoumar, Augustin. (2001) *Construir la paz practicando la igualdad*. INDP.
- Domingo, Daniel. (2000) *Sistema de educación maya*. PRODESSA.
- El Achkar, Soraya. (2001) *Liberación dialógica del silencio: una intervención político cultural*. Red de Apoyo por la Justicia y la Paz.
- Freire, Paulo. (1970) *Pedagogía del oprimido*. Siglo Veintiuno Editores.
- Ghiso, A. (1998). *De la práctica singular al diálogo con lo plural. Aproximaciones a otros tránsitos y sentidos de la sistematización en épocas de globalización*. Funlam.
- Ghiso, Alfredo. (1998) *Pedagogía/Conflicto. Pistas para deconstruir mitos y desarrollar propuestas de convivencia escolar*. CESEP.
- Hernández, Isabel & Cipolloni, Osvaldo. (1985). *El educador popular y la vida cotidiana. Dos experiencias entre comuneros mapuche*. CEAAL.
- Hountondji, Paulin J. (1997) *Culturas africanas y mundialización: una llamada a la Resistencia*. Africans on Africa series, Idoc Intern. 28, 4.
- Illich, Ivan & Lüning, Hildegard. (1979) *La escuela y la represión de nuestros hijos*. Sociedad de Educación Atenas.
- INDP. (2001). *Educación para el desarrollo*.
- Iniciativas de Cooperación y Desarrollo. (2002) *Proceso de Sistematización del grupo de trabajo de voluntariado de la CONGDE*. Madrid.
- Jara, O. *Para sistematizar experiencias*. IMDEC. 1997.
- Maalouf, Amin. (1999) *Identidades asesinas*. Alianza Editorial.
- Morin, E. (1999) *Los siete saberes necesarios para la educación del futuro*. Barcelona. Paidós.
- Petrella, Ricardo. (2001) *La educación víctima de cinco trampas*. PNUD. *Informe sobre Desarrollo Humano 2002*. Mundiprensa..
- Egile Batzuk (2000) *Educación para el desarrollo. Una experiencia europea de formación y de investigación-acción en ED destinada a animadores-as de jóvenes*. POLYGONE.
- Rodrigues Brandao, Carlos. (1985) *A educação como cultura*. Editora Brasiliense.
- Rovillos, Raymundo D. (1999) *La educación y el Decenio Internacional de los Pueblos Indígenas*. Echoes 16.
- XXI. Menderako Hezkuntzari buruzko Batzordeak (1999). *Hezkuntza: altxor ezkutua*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza.
- [www.webpolygone.net](http://www.webpolygone.net)







COMISIÓN EUROPEA  
DG Desarrollo



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteiz  
Udala

Arabako  
Foru Aldundia



Diputación  
Foral de Alava

Comunidad General de Ingresos,  
Cooperación al Desarrollo y Voluntariado,  
COMISIÓN DE SERVICIOS SOCIALES  
**Comunidad de Madrid**



Ministère  
des Affaires  
étrangères

**CIDAC**  
COOPERACIÓN INFORMACIÓN DESARROLLO



hegoa  
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZARTEKO LANIKOZETA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA  
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

